



Elkargarapenean hobeto esku hartzeko eskuliburua

Carlos Gómez Gil (zuzendaritza zientifikoa)
eta Amaia Unzueta Sesumaga





Elkargarapenean hobeto esku hartzeko eskuliburua

Carlos Gómez Gil (zuzendaritza zientifikoa)
eta Amaia Unzueta Sesumaga



«Elkargarapenerako proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko lan-tresnak» proiektuan biltzen da eskuliburu hau. Eusko Jaurlaritzaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoak (GLLF) 2005eko deialdian finantzaturako ekimena da.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Bakeaz 1992an sortutako gobernuz kanpoko erakundea da eta ikerketan aritzen da. Unibertsitateekin, bakezaletasunarekin, giza eskubideekin eta ingurumenarekin lotutako pertsonak sortu zuten, eta haren helburua hainbat gairi buruzko gogoetarako eta gizalegezko ekintzarako irizpideak ematea da; hala nola, nazioarteko harremanen militarizazioari buruz, segurtasun politikei buruz, armen ekoizpen eta salerosketari buruz, ekonomia eta ekologiaren arteko lotura teorikoari buruz, politika hidrológicoari eta uraren kudeaketari buruz, tokiko Agenda 21eko prozesuei buruz, kooperazio politikei edo bakerako heziketari buruz eta giza eskubideei buruz. Jarduera horiek garatzeko, liburutegi espezializatu bat du; aditu sare zabal baten parte hartzeari esker, azterketak eta ikerketak egiten ditu; hainbat liburu eta berripaper teoriko sortatan, bere ikerketak eta nazioarteko erakundeen ikerketak argitaratzen ditu —besteak beste, Worldwatch Institututerenak, ICLEIrenak eta UNESCOrenak—; ikastaroak, mintegiak eta hitzaldi zikloak antolatzen ditu; elkarte, erakunde eta komunikabideei aholkuak ematen dizkie; egunkarietan eta aldizkari teorikoetan artikuluak argitaratzen ditu; eta mintegietan eta biltzarretan parte hartzen du.

Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional (NE/SI) garapenerako lankidetzan diharduen gobernuz kanpoko euskal erakunde bat da, 1989an sortua. Munduan pobreziaarekin bukatzea da erakundearen helburua, pobrezia horren arrazoi ekonomiko, politiko eta sozialei aurre eginez. Gure erakundearen *lankidetzarako eredia* da lanean dihardugun arloak indartzea: giza eskubideak; gobernagarritasun demokratikoa eta elkar-hartze soziala; erakundeetako, gizarteko, produktioko eragileak prestatzea eta trebatzea eta garapenerako tokiko estrategietan engeiatzea; sektore publikoaren eginkizuna eta zerbitzu publikoen (hezkuntza, osasuna, azpiegiturak, etab.) kalitatea; tokiko ekonomia-garapena; genero-berdintasuna; produkzio aldetik naturaren baliabideak balioestea ingurumen-iraunkortasuna oinarri hartuta; eta ur-baliabideen kudeaketa publikoa eta eraginkorra. Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat ikastaro eta kanpaina egiten dugu *herritarrak garapenaren arloan hezteko eta sentikortzeko*, pobrezia eragiten duten arrazoen kontrako eta gizarte-justiziaren aldeko borrokan elkartasun-kontzientzia handiagoa behar dela jabe daitezen. *Bidezko merkataritza* sustatzen dugu, tresna egokia baita nazioarteko merkataritzan batzuen eta besteen arteko harremanetan sortzen diren aldeak salatzeko. Orobat, produkziarako eta merkaturatzeko eredu alternatiboak laguntzeko ere bide zuzena da; lan-eskubideak, ingurumenaren babesa eta talde ekoizleen bizi-maila hobetzea bermatuko duten eredu alternatiboak. *Laguntza humanitarioaren* arloan, hondamendi naturalen eta gatazka armatuen ondorio larrienak leuntzeko egiten dugu lan. Horretarako, prebentziarako neurri paraleloak ezartzen ditugu eta Hegoaldeko herrialdeetako biztanleria ahulenen giza garapen iraunkorrerako oinarriak finkatzen. *Immigrazioaren* eremuan, hainbat programa lantzen dugu elkargarapenaren ikuspegitik, kontzeptu horrek biltzen duen elkarrekikotasun-konpromisoa gure gain hartuz, eta gizarteratzearen arloan norabide biko prozesuak sortuz; horrela, prozesu horiei esker, etorkinek, eskubidedun subjektu diren aldetik, hiritar-konpromiso handiagoa berenganatzeko aukera izan dezaten Hegoaldeko komunitateetan.

Euskarazko itzulpena: Ramon Olasagasti Aiestaran (Bakun, S. L.).

Diseinua eta maketazioa: Mercedes Esteban Meriel.

Inprimaketa eta koadernaketa: Grafilur, S. A.

© **Bakeaz, 2009**

Santa Maria, 1-1. • 48005 Bilbo • Tel.: 94 4790070 • Faxe: 94 4790071
Posta elektronikoa: bakeaz@bakeaz.org • <http://www.bakeaz.org>

© **Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional, 2009**

Conde Mirasol, 7-behea • 48003 Bilbo • Tel.: 94 4792258 • Faxe: 94 4156223
Posta elektronikoa: solidaridad@sol-inter.org • <http://www.sol-inter.org>

ISBN: 978-84-88949-99-8

Lege-gordailua: BI-1572-09

Liburu hau inprimatzeko erabilitako papera % 100 birziklatua eta klororik gabea da.

Aurkibidea



Hitzaurrea	7
1. Elkargarapena	9
Zer da elkargarapena? Oinarrizko elementuak	9
Noiz eta zergatik sortu zen elkargarapena?	11
Elkargarapena Espainian	17
Nork esku har dezakete elkargarapenean?	20
Zergatik da beharrezkoa genero-ikuspegia elkargarapenean?	23
2. Euskal Autonomia Erkidegoko elkargarapenari buruzko ikerketaren ondorioak	29
Ikerketari buruz	29
Etorकिन asoziazionismoa Euskal Autonomia Erkidegoan	30
Elkargarapeneko prozesuaren eraikuntza Euskal Autonomia Erkidegoan	37
3. Galdera nagusiak	59
Elkargarapenari eta garapenerako lankidetzatradizionalari buruz	59
Elkargarapenari atxikitako arriskuak eta erronkak	65
Generoari eta elkargarapenari buruz	67
Elkargarapenaren muga eta aurreko urratsei buruz	70
4. Gehiago jakiteko	75
Bibliografia	77

Carlos Gómez Gil Soziologian doktorea da Alacanteko Unibertsitatearen eskutik, eta Politika Zientzietan eta Soziologian lizentziatua Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearen eskutik. Nazioarteko lankidetzaren, garapen eta immigrazio politiketan aditua da, Alacanteko Ekonomia-Analisi Aplikatu Saileko irakaslea eta Bakeaz-eko ikerlaria. Alacanteko Unibertsitateko Immigrazioaren Behatoki Iraunkorreko zuzendaria ere bada, eta immigrazio eta lankidetzaren gaietan hainbat erakunde publikoren aholkularia.

Amaia Unzueta Sesumaga Gizarte Lanean diplomatua da. Garapenerako lankidetzaren eta migrazioen arloetan espezializatu da Deustuko Unibertsitatearen eskutik. Garapenerako lankidetzaren diharduten hainbat erakundetan aritu izan da lanean Hegoaldeko herrialdeetan eta, gaur egun, Bakeaz-eko ikerketa-taldeko kidea da immigrazio eta lankidetzaren gaietan.

Hitzaurrea



Eskuliburu hau «Elkargarapenerako proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko lan-tresnak» ikerketa-proiektuaren emaitzetako bat da, *Elkargarapenaren aukerak eta mugak* liburuarekin batera (Bilbo, Bakeaz eta Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional, 2008). Proiektua Carlos Gómez Gilek zuzendu du eta unean-unean Bakeaz erakundeko talde teknikoko kideen (Xabier Andrés, Efrén Feliú, Manuel Fernández eta Amaia Unzueta) eta Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional elkarteko kideen (Gabriel Díez, Sara Maza eta Carmen Julia Ninamango) laguntza izan du. Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren babesa eta dirulaguntza jaso du proiektuak.

Bakeaz erakundea 1992an hasi zen bidea egiten eta geroztik eginahalean saiatu gara eztabaidei aurrea hartzen, gogoetak azaleratzen eta proposamenak egiten bizikidetzarako funtsezko gaiak sendotze aldera. Aurrekoaren ildo berean, 2004. urtean, komenigarritzat jo zen Bakeaz erakundearen nazioarteko lankidetzaren eremuan lan egiten hastea, migrazioen eta garapenaren arteko harremanen gain, hain zuzen. Izan ere, azaleratzen hasiak ziren hainbat fenomeno berri; gure irudiko, garapenerako lankidetzaren politiketan moldaketak egin beharra ekar zezaketen fenomenoak. Hala, era batera edo bestera, migrazio-korrante garaikideen eraginez politika horiek moldatu beharra etorriko zela aurreikusi genuen.

Ordutik hona egindako lana ikusirik, zuzen geundela uste dugu. Hainbat dinamika sortu dugu elkargarapenaren inguruan; dinamika horiek aukera eman dute eztabaidak elikatze-ko, gogoetarako eta ezagutzarako tresnak eskueran jartzeko eta hainbat proposamen lantzeko. Proposamen horiek Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako hainbat gizarte-eta erakunde-mailatan erabiltzen ari dira. Hala, hainbat koaderno teoriko, liburu eta ikerketa argitaratu, zabaldu eta banatu ditu Bakeaz-ek, eta lan horiek erreferentziatzat hartu dira elkargarapenaren arloan. Esperientzia horren bultzadarekin, 2005. urtean erabaki zen Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoari (GLLF) lan-proposamen bat aurkeztea Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional euskal GGEarekin batera. «Elkargarapenerako proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko Lan-tresnak» izendatu zen proposamena. Ekimenak Eusko Jaurlaritzaren babesa eta finantziazioa izan du. Eskertzekoa izan da denboran halako lan iraunkor bat egiteko aukera eman izana, oportunistorik baliatu gabe; izan ere, elkargarapenaren eremua aproposa da berehalako etekinak bilatzeko; berehalakoak bezain okerrak. Geroztik, ahalegina egin da Euskal Autonomia Erkidego osoan elkargarapenari loturiko asoziazio-mugimendua ezagutzeko eta erradiografia egiteko. Mugimendu horren ertzak aztertu dira eta gaitasunak neurtu, lorturiko datu garrantzitsuenak erakunde horiekin berberekin partekatzeko eta eztabaidatzeko. Proiektu hori, beraz, modu aktiboan eta parte-hartzezkoan berrelikatu da egitasmoa zuzendurik dagoen erakunde, elkarte eta kolektiboen eskutik; horrela, uztartu nahi izan dira ekintza eta gogoeta, praktika eta ezagutza, esperientzia eta ikerketa.

Ukaezina da migrazioen eta garapenaren inguruko proiektuarekin hasi gineneko gizarte-eta ekonomia-egoerak ez duela batere zerikusirik gaur egungoarekin. Asko aldatu dira



kontuak, eta baiesteko moduan gaude (halaxe adieraziko dugu eskuliburur honetan) bizi dugun krisi erraldoi hau oso-oso bizkor ari dela aldatzen elkargarapeneko politikak finkatzen diren zimenduen puska handi bat. Alabaina, inoiz etekin oportunistarik bilatu ez duen lanaren lasaitasunarekin, hasiera-hasieratik proiektu honi heldu diogun zorrotasunarekin eta gai horietan lanean hasi ginenetik bildu dugun jakintzarekin, esateko moduan gaude funtsezkoa dela eduki, tresna eta jakintza oinarrizkoak sortzea, elkargarapenaren praktika-hurbildu nahi duten guztiek erabiltzeko modua izan dezaten.

Halaxe da, azken urteotan migrazioei eta garapenari buruzko material garrantzitsuak argitaratu dira Espainian. Lan horiek hainbat ikuspegitatik heltzen diote gaiari eta hutsune deigarri bat betetzen laguntzen dute. Izan ere, hutsune horrek izugarri mugatzen zuen praxia eta elkargarapena behar bezala ulertzea. Alabaina, gogoeta teorikoen eta azken urteotan martxan jarri diren praktiken arteko tartea gero eta handiagoa da. Hori dela eta, hurbilketa handiagoa egon behar du nahitaezko gogoeta teorikoen eta maila praktikoen artean, bai jatorrian eta bai helmugan. Horrenbestez, eskuliburur honen asmoa da ikuspegiak, esperientziak eta dinamikak partekatzea bi ikuspegietatik: teoria, gogoeta eta ikerketatik, bai, baina, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian sortzen ari diren praktika, potentzialtasun eta esperientzietan sendo sustraituta. Ez da, beraz, bukatutako materialtzat hartu behar; elkargarapenaren esku-hartzeko eta elkargarapena zer den ulertzeko proposamen bat da, nahi bezain zabala, baina ahal izan dugun bezain zorrotz eta sakon landua.

Espero dugu proposamen honek jarraipena izatea, bidea oraindik ere luzea, konplexua eta aldakorra baita, eta ez dago apriorismoetarako eta zurruntasunetarako lekurik. Inoiz baino gehiago, jabetu behar dugu zein garrantzitsua den elkargarapeneko praktika hasiberriak mehatxatzen dituzten oportunismo ugariak ezagutaraztea, bai eta bizi dugun mundu-mailako krisi larri honek sortutako aldaketak ulertzea ere. Bakeaz-etik, eta Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional erakundetik, esker ona adieraztea besterik ez zaigu geratzen urte hauetan guztietan lan hori gauzatu duten pertsona, erakunde, elkarte, entitate eta talde guztiei. Espero dugu material hau lan-tresna erabilgarria izatea premiazko une horietan, gure esku hartzeak inoiz baino zorrotzagoak, zuhurragoak eta helduak izan behar duen garai hauetan.

1. Elkargarapena



Zer da elkargarapena? Oinarrizko elementuak

Inolako zalantzarik gabe, migrazioen eta garapenaren arloan erabiltzen diren kontzeptuen artean berrienetakoa eta zehaztugabeenetakoa da elkargarapena. Hitz abstraktua da, oso abstraktua ere; ez du definizio zehatz, adiera bakarreko eta adostasun zabalekorik; ikuskera oso lainoetatik aplikazio interesatueteraino iristen dira kontzeptu horri buruzko definizioak.

Gaur egun esku-hartze asko egin da Espainian elkargarapena izendapen horrekin; ugari dira adibideak. Era guztietako erakunde publiko eta pribatuk sustatu dituzte esku-hartze horiek eta bidea urratzen joan da pixkanaka. Alabaina, ez da ahalegin txikiena ere egin kontzeptua bera definitzeko eta mugatzeko eta, are okerragoa, elkargarapenak bildu beharko lituzkeen oinarrizko elementuak jasotzen ez zituzten hainbat ekimen izan dira esku-hartze horien artean. Horrek galdu egin du pixkanaka terminoa eta mugatu egin ditu haren etorkizunerako aukerak.

Terminoaren erabilera interesatu horri gogo onez lotu zaizkio hainbat eragile, bai etorkinak neke handiekin ateratzen diren herrialdeetan, bai eta etorkin horiek berak (sarritan marjinalitatean eta bazterkerian) bizi diren herrialdeetan ere. Eragile horiek dirua atera nahi izaten dute elkargarapenaren eskutik justifikatutako diru eta ekimenen bidez, eta hainbat ideia bitxi defendatzen dituzte; hala nola, *berdinen arteko lankidetz*a edo *elkarrekiko onuraren teoria*. Horrekin guztiarekin, terminoaren erabilera interesatua nahastu egiten da boluntarismoarekin, eta kontzeptualizazio-ahaleginak haren erabilpen instrumentalarekin; halako gai konplexu bat —elkargarapena, alegia— teorizatze lan nekeza pentsamendu bigun eta politikoki zuzenarekin nahasten da, ezpada haren instrumentalizazio huts eta gordinarekin. Joaquin Arango katedratikoak ondo adierazi duenez, «izen txar bat daukagu asmo oneko ideia batentzat»; izan ere, zuzenketa politikoaren zama handia du terminoak, anbigutasunez eta nahasmenez bete. Eta ezin ahaztu benetan eragin txikia duela, nahiz eta helburuak zuzenak izan.

Elkargarapena modu interesatuan erabili izanaren adibide franko daude eta, horren ondorioz, begien bistakoa da elkargarapeneko jarduera asko abiatzeko saioek porrot egingo dutela seguru, bai jarduera horien erabilera instrumentala egiteko asmo garbia dutelako, bai praktika horien ahalmen eta esperientzien gainean behar besteko gogoetarik egin ez dutelako. Esan dezagun, bidenabar, gure herrialdean oso ibilbide laburra egin dutela esperientzia horiek. Egia hori, termino hori erabiltzeak zerikusirik handiago du funts publikoen erabilera hain gai zehaztugabeen justifikatzeko nahiarekin, nolabaiteko praktika batean oinarritutako teorizazio-ahaleginarekin baino.

Labur-labur, honela identifika dezakegu elkargarapena: **bai administrazio publikoek eta pribatuek eta bai etorkinen elkarrekin bultzatutako ekintzak; horien helburua da helmugako udalerrietan bizi diren etorkin-komunitateak partaide egitea jatorriko komunitate**



teen giza garapenean, eta komunitate horien eta harrerako gizartearen harremanak laguntzea. Beraz, **norabide biko prozesu zabala da, eta bi alderdi horiek biltzen ditu: garapena jatorrian eta integrazioa helmugan.**

Elkargarapenaren oinarritzko koordinatu ak finkatze aldera, elkargarapeneko esku-hartzeek egiturazko zer osagai izan beharko luketen zerrendatuko dugu. Halako ekintzak mamitze-ko gutxieneakoak dira osagai hauek:

- ▶▶ **Izaera praktikoa**, hau da, esku-hartzeko osagai dinamikoa, gauzatzen diren ekimenen bidez; alegia, jardunbide iraunkorrean dauden ekimenez bidez.
- ▶▶ **Transnazionalitatea**, nazio bat baino gehiagoko komunitate, pertsona eta gizartearen arteko harremana dagoelako, bai eta irteerako eta harrerako eremuen arteko eta herrialde emaile eta hartzaileen arteko harremana ere.
- ▶▶ **Konpromisoa**, modu aktiboan eta positiboan esku hartzeko borondateztat harturik. Gauzatzen diren jardueren bitartez esku hartzen da, jarduera horien fase eta prozesu guztietan eta egikaritzean bertan.
- ▶▶ **Hobetzea**, egiten diren proposamenak eta ekimenak mugiarazten dituen ardatz gisa hartuta. Esku hartzen duten pertsonen bizi-baldintzak hobera aldatzea bilatzen da gizarte, ekonomia eta harreman aldetik, herrialde igorleetan eta hartzaileetan, jatorrian eta helmugan.
- ▶▶ **Bestelako harremanak**, ezartzen diren ekimenen bidez. Ohikoak ez, baizik eta bestelako bide, baliabide, tresna, harreman, kontaktu eta konpromisoak erabiltzen dira ekimen horietan.
- ▶▶ **Horizontaltasuna**, sortzen diren elkarren arteko harremanetan. Betiko lankidetzajardueretan ohikoa dena baino berdintasun handiagoan gauzatzen dira harreman horiek; horrenbestez, etorkinek edo beren erakundeek gaitasuna dute zuzenean esku hartzeko eta parte hartzeko.
- ▶▶ **Errespetua**, esku hartzen duten eragile, populazio eta erakunde guztien artean, edozein dela ere haien egoera, bai herrialde sustatzaileetan eta bai ekimenak jasotzen dituzten herrialdeetan.
- ▶▶ **Elkarrekiko ardura** jatorriko eta helmugako eragile guztien artean, proiektuaren ziklo osoan egindako ekimenak diseinatzeko, zehazteko, identifikatzeko, gauzatzeko, garatzeko, betetzeko, ebaluatzeko eta ikuskatzeko.

Oinarritzko osagai horiek guztiak aintzat izanda, elkargarapenaren definizio hauxe egin daiteke: **«Nazioz gaindiko eremu batean etorkinek berek esku hartzen dutela gauzatzen diren ekintza guztietan; etorkinek zuzenean esku hartzen dute ekintza horiek identifikatzeko, gauzatzeko eta/edo betetzeko, beste erakunde eta elkarte batzuekin batera. Helburua da ekintza horiek hartuko dituzten populazioen bizi-baldintzak eta ekonomia- eta gizarte-garapena hobetzea, hala jatorrian nola helmugan, eta horretarako harreman horizontala ezartzea herrialde igorleko eta hartzaileko komunitateen artean, ekintzaren osagarri gisa».**¹

Jardunbideetan nazioz gaindiko dimentsioa eskatzen dute, beraz, elkargarapeneko praktika horiek eta etorkinek eta beren elkarrekin zuzenean parte hartu behar dute, bai beren beharrak bereizten, bai jarduera horiek diseinatzen, bai ekintzak gauzatzen. Ekintza horien



1. Definizio teoriko hori José Ramón González Parada ikertzaileak landua da, elkargarapenari buruz hainbat egilerekin batera egindako beste ikerketa batzuetan.

helburuak garbia izan behar du: populazio hartzaileen bizi-baldintzak eta garapen ekonomiko, soziala eta humanoa hobetzea, ekimen horietan parte hartzen duten komunitateen arteko harremanen bitartez, hala herrialde igorleetan nola hartzaileetan, ekintza bakoitzean oinarri hartuta horizontaltasuna, errespetua eta elkarrekiko ardura. Elkargarapenak izan beharko lituzkeen gutxieneko ezaugarriak dira horiek elkargarapentzat hartu ahal izateko. Egia da, orobat, jardunbide horiek, gizakien arteko edozein interakzio gisa, ez daudela libre gatazka, botere-borroka eta interes gutxi-gehiago kontrajarrietatik; inportanteena, ordea, ondo konpontzea da bizikidetzak aurrera egin dezan.

Orain, galdera egin dezakegu zein diren elkargarapenaren eta garapenerako lankidetzaren arteko alde nagusiak. Garapenerako lankidetzak helburu zehatz batzuk ditu, eta helburu horiek dira gauzatu nahi den jardueraren beraren izateko arrazoia, eta azken-azkenean xedea da garapen hori lortzea. Egiari zor, gai eztabaidagarria eta kontraesankorra dela *garapen* esaten diogun hori definitzea, identifikatzea, kontzeptualizatzea eta moldatzea; baina bat etor gaitzke azken helburua zehazterakoan: kaltetutako biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzea. Horrela, garapenerako lankidetzak elkarrekin egindako lana eskatzen du, bi eragile edo gehiagoren artean egindakoa, helburu komun bat lortze aldera. Horretarako, ekintza, proiektu, programa eta prozesu espezifikoak gauzatzen dira, pobretutako herrialdeetan, eta bereziki egoera okerrean dauden biztanleriaren sektoreetan, eragin bera sortze aldera. Garapenerako Laguntza Ofizialak (GLO) laguntza-kontzeptua adierazten du garapena harturik helburu zehatz. GLO, beraz, kontzeptu askoz mugatuagoa eta zehatzagoa da, laguntza hori bideratzen den herrialde pobreetan gauzatutako operazio, ondasun eta ekintzak oso baldintza zehatzekin burutzen direlako. Eta irizpide, bideratzeko modu eta gastuen izaera aldetik ere mugatuak dira Laguntza Ofizial horiek; izan ere, oso-oso zehatzak dira ELGEn Garapenerako Laguntzen Batzordeak (GLB) Creditor Reporting System deritzonaren bitartez nazioartean GLOtzat onartzen dituen gastuak. Horrenbestez, GLBk finkatutako irizpideak aintzat hartuta, GLO honela zehazten da: GLBren zerrendako i atalean agertzen diren herrialdeetara bideratutako korrontek, bai eta i ataleko laguntza jasoko dutenak helmuga izango dituen erakunde multilateraletara bideratutakoak; erakunde publikoek —estatuetako eta tokiko gobernuek eta haien organo betearazleak barne direla— emandako laguntzak dira. Korronte horien ekintzak helburu nagusi batekin administratzen dira: garapen bidean diren herrialdeak garatzea eta ongizate ekonomikoa sustatzea. Emakida-izaera du GLOk eta gutxienez %25eko emakida-elementua dauka, mailegu moduan emanaz gero.

Ikusi dugunez, ez migrazio-prozesuak eta ez etorkinak ez dira agertzen garapenerako lankidetzan, nahiz eta potentzialki etorkin asko bidaltzen dituzten herrialdeetan edo tokietan gauzatu. Ez dago, beraz, aparteko jarduerarik etorkinak ekintza horietan engaiatzeko, eta ez da bestelako harremanik sortzen; gauzatzen diren jardueretan etorkinen elkarrekiko ardura, edo herrialde igorle eta hartzaileen artekoa adieraziko duen harremanik, alegia.

Noiz eta zergatik sortu zen elkargarapena?

Garrantzitsua da zehaztea elkargarapena ez dela oraingo kontua, eta are gutxiago europarren ideia bikain horietako bat. Hamarkada asko dira, berez gainera, etorkinek eragin handiko sareak eraiki dituztela, haien arteko harremanen pribatutasunari eta haien komunitatekiko konpromiso historikoei eutsiz. Elkargarapenaren indarra horretan datza, hain



zuzen: elkarrekikotasun-osagaian, barnean duen elkarrenganako konpromisoaren planteamenduan. Horrek bildu behar ditu hasieratik bukaerara gauzatzen diren ekintzak.

Elkargarapena terminoa 1970eko hamarkadan aipatu zen aurrenekoz, Frantziako ezkerrean hainbat girotan sortutako teorizazio-prozesuetan. Nazioarteko lankidetzan beste molde batzuk esploratu nahi ziren horren bidez, baina proposamen horien bizkarrezurra zen etorkinak beren herrialdeetara, beren etxeetara buelta zitezten sustatzea. Hala, Georges Tapinosek (1974) hamarkada horretan egindako lanak funtsezko aurrekariak dira elkargarapenaren sorrera teorikoak ulertzeko. Migrazioek jatorriko herrialdeetan zer eragin duten eta herrialde horietara zer transferentzia bideratzen den hausnarrean hasi zen Tapinos lan horien bidez. 1975ean, Frantziako Gobernuak gogoeta egiten hasi zen etorkinen komunitateak jatorriko herrialdeekin nola harremanetan jarri, baina betiere kezka horrek bultzatuta: etorkin horien itzulera nola lagundu.

1977an jarri ziren abian itzulera hori laguntzeko lehen ekintzak. Gerora jatorriko herrialdeetara itzultzeko asmoa zuten langile atzerritarren aldetik hainbat proiektu eta plan jarri ziren martxan Frantzian prestakuntza jasotzeko. Horiek izan ziren hastapeneko ekintza haiek. Hala, hitzarmenak sinatu ziren besteak beste Aljeriarekin eta Senegalekin. François Mitterrand Errepublikako presidentziara iritsi zelarik, itzultzeko laguntza-programa horiek birformulatu egin ziren elkargarapenerako politiken eskutik, eta horretarako hiru ardatz nagusi hartu ziren oinarri: programa horietara bil zitezkeen hautagaiak aukeratzea, hautagai horiek informatzea eta prestatzea etxera itzultzeko erabakia har zezaten, eta itzultzen ziren komunitateetan lankidetzarako programak burutzea. Horrekin guztiarekin, beste espazio batzuk bilatzeko lana egin zen etorkinen ingurunearen eta garapenerako laguntzaren artean harremanak bideratzeko. 1980ko hamarkadan lan horri eutsi egin zioten Frantziako gobernu guztiek, hala ezkerrekoek nola eskuinekoek. Alabaina, politika horien porrota nabarmena zen, hasierako aurreikuspenak bestelakoak izan arren, oso etorkin gutxi bildu baitzen politika horietara; horrenbestez, hutsaren hurrengoia izan zen abiatutako ekintza askoren bideragarritasuna.

1997an, Sami Naïr-ek Elkargarapenerako eta Nazioarteko Migrazioetarako Ministerio-arterko Misioaren ardura hartu zuen Mitterrand presidentearen izenean eta, hark zuzenduta, ahalegin teoriko handia egin zen elkargarapeneko politika horiek Frantziako Gobernuak nazioarteko politikan, garapenean eta immigrazioan zituen eskumenetara biltzeko. Eta, orobat, elkargarapenaren kontzeptua bera zehazteko lana egin zen. Nolanahi ere, planaren filosofiak jarraitu zuen itzuleraren ideia horretan oinarritzen; itzultzea zen funtsa Hegoaldeko herrialdeetan garapena bultzatzeko eta, horrela, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko aldeak murrizteko. Helburua, finean, migrazio-presioak eta prozesu horiek bultzatzen zituzten indarrak gutxitzea zen.

Nairren iritziz, migrazio-politikak hiru ardatz nagusitan oinarritu behar zuen: migrazio joan-etorrien lege-kudeaketa; elkargarapeneko programa bat herrialde hartzaileak eta jatorriko herrialdeak lotuko dituen, gai izango dena immigrazioa bi aldeentzat eta etorkinentzat berentzat faktore onuragarri bihurtzeko; eta etorkinak integratzeko politika publikoak. 1998tik aurrera hasi zen, ordea, programa hori eragin nabarmena izaten; garaitsu hartan egindako legeztatzeetatik kanpo, paperik gabe geratu ziren etorkinak beren herrialdeetara itzularazten ahalegindu ziren urte hartatik aurrera. Horrek guztiak ekarri du pixkana-pixkana programa horiek balioa galtzea; gaur egun, berriro ere sendo heldu diote etorkinak beren jatorriko herrialdeetara bultzatzeko helburuari. Halaxe geratu da islatuta Immigrazio eta Asiloari buruzko Europako Hitzarmenean; Europako Batasuneko 27 herrialdeek onartu zuten hitzarmena Bruselan, 2008ko urriaren 16an.

Elkargarapeneko politikak beste herrialde batzuetan izan duen ibilbidea ez da oso nabarrena izan duela gutxira arte; berriki hasi da indar hartzen migrazio eta garapeneko politika berrien bidez. Nolanahi ere, Frantziako esperientzia aitzindariak mugatu egin ditu gauzatutako ekinbide asko.

► Elkargarapena erakundeen politiketan

Erakundeen politiketan elkargarapena noiz sortu zen jakiteko, 1995. urtera egin behar dugu atzera. Urte hartan, Euromediterraneoko Ministroen Biltzarra egin zen Bartzelonan, eta hainbat lan-mahai antolatu ziren Euromedi Hiritar Forumaren baitan. Mahai horietako batean eta ateratako ondorioen artean egiaztatu zen migrazioak politikekin eta garapenerako lankidetzajarduerekin lotu beharra zeudela, bai harrerako herrialdean eta bai jatorrikoan. Kontzeptua bera ez da aipatzen, baina bai bere formulazioa.

Europar, Tampereko Kontseilu Europarrean aipatzen da aurrenekoz elkargarapena. 1999ko urriaren 15 eta 16an egin zen kontseilua, Finlandiako hiri horretan. Elkargarapenaren aipamena agertzen da i. puntuan —«Jatorriko herrialdeekin kolaborazioa»— eta A atalean —«Europako Batasunaren asilo eta migrazio politika»—. Hala dio pasarte zehatzak: «Politika horrek arrakasta izateko beste osagai funtsezkoa izango da interesa duten hirugarren herrialdeekin lankidetzan jardutea, elkargarapena sustatze aldera». Mendebaldeko Mediterraneoan Migrazioei buruzko Ministroen Biltzarrak 2002an hasi ziren Tunisian, eta harrezkero, aldian-aldian, elkargarapenaren eremu horren gaineko gogoetak gehitu dira 5 + 5 Elkarrizketaren markoan. Hala, hainbat ondorio atera ziren Algecirasen (Espainia) 2006ko abenduaren 12 eta 13an egindako biltzarrean. Ondorioen txosten horretan jasotzen da migrazioak jatorriko herrialdeentzat dituen onura ekonomiko eta humanoiei buruzko atal espezifiko bat. Era berean, 2005eko abenduaren 15 eta 16an Bruselan egindako Kontseilu Europarraren Presidentziako ondorioen artean, IV. atalean zehazki, migrazioari buruzko ikuspegi global bat onartu zen; ikuspegi horren 9. atalean, migrazioa eta garapena elkarri lotuta lan egiteak duen garrantzia aipatzen da. Europako Legebiltzarrak ere behin eta berriro azpimarratu du azken aldian zein garrantzitsua den migrazioei loturiko garapen-estrategiak ezartzea. Besteak beste, *Immigrazio ekonomikoaren kudeaketari buruzko EBren planteamenduaren gaineko Txostena* (Europako Legebiltzarra, 2005). Txosten horren bi ataletan berariaz aipatzen dira elkargarapeneko politikak.

Espainiak migrazio joan-etorriak beste era batera kudeatzeko proposamena jarri nahi izan zuen Europako gainerako bazkideen eta Mediterraneoako herrialde auzoen agendan, 2006an Kanariar uharteetako kostaldera cayuco ugari iristen hasi zela eta. Hala, borondate horrek bultzatuta, urte horretan bertan, uztailean, antolatu zuen «Migrazioa eta Garapena» Euro-Afrika Eskualdeko Biltzarra. Biltzar horretan, Afrikako migrazioen kudeaketari beste bultzada bat eman nahi izan zitzaion. Eta horretarako, bi bide lehenetsi ziren: elkarrekiko arduraren oinarrietatik abiatu eta migrazio-politikak elkarrekin kudeatzea eta, horrez gain, garapenaren eta elkargarapenaren arloan lankidetzarako beste marko bat aztertzea. Hala, Kontseilu Europarrak «Migrazioen ikuspegi globala» deritzona onartu zuen 2005eko abenduan, Bruselan egindako bileran. Batez ere Mediterraneoan eta Afrikan biltzen dira ikuspegi horretako jardunbideak. Harrezkero, gai horretan Europako politikak egin nahi duen biraren erreferentzia-puntua da ikuspegi global hori. Funtsezko bi ardatz ditu ikuspegi horrek: estatu kideen arteko lankidetzajarduerak operatiboa, eta hirugarren herrialdeekin lankidetzajarduerak, hala jatorriko nola igarotzakoeekin. Europako Batasunaren «Migrazioen ikuspegi globalak» migrazio-prozesuek gaur arte izan dutena baino ikuspegi globalagoa ezarri nahi du,



migrazio-politika komuna lortzeko bidean. Baina, horrez gain, bestelako alderdi batzuk ere lotu nahi ditu: migrazio-politiken kudeaketa herrialde kideetan, legez kanpoko migrazioaren kontrako borroka, eta herrialde igorleen elkarrekiko arduraren estrategiak, bai beren herrialdeetako mugak zaintzeko eta kontrolatzeko bai migrazioei loturiko garapen-proiektuak identifikatzeko. Espainiak bultzada nabarmena eman dio ikuspegi horri.

Nazio Batuen eremuan, nabarmentzekoa da Nazioarteko Migrazioari eta Garapenari buruzko Goi-mailako Elkarrizketa deritzona. Elkarrizketa hori 2006ko irailean jarri zen martxan, New Yorken, Nazio Batuen babesean, NBEren Batzar Nagusiaren A/Res/60/227 Ebazpena betez. Erakunde horrek hartzen duen halako lehen ekitaldia da. Elkarrizketa horren helburua da migrazioen kudeaketari buruzko jardunbide onenak partekatzea eta, aldi berean, migrazioen eta garapenaren arteko lotura bultzatzea. NBEk gai horiek jorratu ditu azken urteotan eta, hala, erakundeko idazkari nagusiaren hainbat txostenetan gorpuztu dira. Lehenbiziko txostenetako bat *Nazioarteko migrazioa eta garapena* izan zen (Nazio Batuak, 2003). Txostenaren azken ondorioen artean aipatzen zen gaiari buruz Nazio Batuen Biltzarra antolatzeke premia, aurrez aipatutako goi-mailako elkarrizketaren ildo berean. Alde horretatik, goi-mailako elkarrizketak hainbat helburu hartu zituen: migrazioak gehitzea Milurtekoko Garapen Helburuetan eta pobrezia kontrako borroka-estrategien dokumentu nazionaletan; migrazio- eta garapen-adierazleak sustatzea; diasporak ekonomian duen eginkizuna sendotzea eta diru-bidalketek garapenean duten potentziala bultzatzea (Nazio Batuak, 2006), migrazioek giza eta gizarte-garapenerako duten potentzialtasuna zabal analizatuz. Mundu mailako lehen topaketa horrek Belgikan izan zuen jarraipena 2007ko uztailan, eta ondoren Filipinetan, 2008ko urrian. Hasiera-hasieratik lankidetzat estua izan da Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearekin; horrek ere lantalde bat eratu du gaiaren gainean.

Azkenik, 2004ko irailean, Zibilizazioen Aliantza aurkeztu zuen José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako presidentek Nazio Batuen Batzar Nagusian, mundu arabiarren eta Mendebaldearen arteko bereizketaren arrazoiei aurre egiteko. Aliantza horren proposamenaren baitan, goi-mailako talde bat eratu zen hainbat proposamen bildu eta elkarrizketa horretan bidea egiten hasteko, eta proposamenen txosten hori NBEra igotzeko. Hala, hainbat gogoeta bildu ziren migrazioen eta garapenaren eginkizunari buruz.

Horrenbestez, migrazio-politikak mendebaldeko herrialde eta erakundeetan indarra hartuz joan diren heinean, joan da aitzinatuz garapenaren dimentsioa migrazio horien osagarri gisa gehitzeko ideia, ziurtzat emanda etorkinek eta beren baliabide eta harremanek hainbat ahalmen sortzen dutela. Ahalmen horiek ez dute geratu behar erakunde publiko eta pribatuetatik kanpo.

► Migrazioen eta garapenaren arteko loturak

Garapena izaera historiko, ekonomiko, sozial eta politikoa duen eraikuntza intelektuala da funtsean. Hamarkada askotan, mendebaldeko herrialdeen behar eta interesei erantzuna ematen saiatu da garapena. Horrek azaltzen du zergatik hainbat hamarkadatan politika horiek ezer gutxirako balio izan duten herrialde pobreetako bizi-baldintzak eta bizikidetzak hobetzeko. Aldiz, pribilegiozko tresna gisa erabili dira batez ere, merkataritza, estrategia, enpresa eta defentsa aldetiko interesak laguntzeko: hala, adierazle ekonomikoak hazten ziren heinean, beldurtzeko moduko neurrietara hazi ziren miseria, pobrezia, gosea eta malnutrizioa herrialde askotan.

Garapen-prozesuak normalean azaltzen digutena baino askoz konplexuagoak dira, eta oso gutxi ezagutzen dira oraindik prozesu horiek migrazioekin dituzten harremanak. Askorentzat, garapen faltari emandako berehalako erantzuna dira migrazioak, herrialdeen hazkuntza eta ekonomia beharretatik ihes egiteko modu bat. Alabaina, migrazio-korronteak ez dira agertzen bitzta-mailen arteko aldeak direla medio, eta ez dira egoera okerrean daudenak abiatzen, askotan esan ohi den moduan. Aitzitik, garapen sortu berri baten hastapenetan, demografia, ekonomia eta gizarte aldetiko orekak apurtzea gerta liteke, eta horrekin migrazioak sortzea. Eta ezin da ahaztu, era berean, herrialde garatuetako ekonomia industrializatueta esku-lanaren beharrak sortzen duen erakarmena.

Gure ekonomia kapitalistan, merkatuak zehazten ditu, esku-lanaren eskaintza eta eskararen bidez, jatorriko herrialdeen eta helmugakoen arteko migrazio-prozesuak. Lan-merkatu gero eta prekarioagoa erregulatzeko beste mekanismo bat bihurtu da kasik migrazioa. Era berean, merkatuak eta merkatuaren dinamika sistemikoek zehazten dituzte herrialde askotan bizi diren pobretze- eta aberaste-prozesu azkarak. Uste zabaldua da herrialde baten garapena autoenplegua sortuko duten mikroproiektuen batura dela, eta mikroproiektu horiek gai direla familien mantenturako soldata sortzeko eta biztanleak bizi diren lekuetan finkatzeko. Hori uste duenak, ordea, ez daki batere zein mekanismok mugitzen dituzten munduko ekonomia, inbertsioak, finantzak eta produkzio-sistemak gurea bezalako gizarte globalizatu batean.

Hori dela eta, funtsezkoa da ulertzea gaur egungo migrazioak prozesu oso konplexu eta suntsizailleetan gertatzen ari direla. Halakoak dira bizi dugun garaia ezaugarriak ere: salerosketa-trukeen igoera asimetrikoa, kapital-mugimenduen mugikortasun gero eta handiagoa eta produkzio- eta diruaren jabetza-prozesuen nazioartekotzea. Horrek guztiak, migrazio-prozesuak gelditu ez, baizik eta mantendu eta bizkortu egin ditu zenbait eremutan. Hori bai, migrazioak ekonomiaren ikuspegi hutsetik hartzeak migrazio-prozesuen eta horien ondorioen bestelako ezaugarri askoz zabalago eta baliotsuagoak uzten ditu bazterean; bai herrialde igorleetako eta bai hartzaileetako ezaugarriak. Eta aldi berean, ikuspegi horrek galarazi egiten du globalizazio-prozesua gizarte garaikideetan eragiten ari den aldaketak behar bezala ulertzea; azken batean, jendeak bere herrialdea uztea erabaki eta beste bitzta bati ekiteko arrazoiak zein diren ulertzea.

Ikuspegi guztietatik, beren herrialdeetatik ateratzen direnek ez dute aurkitzen migrazioan bilatzen dutena mendebaldeko herrialdeek proposatzen dizkieten garapen- eta lankidetzat-alternatibetan. Hori dela eta, funtsezkoa da garapenaren oinarri askoz zabalagoetan pentsatzea. Oinarri horien bidez, bizi-baldintzak bermatu behar zaizkie immigranteei, bai eta eskubideak, parte-hartze publikoa, errespetua, duintasuna, berentzat eta beren familientzat babesa eta gutxieneko ongizatea ere. Unean uneko egoeratik harago doa hori guztia eta denbora-epe luzeagoak behar dira. Ez da soilik lanik ez izatea migrazioak bultzatzen dituenak; badira beste arrazoi ez hain nabariak baina langabezia bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak; bizitzeko itxaropen falta horri loturiko arrazoiak dira; hala nola, eskubideak izatea eta onartzea eta lege unibertsaletan oinarritutako askatasun eta berdintasun tratuz gozatzea; eta horretan guztian familia-dinamikak orain arte uste izan dena baino askoz garrantzitsuagoak dira. Lana eta diru-irabaziak lortzeko eskubideaz gain, badituzte bestelako eskubideak ere: besteak beste, gizarte-eskubidea, lan-eskubidea, osasunerako aukera, lege-babes, tratu-berdintasun eta askatasuna, hitzaren zentzu zabalean, beraien eta beren familien bizitzari buruz erabakitzeko gaitasuna... Bestalde, ezin dugu ahaztu etorkinen sareek, egiturek eta super-egiturek zer-nolako garrantzia duten migrazio-prozesuetan; aliantza iraunkor eta estu gisa jokatzeko dute eta denboran zehar irauten dute. Sare eta egitura horiek, baita aliantzak ere, aintzat hartu behar dira elkargarapeneko dinamiketan.



Emigratzea erabaki pertsonala dela eta normalean familiaren babes ezinbesteko eta balio-tsuarekin hartzen dela hasi behar dugu ulertzen. Geratzeak, berriz, konfiantza izatea eskatzen du herrialde bateko zuzendari politikoengan, gobernuengan eta ekonomiarengan; norberaren eta hurbilekoen bizitza eta mantenua bermatuko duten konfiantza. Inork ez du emigratzen bere egoera okertu egingo dela pentsatuz, baizik eta bere eta inguruko ongizatea beste leku batean hobetzeko ikuspegi ez oso ziurrarekin; eta ikuskera hori gertaera egiaztagarrien bidez nabarmen aldatzen ez den artean, gutxi egin ahal izango da migrazioak geratzeko. Elkargarapenak errespetuz jokatu behar du, elementu horiek guztiak kontuan hartuta. Jarraitzen dugu sinisten behin-behineko lan bat ematen badugu, doidoi nola edo hala bizirauteko adina diru-sarrera sortzeko lain, betetzat eman dezakegula garapenaren helburua.

Hori guztia dela eta, hasi beharreko elkargarapeneko ekintzak ondo bideratzeko, ezin dira migrazioak patroi ekonomiko hutsen arabera ulertu, eta are gutxiago ekonomia funtzional eta desarrollistaren gure eskemaren arabera. Arrazoi horrexegatik egingo dute porrot elkargarapeneko proposamen askok: etorkinari edo itzuliari eskaintzen saiatzen diren lanaren maila instrumentala baino ez dutelako aintzat hartzen, kontuan izan gabe bitarteko bat besterik ez dela, garapen egoki baterako ezinbestekoak diren beste osagai batzuen artean bat gehiago. Proposamen horietako askok etorkina bera gainditu egiten dute eta, gaur egun, nazioak berak ere bai.

Elkargarapena bestelako ardatz batzuen inguruan landu behar dugu; birformulatu egin behar ditugu ardatz horiek, umiltasunez, errespetuz eta herrialdeak gaur egungo globalizazioan zer-nolako gizarte-, ekonomia- eta politika-dinamikatan murgildurik dauden eza-gutuz. Eta horrek izan behar du abiapuntua aurrerantzean egingo diren elkargarapeneko proposamen gehienek ikuskera eta planteamendu etnozentrikoak helarazten jarrai ez dezaten. Noski, ahaztu gabe garapena eta lankidetzaren herrialde pobreetan burutu behar direla, agindu moral eta giza konpromiso moduan, alde batera utzita migrazio-rik, migrazio-hitzarmenik edo etorkinak itzultzeko prozesurik dagoen ala ez; garapen eta lankidetzaren hori ezin dira baldintzatu gure interesen eta gure barne politiken arabera.

Hala, behin eta berriro aztertzen dugu immigranteek garapenean duten eragin izugarria eta herrialde igorleetan bizi den egoeraren hobetzea; baina ahaztu egiten dugu diaspora horiek —normalean dramatikoak izan ohi dira— herrialde osoak hondoratu izanaren adierazle direla eta herrialde horiei etorkizuna kentzen zaiela, altxorrik handienetako bat galtzen duten heinean: pertsonak. Eta alde horretatik, migrazio-politikak zinismoaren maila gorenera iristen dira garbi-garbi onartzen dutelarik lehentasunen artean prestakuntza handiko profesionalak bereganatzea dagoela. Herrialde pobreen baliabide urrien jabetze modernoa adieraziko luke horrek; horrenbestez, hiru bider jabetzen gara haien baliabideetatik: lehenik eta behin, giza baliabideak kentzen dizkiegu eta belaunaldi-aldaketa izatea galarazten diegu; bigarrenik, geureganatutako pertsona horiek kostu bat izan dute demografia eta gizarte aldetik jatorriko herrialdeentzat; eta, hirugarrenik, herrialde horien aurrekontu urriei esker prestatutako profesionalen baliabideak galarazten dira. Eta hori guztia gutxi izango balitz bezala, galarazi egiten dugu profesional horiek gizarte horientzat lan egin ahal izatea eta, orobat, gizarte horiek ez dute baliabiderik izango horien ordezkotzat pertsonak kontratatuzko. Gainera, gutxi eta balioetsuak izan ohi dira halako profesionalak, estatu horien garapena eusteko eta bermatzeko funtsezkoak diren alorretan. Beraz, ulertzekoa da zer-nolako kontua izan behar dugun migrazioei eta garapenari buruzko diskurtso berrietara hurbiltzeko. Migrazio eta garapenari buruzko eztabaidaren baitan indarrean diren diskurtsoetan harreman positiboa finkatzen da bi fenomenoaren artean, eta horixe bera antzematen da elkargarapenarekin ere. Hala, besteak beste, etorkinak duen eginkizuna

nabarmetzen da: era guztietako prozesu, harreman, truke eta eraginen bidez jatorriko herrialdeen garapena laguntzen duten subjektu aktibotzat jotzen da etorkina. Prozesu, harreman eta truke horiek guztiek iraun egiten dute denboran. Horrenbestez, positibotzat jotzen da eginkizun hori, beti ere etorkina instrumentalizatzen ez den heinean, eta jatorriko herrialdearen garapen-arazoak konpondu beharko lituzkeen pertsonatzat hartzen ez den neurrian, hartara gobernuen, estatuen eta nazioarteko erakundeen erantzukizunak saihesten ariko ginateke eta.

Har ditzagun gogoan migrazioek herrialde igorleentzat dituzten ondorio kaltegarrietako batzuk; buru argien ihesa, adibidez. Mendebaldeko herrialdeen migrazio-politikek gero eta pizgarri gehiago eskaintzen dute ihes hori bideratzeko: herrialde ia guztiek oztopo eta muga guztiak kendu dituzte herrialde pobreetatik etorritako profesional kualifikatuak sartzeko. Fenomeno hori bereziki larria da diru-sarrera txikiak diren herrialdeetan; oso herrialde ahulak dira, eta batzuk muturreko pobrezia egoeran daude. Migrazio horien beste ondorio maltzurretako bat da pairatzen dituzten herrialdeak gero eta urrunago daudela giza eta gizarte-garapenerako baldintza oinarrikoak lortzeko aukera txikienetik; areago, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko bide horretan aurrerapauso txikiena emateko aukerarik gabe geratzen ari direla. Nazioarteko komunitateak 2000. urteko irailean hitzartutako aurrerapauso funtsezkoak jasotzen dira Milurtekoko Garapen Helburu horietan, eta gaur egun betetzeko ezinezkoak begitantzen dira.

Elkargarapena Spainian

Elkargarapenari buruz Spainian jasotako lehen aipamenak abenduaren 22ko 2/2000 Lege Organikoan biltzen dira. Lege horrek erreformatu zuen urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzeritarrek Spainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta haien gizarteratzeari buruzkoa. Aipamen hutsa baino ez da, ordea. Gerora garatu zen politika hori lehenbizikoz, GRECO Programaren eskutik (Spainian Atzeritarrak eta Immigrazioa Arautzeko eta Koordinatzeko Programa Globala). Partidu Popularraren Gobernuak onartu zuen programa hori 2001-2004 legealdirako. Nolanahi ere, asmoen adierazpen hutsa baino ez zen izan dokumentu hura, ez baitzuen bitartekorik eta baliabiderik batere izan. GRECO Programa ez zen inoiz aplikatu; areago, ez zuen inolako aurrekonturik izan. PSOEek Gobernura iritsi zenean, 2004an hain zuzen, bertan behera utzi zuen programa eta geroztik ez da antzeko beste ekintza-programarik egin. Egia da, hala ere, Nazioarteko Lankidetzako Estatu Idazkaritzak elkargarapenaren inguruko zenbait lan-dinamika jarri dituela martxan; kasu askotan berritzaileak eta irismen handikoak dira dinamika horiek.

2004. urtean Parlamentura iritsi ziren elkargarapenerako politikak: gai horrekin loturiko lehen ekimena aurkeztu zen Parlamentuan lege-proposamen baten bidez. 122/000018 zenbakia zuen Diputatuen Kongresuan aurkeztutako lege-proposamenak eta izenburu generiko hauxe: «Garapenerako nazioarteko lankidetzaren eta immigrazio-politikaren lotura» (Diputatuen Kongresua, 2004). Arrazoiaren azalpen luzean, apustu egiten da «lankidetzarako beste tresna bat sortzearen alde, elkargarapenaren alde». Beraz, elkargarapentzat hartzen da «etorkinen parte-hartze aktiboa jatorriko herrialdearen garapenean, eta oinarri hauek hartzen dira abiapuntu: beren esperientzia pertsonal eta profesionala, beren aurrezkiak lana sortuko duten jardueretara bideratzea, demokraziarekiko eta giza eskubideekiko konpromisoa».



Hori guztia 2005-2008ko Espainiako Lankidetzaren Gida Planean (Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa, 2005) mamitu zen. Plan horrek erabateko bira ekarri zuen, jarduera horiek Espainiako lankidetzak globalen baitan hartu baitzituen aintzat, modu zabalean hartu ere. Aurreko dokumentuak, 2001-2004 laurterako egindakoak, ez zuen halakorik jasotzen. Horrenbestez, gai horri buruzko aparteko kapitulu bat sartu zen.

Espainiako lankidetzak beste jira bat hartu zuen 2004. urteaz geroztik, martxoko hauteskundearen ondoren gobernu-aldaketa etorri zenetik, hain zuzen. 2005-2008ko Espainiako Lankidetzaren Gida Plana izan zen, dudarik gabe, gobernu horrentzat mugarririk nabarmenena. Hainbat faktore elkartu ziren aldaketa hori gertatzeko: politikari sozialisten sentiberatasuna eta interesa batetik, baina, horrez gain, beste zenbait baldintza zehatz ere elkartu ziren; besteak beste, garapenerako lankidetzak politikak Espainian lorturiko heldutasuna, immigrazio indartsua (gure gizartea errotik aldatu baitu eta gure bizikidetzan ezinbesteko elementua bihurtu baita), eta, orobat, erkidegoetako eta tokiko eremuetan gorantz datorren lankidetzak deszentralizatu oso bizia.

Aldi berean, lantalde espezifiko bat sortu zuen Garapenerako Lankidetzak Kontseiluak. *Elkargarapenari buruzko adostasun dokumentua* (Elkargarapenari buruzko lantaldea, 2005) lantzearekin batera ekin zion lantalde horrek bideari eta 2005eko abenduan eman zituen jakitera lehenbiziko ondorioak. Gerora, 2007ko abenduan berrikusi zituen ondorio horiek. Txosten hori lan eredugarria da, bai mamian eta bai azalean; Espainian elkargarapenera hurbildu nahi duten guztientzat ezinbesteko erreferentzia. Parte-hartezko prozesu baten gida modukoa da; tartean diren eragile guztien adostasuna bilatzen du eta nazioz gaindikoa eremuan jokatzeko gomendioak jasotzen ditu.

Espainiako lankidetzaren antolaketa- eta analisi-dokumentuen artean, *Nazioarteko Lankidetzako Urteko Planaren (PACI) 2005eko Segimenduak* (Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa, 2006) Espainiako administrazio publikoek finantzaturako elkargarapeneko esku-hartzearen analisi zehatza jaso zuen. Analisi hori, beraz, esku-hartze horien jendaurreko aurkezpena izan zen Espainiak nazioarteko lankidetzan bultzaturako politikaren baitan. 2005-2008ko Espainiako Lankidetzaren Gida Planean eta *Elkargarapenari buruzko adostasun dokumentuan* onartutako konpromisoak gauzatu ziren horrela. Dokumentu hori lantzen ari da oraindik elkargarapenari buruzko lan-marko bat zehazteko. Etorkinak Gizarteratzeko Foroak ere, 2006an sortuz geroztik, arreta berezia eskaintzen dio urteroko txostenetan elkargarapena Espainian izaten ari den bilakaerari.

Azkenik, 2006ko abenduaren 19an, Diputatuen Kongresuak ez-legezko proposamen bat eztabaidatu zuen etorkinen taldeei buruzkoa. Kongresuko Talde Sozialistak aurkeztu zuen proposamena eta, eztabaida luzearen ondoren, gehiengo osoz onartu zen. Dena dela, *Convergència i Unió*, *Izquierda Unida* eta *PP* alderdiek aurkeztutako emendakinak ere onartu ziren. Talde horiek munduko ekonomian hartu duten garrantzia jasotzen du onartutako proposamenak, eta, orobat, gehitzen du garapenerako lehen mailako faktore garrantzitsua direla.

► Elkargarapena lankidetzak deszentralizatuan

Autonomia-erkidego eta udal batzuek lasterketa deigarriari ekin diote lankidetzak deszentralizatuko politiketara elkargarapeneko ekintzak gehitzeko. Alabaina, ekintza horiek ez dituzte elkargarapenekoak izateko behar diren oinarriko ezaugarriak. Atera kontuak:

autonomia-erkidegoren batek sorrerako estatutuak aldatzeko eskatu die etorkinen elkar-teei elkargarapenaren arloko funtsak jaso ahal izateko, arlo horretako ekintzen izaera eta zorroztasuna zein den inporta gabe. Beste kasu batzuetan, garapeneko gobernuz kanpoko erakundeek (GGKE) eta immigranteen elkar-teei eskaintzen dituzte beren zerbitzuak; hala, tresneria berritu eta erabilitakoa hobeto saldu dezakete gaur egun bizi dugun egoeran; immigrazioa, txarrerako eta onerako, modako kontzeptu bihurtu den garaiotan. Autonomia-erkidego eta udaletxe nagusi ia gehienek diote elkargarapeneko ekimenak gauzatzen dituztela, nahiz eta ezaugarri, intentsitate, jokabide, baliabide eta helburu kontrajarriekin izan.

► Elkargarapena Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Eusko Legebiltzarrak hitzarmen bat onartu zuen 2000. urteko urrian; akordio horren bidez, gaiari buruz Erkidegoko Plan bat lantzeko eskatu zion Legebiltzarrak Jaurilaritzari. Hala, 2002an Immigrazioari buruzko Euskal Plana onartu zen 2003-2005 aldirako. Plan hori berritzailea da, bai izaera globalagatik eta bai metodologia eta hainbat euskal erakunderen inplikazioagatik. Hain zuzen, askoz goragoko mailan kokatzen da Espainiako Administrazioak arlo horretan egindakoaren aldean. Aurrez aipatutako GRECO Programa baino, esaterako. *Immigrazioari buruzko 2003-2005eko Euskal Planak* aparteko atal bat eskaintzen dio elkargarapenari: «Lagundutako garapeneko arloak norabideak biltzen ditu euskal erakundeek kanpoko ekintza kooperatiboari begira. Kanpoko esku-hartze horrek zuzeneko lankidetzak biltzen du, gizarte-erakundeek partaidetza eta EAEn finkaturiko etorkin-taldeek beraien zuzeneko parte-hartzearen bidezko lagundutako garapena tarteko» (Eusko Jaurilaritza, 2003: 88). Horretarako, honako ekintza hauek aurreikusten dira (Eusko Jaurilaritza, 2003: 93-94):

- ▶ Eusko Jaurilaritzaren nazioarteko harremanak garapenerako laguntza-prozesuak eta EAEn etorkinen harrera-prozesuak errazteko estrategia gisa garatzea.
- ▶ Garapenerako laguntza-ekimenak deszentralizatzeko formulak garatzea eta tokimailako administrazio, erakunde eta mugimenduen zeregina indartzea.
- ▶ Atzeritarrek beren jatorrizko herrialdeetan garapen-proiektuetan zuzenean parte har dezaten sustatzea.
- ▶ Etorkinek beren jatorrizko herrialdeetara transferentzia ekonomikoak egin eta beren kapitalak jatorrizko zonen garapenari lotutako produktuak inbertitu ahal izateko finantza-prozedurak sustatzea.

Aldi berean, plan horretan aipatzen da elkargarapenaren arloan pertsona eta elkar-teen gaikuntza teknikoa, batez ere etorkinen elkar-teei zuzenduriko prestakuntza, eta horrekin batera, aipatzen dira, etorkinen gizarteratzearen ikuspuntutik, «Euskal gizartean eragina duten lagundutako garapeneko ekintzak» ere. Horrenbestez, baliabidea identifikatzeko borondatea badago, baina baita tresna definitzeko nolabaiteko anbigutasuna ere; elkargarapenaren inguruan dagoen nahasmen orokorrarekin loturik dago anbigutasun hori.

2007-2009ko Immigrazioari buruzko II. Euskal Planak (Eusko Jaurilaritza, 2007) ere aparteko atal bat eskaintzen dio elkargarapenari. Dena dela, aurreko planean proposatutako neurri batzuk betetik —euskal finantzazio publikoarekin etorkinek parte hartzen duten lan-



kidetza-proiektuetarako haztapan berezi bat esleitzea, esaterako— gaur egungo planak ez du elkargarapenaren eremuan sakontzeko biderik hartzen. Aurreko planetik etorritako helburuak eta jarraibideak mantendu egiten dira. Hala, elkargarapenaren arloan ez da neurri berritailerik jasotzen; beste esku-hartze eremu batzuetan, ordea, bai. Beste arlo horiek bihurtu dira lehentasunezko immigrazioari loturiko euskal politikan; etorkinak gizartean eta lan munduan integratzea, esaterako.

Eusko Jaurlaritzaren *2005-2008ko Garapenerako Lankidetzaren Gida Planak* (2005) ere jasotzen zituen elkargarapenari buruzko aipamen batzuk: «[...] beharrezkoa da, migrazio fenomenoak duen indarra aintzat hartuta, elkargarapenak duen garrantzia aitortzea. Gure herrialdean bizitzea erabaki duten pertsonen jatorriko komunitateak garatzeko erantzunkidetasuna beren gain hartzea espazio ezin hobea da kulturartekotasunerako eta elkarren aldeekiko errespetuan aurrera egiteko; eta, horrez gain, tresna indartsua da lankidetzarako». Lehen gida-plana izan zen 2005-2008ko hori. Lan-ildoen baitan, berriz, aipatzen zen «deialdietan lankidetzarako eragileek garapenerako, elkarriketarako eta elkargarapeneko ekintzetan parte hartzea balioestea». Elkargarapenari buruzko aipamen hori are urriagoa da *2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoan*. Plan horrek ez du jasotzen elkargarapenari buruzko erreferentzia bakar bat ere gidalerro estrategikoetan. Sarreran baino ez du aipatzen, lankidetzak nazioarteko gaur egungo agendan duen eginkizunari buruzko adierazpenean: «[...] migrazioei herritartasun unibertsalaren ikuspegitik begiratu behar zaie (munduko biztanle izate hutsagatik guztion eskubideak defendatzen baititu), lagundutako garapenaren aldeko eta pobrezia kontrako politikak aplikatuta» (Eusko Jaurlaritza, 2008: 21).

Begien bistakoa da aipamen eskasa dela ekintza horiek EAEn zer potentzialtasun duten ikusita. Egoera okertzeko, Garapenerako Euskal Lankidetzaren Lege berriak ez du tresna horren aipamen bakar bat ere egiten. Euskal lankidetzaren elkargarapena modu eraginkorrean ezartzeko bidean beste aukera galdu bat da, horrenbestez, lege hori.

Aipatzekoak dira, halaber, Bilboko Udalaren 2006-2009ko Garapenerako Lankidetzaren Gida-planak eta Barakaldoko Udalaren 2004-2006ko Immigrazioari buruzko Planak zuhurtasunez jasotzen dutela elkargarapena. Tresna horrek zer ahalmen izan dezakeen zehazteko zailtasuna adierazten du zuhurtasun horrek.

Nork esku har dezakete elkargarapenean?

Beharrezkoa da etorkinen biztanleriak bete-betean esku hartzea, bai eta Hegoaldeko herrialdeetan migrazio-prozesu handiak gertatzen diren eskualdeetan bizi direnek ere. Begi-bistakoa da hori baina, hala ere, sustatu diren hainbat ekimen edo lantzen ari diren hainbat jardura ez datoz bat oinarri horrekin; izan ere, etorkinak proposamenaren argazkia janzteko gehigarri hutsak baino ez dira, egitasmoak elkargarapenaren eremuan sartu ahal izateko apaingarri soilak. Horrek, ordea, elkargarapenaren ahalmena erabat galtzeko arriskua dakar, bai beren herrialdeetara itzultzeko proposamenen bidez, bai beste herrikide batzuek haiek hartutako bidea har dezaten galaraziz. Azken urteotan, etorkinaren beste irudi bat ari da sortzen, garapenean lagun dezakeen nazioz gairikiko subjektuarena. Etorkinaren irudi hori loturik dago elkargarapenaren ideiarekin, hain zuzen. Hala, subjektu aktibotzat hartzen da etorkina, eta ez migrazio- eta garapen-politiken subjektu pasibo soiltzat.

Etorkinen parte-hartze aktibo hori bideratzeko hainbat modu daude; ohikoena, nahiz eta ez bakarria izan, etorkinen asoziazio-mugimenduari loturikoa da. Gizartean presentzia eta leku handiagoa duten heinean, ondorio logikoa da elkartzeko hori, eta faktore erabakigarria da etorkinen dimentsio publikoa sustatzeko, parte-hartze aktiboa eta gero eta handiagoa areagotzeko eta hiritar gisa duten konpromisoa bideratzeko. Elkartzeko horren bidez, beraz, beren behar nagusiei erantzun hobea emateko aukera dute. Alabaina, etorkinen elkarteekin lotutako guztiari ezaugarri ez oso zehatzak ematen zaizkio; beren benetako egoeratik urrun dauden balioak eta aukerak ematen zaizkie asoziazio horiei; izan ere, etorkinen elkarteek ahalmen eta muga oso zehatzak dituzte, eta aintzat hartu behar dira itzaropen okerririk ez sortzeko. Hori dela eta, funtsezkoa da etorkinen biztanlerian sortu diren antolakuntzak eta haien ezaugarriak ezagutzeko, bai eta elkartzeko-dinamika bakoitzaren arazoak eta bereizgarriak ere. Horren guztiaren helburua da aztertzea etorkizunean zer aukera izango duen komunitate horrek parte-hartzeko eta hiritartzeko, bai eta elkargarapeneko ekintzetan jarduteko benetan zer aukera izango duten ikustea ere.

Egia da, etorkinen asoziazio-mugimendu guztiak ez dira berdinak; aitzitik, mota, jatorri, nazionalitate eta helburuen arabera, hainbat aukera sortzen dira elkargarapena eta gisa bereko gaietara lotzeko. Immigrazioarekin loturiko elkartearen artean hiru mota nagusi hauek daude: Europako Batasuneko etorkinen elkarteak, etorkinen aldeko elkarteak eta Batasunetik kanpoko etorkinen elkarteak. Azken horiek dira batez ere interesatzen zaizkigunak, elkargarapenean engaiatzeko ahalmen handia dutelako. Ikus ditzagun labur-labur hiru elkarte-mota horien ezaugarri nagusiak.

Europako Batasuneko atzerritarren elkarteak gizarte-interakziorako aparteko eremu bat eratu dute. Eremu horrek kohesioa eta identitatea berresteko osagaiak ematen dizkie, era horretara beren bizitza-kalitatea hobetzeko, eta pertsona moduan garatzeko, bai berek eta bai ingurukoak. Hori guztia, beren herrialdeetan duela hainbat hamarkadatik dauden asoziazio-ekimen indartsuekin bat etorritik. Batasuneko elkarte horietatik bakar batek ere ez du aldarrikatzen atzerritar diren aldetik dauzkaten gabeziak edo bazterketak gainditzea; izan ere, hiritar europar direnez, gainerako hiritar espainiarren pareko egoera juridikoa dute. Ondorioz, elkarte horiek ez dute hainbesteko garrantzirik elkargarapeneko politiken ikuspegitik, non eta beste etorkin-komunitate batzuen ekimenak babesteko ez den.

Etorkinen aldeko edo babeserako elkartearen panorama korapilatsua da, bai jatorrian eta bilakaeran eta bai gaur egungo egituraketan. Zati-tuta daudelako eta sektore-arteko eta irizpide aldetiko koordinazio eskasa dutelako bereizten dira. Hamarkada askotan, koordinazio hori izan da funtsezko oinarria etorkinen populazioari laguntza eta baliabide oinarritzkoak eskaintzeko, utzikeria egon baita administrazio askoren aldetik. Horrenbestez, elkarte horietako askok oinarri-oinarritzko arazoak konpontzen lagundu behar izan diete etorkinei eta, ondorioz, bigarren maila batean utzi behar izan dituzte beste aldarrikapen batzuk. Hala, laguntza emateko elkarte bilakatu dira, eredu horretarantz jo dute eta eredu horretan ari dira sendotzen elkarte horietako batzuk. Elkarte horiek batez ere immigranteekin berekin batera lagundu eta bideratu beharko lituzkete ekimenak, eta ez lukete hartu behar ez dagokien protagonismorik.

Batasunetik kanpoko etorkinen elkarteak orain dela gutxi sortuak dira eta oso ahulak dira oraindik. Helburuak eta antolatze-ereduak era askotakoak dira, eta elkarte horien bitartekoak eta baliabideak oso oinarritzkoak. Elkarte horiek gizarte-oinarri oso-oso ahula dute eta kasu batzuetan ez dira iristen ustez ordezkatzeko dituzten nazionalitate eta taldeak ordezkatzera ere; izan ere, elkarte horien artean familia-asoziazio eta talde nuklear oso mugatuak daude. Bestalde, erlijiositateak gora egin du azkenaldian eratutako elkar-



te askotan eta horrek eragin du maila espiritualak hartzea nazionalitatearen osagaiak zuen lekua. Lidergo-fenomenoei estu-estu loturik dago erakunde horien arrakasta, baita arduradunen konpromiso pertsonalari ere; ezinbestekoa da arduradunen erantzukizun hori erakundeek behar bezala funtziona dezaten eta elkartekideentzat oinarritzko ondasun eta baliabideak lortzeki harago beste itzal bat lor dezaten. Banku eta erakunde publiko batzuentzat helburu erakargarri bihurtu dira elkarte horiek, kasu batzuetan banku-jarduerak zabaltzeko eta elkarte horien baliabide handiak bereganatzeko eta, beste batzuetan, jardunbideak legitimatzeko eta beren politiketarako solaskideak aurkitzeko. Horren ondorioz, oso inportantea da ikustea nola gauzatzen diren elkarten eta erakunde publiko eta pribatu horien arteko harremanak, elkarten helburuei eta aldarrikapenei uko egin gabe. Elkarte horiek dira garrantzitsuenak elkargarapenaren arloko esku-hartzeak antolatzeko eta gauzatzeko.

Nolanahi dela ere, etorkinen elkarten ezaugarriak eta ereduak asko aldatzen dira probintzia eta erkidego batetik bestera; hala, antolatzeko prozesuen, helburuen eta ordezkartzaren aldetik hainbat eredu sortzen hasi dira. Hori dela eta, hain zuzen, etorkinak gizarteratzeko, etorkinek gizaratearen osotasunean parte hartzeko aurrerapausorik eman go bada, ez da aski asoziazio-mugimendu baztertzaila bat sortzea; alegia, etorkin diren aldetik izan dezaketen bizi-esperientzian oinarritutako mugimendurik, pertsona horiek beren bereizgarrian edo jatorritzko herrialdean itxita. Izan ere, behin-behinekoa da migrazioaren bizipen hori, eta ez da egunero eraikitzen den gizarte-esperientziaren gainetik kokatzen. Aitzitik, etorkinek aurrerapausoak eman beharko dituzte jada existitzen diren gizarteko, kulturako, lankidetzako, garapeneko beste elkarteetara eskubide osoz biltzeko; hiritar, auzokide, sindikatu, politika eta bestelako elkarteetara biltzeko. Etorkinen populazioak dituen erroka nagusienetako bat da hiritar-konpromiso handiagoa onartzea beren interesen alde borroka egiteko, bai eta gainerako hiritar-esparruetan parte-hartze handiagoa izateko ere. Orain arte etorkinen laguntzarako erakundeak aritu dira zeregin horretan, baina aurrerantzean pixkanaka-pixkanaka etorkinek berek hartu behar dute berengain ardura hori.

Elkargarapenaren eremuan ere, etorkinen elkarteek aliantza estrategiko indartsuak egin behar dituzte nazioarteko lankidetzan espezializatutako erakundeekin, bereziki Hegoaldeko herrialdeetan duela hamarkada askotatik hona ekimen garrantzitsuak egin dituzten elkartasunezko GKEkin. Hori guztia bereziki premiazkoa da migrazio eta garapenarekin loturiko proposamenen kasuan; izan ere, etorkinen elkarteek irrika bizia dute beren jatorriko herrialdeen egoera hobetzeko, baina askotan ez dute behar besteko ezagutza teknikorik ekimen horiek abiatzeko, erakundeen aurrean formalizatzen eta aldi behin iragaritzen diren deialdietara aurkezteko. Hala, bitartekari ezin egokiagoak bihurtzen dira jatorriko komunitateekin kontaktua eta komunikazioa sortzeko: garapen bidean diren herrialde askoren bizi-baldintzak eta beharrak ezagutzen dituzte, baina ez dute lotu —salbuespen bakan batzuetan izan ezik— garapeneko gobernu kanpoko erakunde ohikoekin batera lan egiteko aliantza iraunkorrak sortzerik. Erakunde horiei urruntasunez begiratzen diete; areago, batzuetan baita errezeloz ere. Erakunde batzuen eta besteen arteko aliantza horiek bideratzea komenigarria eta beharrezkoa da, esandakoaren argitan.

Elkarte formalik osatu ez arren, pertsonen eskutik ere gauza daitezke elkargarapeneko ekimenak, baldin eta helburu horrekin bat egitea erabakitzen badute. Beren kabuz eta deialdi ofizialetatik kanpo lortutako baliabideekin babestutako ekimen pribatuak izaten dira. Nolanahi ere, ez dira horregatik gutxietsi behar, nahiz eta muga eta zailtasun gehiago izan elkarteetatik sortu eta erakunde publiko eta pribatuek babestutako ekimenei baino.

Alde horretatik, zenbait **ekimen pribatu elkargarapeneko ekintzak sustatzen hasi dira enpresa-ekimenei loturik**. Ekimen pribatu horiek interes handiko dinamika eta jardue-ra ekonomiko eta sozialak sortzen dituzte, berez sortu ere. Ez dago arrazoirik ekimen autonomo horiek gutxiesteko. Erakundeetatik kanpoko hainbat gunetan egituratzen hasi dira egitasmo horiek, eta elkargarapentzat har daitezke, bultzatutako jardueren ezaugarriak aintzat hartuta; batzuetan, gainera, zenbait erakunde publikotatik baliabide ekonomiko puztuen eskakizunarekin bultzatutako ekimenak baino zorrotzagoak dira. Horrekin erakusten da beste behin ez direla ahaztu behar gizartetik bertatik berez eta baliabide propioekin sortutako gizarte- eta ekonomia-jarduerak; izan ere, lanerako oso erabilgarriak izan daitezkeen bideak identifika daitezke jarduera horien bidez, potentzialki erakargarritzat jo diren eremuetara zuzendutako bideak. Horrez gain, badute beste balio erantsi bat: finantziario pribatua daukate, baita enpresa-sektore berritzaileen bultzada ere. Sektorre horiek, ekimenei errentagarritasun ekonomikoa bilatzeko ahalegi-nean, gai dira beren kapitala arriskatzeko eta eremu horretan esperientzia aitzindariak babesteko.

Etorकिनен esku-hartzea pizten ari diren elkargarapeneko ekimen pribatuen artean *zeharkako bidalketak* aipa daitezke. Etorकिनен baliabide ekonomikoak dira, ondasun, produktu eta inbertsioak ordaintzeko erabiliak, gero jatorriko herrialdeetan beren familiek eta gertukoek gozatzeko, nahiz eta Espainian ordainduak izan. Elkargarapenaren eremuan ekimen pribatutik sortutako beste proposamen batzuk hauek dira: jatorriko herrialdeetan etxebizitzak erostea, kontsumorako ondasunak finantzatzea eta erostea jatorriko herrialdeetan gozatuak izateko, jatorriko herrialdeetan hilobiak erostea, produktu etnikoak inportatzeko enpresak eta nostalgian merkaturak, bai eta produkzio-proiektuetarako finantziarioa bilatzea ere.

Egia da, zuhur jokatu behar da ekimen pribatu horiekin, ikusi egin behar da zer bilakaera izango duten eta egiaz immigranteen eta beren jatorriko komunitateen artean garapena eta gizarte-eraldaketa sortzeko apustu egingo duten, edo, aitzitik, etekin berehalakoak eta maltzurak baino ez dituzten bilatzen, aintzat hartuta badirela kezkatzeko moduko aurrekari batzuk.

Nolanahi ere, malguagoak izaten saiatu behar dugu gure hirietako enpresa-, merkataritza- eta ekonomia-guneetatik sortzen diren proposamenekin. Egitasmo horiek, nahiz eta teoria aldetik oso landuta ez egon, beren ahalegina egiten ari dira elkargarapen hasiberriaren alde, enpresa pribatuen, merkataritzako erakundeen, gizarte-erakundeen, etorkin-taldeen eta GKE-en artean aliantzak bilatuz.

Zergatik da beharrezkoa genero-ikuspegia elkargarapenean?

Azken urteetan, jabetzen hasi gara zein beharrezkoa den emakumeak garapenaren alde egindako ekarpen izugarria onartzea, bai eta gizon eta emakumeen artean oraindik ere hor dirauten desberdintasun historiko handiak ezabatzea ere. Hori da mundu zuzenago bate-rantz aurrerapausoak emateko bidea. Horrela, argiune batzuekin eta itzal dezenterekin, genero-ikuspegia indar hartzen joan da garapenerako lankidetzeta-politiketan. Horrenbestez,



gero eta garrantzitsuagoa bihurtu da oinarri hau: emakumeek eginkizun funtsezkoa bete behar dute garapenaren arloan eta pobreziaren kontrako borrokan gauzatutako diseinu estrategikoetan.

Elkargarapeneko politikak hazkunde nabarmena izaten ari dira Espainian, baina, hala ere, politika horietan bazterrean uzten ari da beste behin emakumea, eta elkargarapenaren eremuan ez da gogoeta, proposamen edo proiektu aipatzekorik egin genero ikuspegitik. Oso deigarria da. Emakumeek munduko migrazioetan izan duten leku nabarmena alde batera uzten da, bai eta garapena eta ongizatea hobetzeko egin duten funtsezko ekarria ere. Ezinbestekoa da, beraz, emakumeari berez duen lekua emateko aldarrikapena egitea, baita Espainian eraikitzen hasi diren elkargarapeneko politiketan ere; ezin dira bazterrean utzi.

► Migrazio-prozesuen feminizazioa

Emakumeak gero eta presentzia gehiago du nazioarteko migrazioetan; presentzia hori gero eta nabarmenago ari da bihurtzen eta garrantzia hartzen migrazio-prozesu garaikideetan, ez soilik ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibo aldetik, baita emakumeak sortzen dituen aldagai berriengatik ere: familian eta ama moduan duen eginkizunagatik, lan munduan duen presentziagatik, pertsona gisa duen autonomiagatik, pairatzen dituen gehiegikeria eta esplotazio egoera zehatzengatik, eta bere sexu osagaiarengatik. Alabaina, lan-eginkizunen garrantzia kualitatiboa, gizartean duen eragina eta horrek guztiak dakarren demografia-inpaktu pilatua baino askoz garrantzitsuagoa da emakumeek gorpuzten dituzten zeregin eta harremanen kalitatea; izan ere, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan gizon emigranteen laguntzaile huts ziren, emakume, emazte eta ama; baina 1980ko hamarkadatik aurrera, eta are gehiago azken urteotan, emakumeak bakarrik migratzen hasi dira. Mendebaldeko ekonomiek gero eta gehiago eskatzen dituzte emakume etorkinak lanerako, zerbitzuen sektorean bereziki, baina baita lan kualifikatuetan ere. Horrek aldaketa handiak sortzea ekarri du lan-merkatuan, ekonomietan eta harrerako herrialdeetako gizarte-harremanetan. Gero eta emakume etorkin gehiagok etxeko zereginetan egiten du lan, atzerriko beste pertsona batzuk zaintzen dituzte edo haiei laguntzen diete eta, aldi berean, beren seme-alabak, gurasoak eta senideak dituzte zaintzeko, nahiz eta urruneko herrialdeetan bizi. Hala, ohikoa da emakume etorkinek ardua hori familiako beste emakume batzuei ematea; edo, atzerrian diru-sarrera handiagoak dituztela eta, diru-sarrera txikiagoak dituzten etxeko langileak kontratatzea beren etxeak zaintzeko. Horren bidez, «zaintzen munduko katea» deritzona sortzen lagundu dute emakume etorkinek. Kate horren bidez, etxeko langile asko bi etxez arduratzen dira: lana eman dietenen etxeaz eta norberarenez, distantziatik. Eta soldatarik gabeko denboraren %70 ematen dute familiako beste kide batzuk zaintzen; hortaz, munduko ekonomiari berebiziko ekarpena egiten diote; hein handi batean aitortzarik jasotzen ez duen ekarpena, UNFPAK (Nazio Batuen Populazio Funtza) 2006an emandako datuen arabera.

Migrazioak hazi diren neurrian, emakumeek protagonismo handiagoa hartu dute, beren kabuz mugitu direlako leku batetik bestera migrazio-proiektuak abiatzeko. Proiektu horiek lana dute ardatz nagusi. Migrazio horiek, ordea, gero eta poliedrikoagoak dira, bai ibilbideen eta bai ondorioen aldetik. Horrek uzten du agerian emakumeek zer-nolako aberastasuna duten eta, aldi berean, zer-nolako ahultasuna. Migrazio-korrante oso inportanteen protagonista bihurtu dira emakumeak; korrante horien baitan beren migrazio-proiektuei ekin eta jarraitzen diete, batzuetan bakarrik, bestetan jatorriko herrialdeetan geratu den

familiarekin lokarri estuei eutsiz —aldian behin dirua bidaltzen diete haien mantenturako— eta gero eta gehiago beren senar eta seme-alabekin, edo gerora beren ingurura biltzen dituztela. Migrazio-prozesuen eragile zuzen bihurtu dira, beren herrialdeak utzi, lan-merkatuan bete-betean sartu eta bizitza berri bati ekiteko. Eta hori ez da kasualitatea; izan ere, emakumeak dira beren herrialdeak astintzen dituen pobrezia-urakana norberaren larruan bizi eta pairatzen dutenak. Urakan horrek eragile ugari ditu: hondamendi naturalak, ekonomia- eta finantza-eskasiak, pobretze masiboko prozesuak, krisi politikoak, gerrak, aukera faltak... Arrazoi horiek guztiek kalte gehiago egiten diete emakumeei. Horren ondorioz, emigrazioan ikusten dute egoera dramatiko eta etsigarriehi ihes egiteko bidea. Egoera horrek, gainera, familia osoei eragiten die normalean. Herrialde igorleen egiturazko baldintzek, gizarte- eta ekonomia-baldintzek bultzatzen dituzte emakumeak migratzera, baina erabaki hori bada genero-rol tradizionaletatik ihes egiteko modua ere eta, hala, askatasun indibiduala eta gizarte-emantzipazioa lortzeko bidea, batez ere oso-oso patriarkalak diren gizarteen kasuan.

Horrenbestez, emakumeek sostengatzen dituzte beren lanarekin, ahaleginarekin eta zaintzarekin Hegoaldeko herrialdeetako familia-unitate gehienak, funtsezko baliabidez hornitzen dituztelako. Eta, azken urteotan munduko migrazioetan indar handiz sartu direlarik, funtsezko katebegia bihurtu dira beren familia eta hurbilekoentzat jatorriko herrialdeetan, baliabide oso baliotsuak bidaltzen dizkietelako eta esangura handiko lokarriehi eusten dietelako. Eragin horietako batzuk positiboak dira, baina, aldi berean, beste ondorio asko dramatikoak dira, baita emakumeentzat berentzat ere; esaterako, familia utzi beharra distantziatik mantendu ahal izateko, eta horrek sortzen duen ordain psikologiko eta emozional izugarria.

► Generoaren ikuspegia elkargarapenean

Emakumeak bere merituz hartu du migrazio- eta garapen-prozesuetan duen leku nabarrena, eta, hortaz, ezinbestean onartu behar dugu egia hori, desberdintasun- eta bazterketa-patroiak berrituko ez badira; emakume asko beren jatorriko herrialdeak uztera bultzatu dituzten patroiak, hain zuzen. Eta kontua ez da soilik emakumeek presentzia gehiago izatea; hori baino garrantzitsuagoa da: politika horien gainera erabaki-prozesuetan esku hartzeko ahalmena izatea. Bai herrialde hartzaileetako erabaki-prozesuetan, hor diseinatzeko baitira elkargarapeneko estrategia gehienak, eta bai herrialde igorleetako prozesuetan, hor gauzatzen baitira garapeneko ekimenak. Bereziki, **kontua da emakumeek modu erabakigarrian esku hartzea garapeneko ekimenen sorreran, beren ikuspegi, esperientzia eta bizipenekin, oso-oso ezaugarri baliotsuak direlako migrazioak eta garapena binomioaz ari garela.**

Horren adibidea da etorkinek egindako bidalketetan emakumeek duten garrantzia. Bidalketa horiek nola egiten diren, helmuga eta erabilera zein den, familia-sareek eta sare horien osaerak erabakitzen du batez ere; orobat, bidalketa horietako askotan igorritako ondasun oinarritzkoen horniketari eusteko eta bermatzeko ardura duten subjektuen eginkizunak ere erabakitzen du bidalketak egiteko modua, helmuga eta erabilera. Subjektu horiek, askotan, emakumeak izaten dira. Emigranteek beren herrialdeetara bidaltzen duten diruaren zati nagusia hartzaileen premia hauetarako erabiltzen da: pobrezia leuntzeko, funtsezko ondasunak erosteko eta oinarritzko beharrak asetzeko, biziraupena hobetzeko eta familien garapen hobea laguntzeko. Eta alde horretatik, onartu beharrean gaude etxeak gune oso garrantzitsuak direla elkargarapeneko prozesu askotan modu egokian



esku hartzeko, bai eta jatorriko herrialdeen eta migrazio-sareen artean ematen den harreman-sare konplexuan esku hartzeko ere. Horrenbestez, oso inportanteak bihurtzen dira immigrante-familien dinamikak, osaera eta kide bakoitzak duen eginkizuna. Eta, behar bada, hor hobetu behar dugu elkargarapenean genero-ikuspegiari buruz daukagun ulertzeko ahalmena; izan ere, genero-harremanen bitartez zehazten da bidalketek garapenean duten inpaktua.

Gai horiek guztiak abiapuntu bikaina dira emakume etorkinekin elkargarapena eraikitzeko eta, hala, beren jatorriko komunitateak, herriak, herriak, auzoak eta hiriak aberasteko. Leku horietan ere oso bizi daude gai horietako asko; batzuetan, gainera, itxaropenak bete ez eta itzultzea erabakitzen duten emakumeek berritzen dituzte. Horrenbestez, agerikoa da «abiatutako politika, ekintza eta programa guztietan genero-ikuspegia txertatzeko beharra», «migrazioa dela eta, emakume etorkinek, tutoreek eta etxeko buruek zer-nolako egoera bereziei aurre egin behar dieten aintzat hartuta; izan ere, askotan egoera zaurgarriagoei aurre egin beharrean izaten dira emakumeak» (Camacho eta Hernández, 2005: 121). Horrekin, emakumeen behar eta eskubide zehatzen alde lan egin nahi da eta, horretarako, elkargarapeneko ekimenetan ere zuzenean parte hartzea bilatzen da.

Beraz, diseinu estrategiko espezifikoak behar dira emakume etorkinak lan munduan nola sartu aztertzeko eta jatorriko eta helmugako herrialdeen garapenean duten esku-hartze aktiboarekin zer harreman daukaten aztertzeko. Aldi berean, gehitu beharko dira genero-ikuspegia elkargarapeneko egitasmo eta ekimenetan integratzeko ardatzak ere, generoak gizarte, kultura, hezkuntza, harreman, sexu eta politika aldetik zer inpaktu duen hobeki sakontzeko.

► Generoaren dimentsioa diru- eta gizarte-bidalketetan

Orain arte oso ikerketa gutxitan hartu dira kontuan genero-rolak dibisen bidalketekin loturiko prozesuak aztertzerakoan, baina migrazio garaikideetan gertatzen den moduan, emakumeek gero eta garrantzi handiagoa dute bidalketa horietan. Oro har, dibisen bidalketetan generoarekin loturiko faktore batzuk badirela egiazta daiteke eta faktore horiek gai direla bidalketa horien nolakotasuna baldintzatzeko.

Harrerako herrialdeetan

Emakumeak ardua eta denbora gehiago eskaintzen dio familiaren zaintzari eta erantzukizun zuzena du seme-alabengan. Horren ondorioz, jokabide horiek mantendu egiten dira harrerako herrialdeetan; besteak beste, diru-sarrera handiagoak lortzeko emakume etorkinak joan diren lekuetan. Diru-sarrera horien zati bat etorkinen arbaso eta ondorengo zuzenei bidaltzen zaie.

Bestalde, emakume askok bakarrik jo behar izaten du mendebaldeko herrialdeetara sexu eta etnien arabera zatikatutako lanen eskakizun gero eta handiagoa betetzeko (pertsonez bitzuek, pertsonak artatzea, etxeko lanak egitea, etab.), eta, ondorioz, senideen esku utzi behar izaten du seme-alaben zaintza; batzuetan, baita senarraren esku ere, han gertzea erabaki duelako. Horrek eraginda, aldian behingo bidalketa-prozesuak sortzen dira senide horien sostengua laguntzeko. Bidalketa horiek etorkizunean familia berriro elkaritzeko prozesuak baldintzatzera ere iristen dira inoiz.

Etorkinek beren etxeetara egindako diru-bidalketa gehienak ez dira borondate eta elkartasunezko ekimen hutsak; aitzitik, **familien biziraupenerako eta sostengurako estrategien osagai dira, oinarritzko diru-sarrerak bermatzeko, baliabide handiagoak berenganatzeko eta familia-sareko kideekin onartutako konpromisoerantzuteko.**

Jatorriko herrialdeetan

Emakumeek eginkizun funtsezkoa dute familia-sareei bideratutako bidalketak berek jasotzen dituztelako, eta kasu askotan berek dutelako zuzenean zertan erabili erabakitze-ahalmena; izan ere, baliabide horien zati nagusia erabiltzen da oinarritzko beharrak asetzeko eta premia biziko ondasunak erosten laguntzeko.

Etorkinak atera diren herrialdeetan lana sexuen arabera banatuta dago eta emakumeak arduratzen dira etxeko lanetaz eta pertsonak zaintzeaz. Hain zuzen, sexuen araberako lan-banaketa dinamika horrek baldintzatzen ditu bidalketak nola eta zertan erabili erabakitze-ko prozesuak. Sexu-banaketaren arabera, beraz, emakumeek baliatu behar dute jasotako bidalketa horien zati bat familia-egiturari eusteko. Ama, emazte, laguntzaile, arreba, amona edo izeba diren aldetik, emakumeek erabaki behar dute bidalketak nola eta zertan kontsumitu beren kargu dauden senideak zaintzeko eta, ez gutxitan, baita aurreko eta ondorengo zaintza bermatzeko ere.

Bidalketa horiek kontsumorako ahalmena hobetzen dute, eta, halaber, aurrezteko eta inbertitzeko aukerak ere sortzen dituzte. Gainerakoan, aukera horiek hutsaren hurrengo alderateke bidalketak jasotzen dituzten sektoreen artean. Izugarri zaila da inbertsioak egitea herrialde desegituratuetan, baliabideen mendekotasun izugarria dutenetan, ekonomia-, gizarte- eta administrazio-egiturarik gabekoetan, gobernatzeko baldintza gutxienezko gabeko estatuak dituzten herrialdeetan; ukazina da hori. Hala da, elementu horiek guztiek pizgarriak gutxitzea eragiten dute. Alabaina, garapen bidean diren herrialdeetan, produkzio-inbertsio garrantzitsuak gizonek erabakitzen, sustatzen eta zuzentzen dituzte eta, horrenbestez, emakumeak, patriarka erako gizarte-egitura indartsuetan bizi direlarik, inbertsio-prozesu horietatik kanpo geratzen dira kasu gehienetan; izan ere, etxeko lanetara eta tradizioz emakumeenak izan diren sektore garrantzi txikikoetara zokoratuta daude; hala nola, saltoki txikietara, ile-apaindegietara, pertsonak artatzeko eta zaintzeko zerbitzuetara, etab. Inbertitutako bidalketak genero ikuspegitik produkzioan erabiltzeko, beraz, beharrezkoa da esku hartzea gizartearen egitura tradizional asko aldatzeko; izan ere, egitura horiek galarazi egiten diete emakumeei baliabide horiek erabiltzeko eskumen handiagoa izatea. Eta, ikusi dugunez, leku garrantzitsua dute baliabide horietan.

Esandako guztiaren haritik, ondorio hau atera dezakegu: bidalketak nola eta zertan erabiltzen diren ulertzeko, garrantzi handiko osagaitzat hartu behar da generoaren maila. Generoaren maila hori, botere-harreman gisa eta gizarte-harremanen eta familian eta etxeetan ematen diren negoziazioen emaitza gisa ulerturik. Aldi berean, bidalketei buruzko ikuspegi zabalago baterantz jo behar dugu, diruaren gorabehera hutsetik harago, eta gizarte, kultura, ekonomia, politika eta harremanen aldetik aldaketa sakonak egiteko bultzada erantsi behar dugu; bidalketa sozial horietatik eratorritako aldaketak.

Ezin dugu bazterrean utzi bidalketa horiek senitarteko eta hurbilekoen gain duten erantzukizun moralaren zama; izan ere, rola, balioak eta jokamoldeak aldatzeko aktibo garrantzitsuak dira. Askotan zaila da aktibo hori neurtzea, baina gizarte hartzaileak aldatzeko ahalmen handia dauka.



Ezin dugu ahaztu bidalketak ez direla soilik ekonomia- edo diru-transakzioak; izan ere, gizarte- eta kultura-harremanak mamitzen dira horien lorpenean, bidaltzeko borondatean, egiteko moduan, hartzaileen hautaketan eta ematen zaien erabilpenean; eta harreman horien bidez politika- eta harreman-gaitasunak sortzen dira. Horrenbestez, harreman horiek boterea izateko eta erabakitzeko osagaiak ematen dituzte, populazio osoen jokamoldeak aldatzeko ahalmen izugarria dutelako. Hala, bidalketen garrantzia botere ekonomiko ukaezinetik eta kontsumorako gaitasunetik harago doa; bidalketa horiek hartzen eta mugitzen dituzten gizabanakoen eta familien artean bestelako harremanak katalizatzeko tresna ahaltsua ere badira.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko elkargarapenari buruzko ikerketaren ondorioak



Ikerketari buruz²

► Zein izan dira ikerketaren helburuak?

- Garapenerako lankidetzak-ekimenak eta migrazioen arteko loturak identifikatzea, Espainiako eta, bereziki, EAEko egoeratik abiatuta.
- EAEEn, etorkinen elkartean eta etorkinen eta garapenaren aldeko GKE-en artean eta erakunde publiko eta pribatuaren artean elkargarapeneko ekimenak gauzatzeko aukerak eta mugak esploratzea eta zehaztea.
- EAEEn elkargarapenaren eremuan izan diren jardunbide eta esperientzia egoki eta osasungarriak biltzea, elkargarapena gauzatzeko sortzen ari diren arazo eta arrisku batzuk nabarmentze aldera. Esperientzia faltagatik eta oportunitasuen larritasunagatik sortu dira, funtsean, arazo eta arrisku horiek.
- Elkargarapenaren eremuan, EAEko ekonomia-, gizarte- eta demografia-egoerara egokitutako proposamenak mamitzea, aurrez proposamen horien oinarritzko ezaugarriak esploratzeko lana eginda.

► Zein izan dira ikerketaren faseak?

- **Lehen fasea:** elkargarapenaren oinarri teoriko eta kontzeptuala lantzea, migrazioen eta garapeneko prozesuen artean dagoen harreman konplexu eta estua argitzeko, eta elkargarapeneko politika eta ekintzak izendatzeko gutxienezko bat ezartzeko. Oinarri teoriko hori bi argitalpenetan gorpuztu da (Gómez Gil, 2005, 2008). Elkargarapenaren aukerak eta mugak esploratu dira bi argitalpen horietan, modu horretara migrazio- eta garapen-politikak beste ikuspegi batetik bideratzeko, bereziki eremu deszentralizatuan. Gainera, elkargarapeneko jardunbide egokiak jaso dira, bai Estatu-koak eta bai nazioartekoak.
- **Bigarren fasea:** EAEEn elkargarapenaren aukera eta mugei buruzko atariko markoa lantzea. Kontzeptu horri buruz etorkinen elkartean, garapeneko eta etorkinen



2. Ikerketari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta hortik sortutako argitalpen eta txostenei buruz gehiago jakiteko, kontsulta egin Elkargarapena proiektuaren web-orrian: <<http://www.elkargarapena.net>>.



laguntzarako GKE-etan eta administrazio publikoetan dauden diskurtso nagusiak aztertu dira. Aztergaiak hauek izan dira: etorkinen asoziazio-mugimenduaren ezaugarriak, migrazio-esperientzia eta garapenerako lankidetzaren eremua. Halaber, EAEko elkargarapeneko politika aztertu da eta sortzen hasiberriak diren esperientzia praktikoko batzuk jaso dira.

- ▶▶ **Hirugarren fasea:** eskuliburua hau lantzea, elkargarapeneko prozesuari buruz, oro har, eta EAEkoari buruz, zehazki. Helburua da eragile guztiei ezagutaraztea gai honetan ekiteko zer proposamen dauden, ikerketa-prozesu osoan aukerak eta mugak aztertzeko eginiko analitiko abiatuta.

▶ **Nola burutu da? Ikerketaren metodologia**

- ▶▶ Dokumentazio eta bibliografia aldetik bilaketa sakona egin da marko teorikoa eta kontzeptualaren oinarriak finkatzeko, eta Espainiako eta nazioarteko esperientzia praktikoa jaso dira. Halaber, aztertu da hainbat administrazio publikok immigrazio eta garapenerako lankidetzaren gaian zer politika publiko egin duten, elkargarapeneko jarduerak beren lurraldean bideratzeko eta sustatzeko.
- ▶▶ Ikerketarako teknika kualitatiboak erabili dira eta 36 elkarrizketa pertsonal sakon egin dira: 17 etorkinen elkarteetako ordezkariak, 10 garapeneko eta etorkinen laguntzarako GKE-ek eta 9 administrazio publikoek. Ikerketan parte hartu duten eragileek hausnarketarako jardunaldi batean eztabaidatu eta alderatu zituzten elkarrizketetatik abiatuta landutako ondorioak. 2007ko urtarrilean egin zen jardunaldi hori. Gerora, «Elkargarapenaren aukerak buruzko Txostena» landu da. Txosten hori 2008ko urrian eztabaidatu zen hiru taldetan banatuta: etorkinen elkarteak, garapeneko eta etorkinen laguntzarako GKEak eta erakunde publikoak eta pribatuak.


Etorkinen asoziazionismoa Euskal Autonomia Erkidegoan

▶ **Euskal Autonomia Erkidegoan errolatutako biztanleria atzeritarrari buruzko datu orokorrak**


Atzerriko biztanleria EAEra iristen hasi zen garaia:
batez ere 1998tik aurrera.

Guztira, biztanleria atzeritarra EAEan: **%5,4.**

Biztanleria atzeritarraren banaketa, probintziak



Biztanleria atzerritarren banaketa, sexuaren arabera



10 nazionalitate ordezkatuena:

Errumania, Kolonbia, Bolivia, Maroko, Portugal, Ekuador, Brasil, Txina, Aljeria, Paraguai.

Biztanleria atzerritarren artean kolektibo nagusia: **latinoamerikarra**; erroldatutako biztanleria atzerritar osoaren **%46,7** dira latinoamerikarrak.

Hazkundearen joera: 2005 eta 2008 urteen artean, **%60** hazi da EAEn erroldatutako biztanleria atzerritarren bolumena.

Iturria: Ikuspegi (2008).

► Zein da Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen elkarten tipologia?

EAEko etorkinen asoziazio-mugimenduaren ezaugarriak ulertzeko, azken urteotako historia berrikusi behar dugu; 1998tik aurrera etorkin gero eta gehiago iristearekin batera abiatzen da historia. Mugimendu hori gutxi gorabehera 2000. urtean hasi zen egituratzen, batez ere hiru probintzietako hirigune handietan: Bilbon, Gasteizen eta Donostian. Asoziazio-motak eta egiten dituzten jarduerak, askotarikoak izan arren, migrazio-esperientziarekin loturik daude. Hala, Álvarez de los Mozosek ezarritako sailkapenaren arabera (2007), nagusiki bi elkarte-mota bereizten dira:

►► **Kultur elkarteak.** Aisialdi eta festei loturiko jarduerak egiten dituzte, jatorriko eta trukeko kultura elkartzeko. Kultur jarduerak askotarikoak dira. Besteak beste: musika eta dantza-emanaldiak, gastronomikoak, hizkuntzari lotutakoak, festa nazionalen ospakizunak, etab. Jatorriko kulturaren kidetasun- eta identitate-sentimendua da elkarte horiek mugiarazten dituen ardatza: elkarte eta jarduera horiei esker, etorkin askok apurtu egiten dute askotan sentitzen duten isolamendua eta bakardadea. Topagune bihurtzen dira: elkarteko kideek pertsona-arteak beste harreman batzuk sortzen dituzte aisialdi eta dibertsio giroari loturik. Jatorri bera izateak lotzen ditu elkartekideak eta gehienak, gainera, jatorriko herrialdeko eskualde beretik etorriak izaten dira.

Kultur jardueren helburua, orobat, gainerako gizarteari beren kultura ezagutaraztea ere bada, kulturartekotasunaren aberastasunaz ohartarazteko. Elkarte batzuek lagundu egiten diete tokiko beste batzuei kulturartekotasunaren alde kontzientzia zabaltzen eta hezten. Jatorri berekoak ez diren pertsonak osatu ohi dituzte; guztiak etorkinak eta/edo bertako pertsonak izan daitezke elkarte horietako kideak. Halaxe sortzen dira kulturarteko elkarteak.

►► **Komunitate-izaerako zerbitzuak eskaintzen dituzten elkarteak.** Pertsona iritsi berriei babesa ematen diete eta migrazio-prozesuan lagundu egiten diete testuinguru berrian gizarteratzen. Bitarteko burokratikoak egiten, etxebizitza, lana eta beste gizarte-baliabideak bilatzen laguntzen dute, babes psikologikoa eskaintzen dute, antzeko egoeran dauden beste pertsona batzuekin elkartzeko bidea egiten



dute eta interes orokorreko hainbat arlotan (hizkuntzak, informatika, artisautza...) etorkinak prestatzeko bultzada ematen dute. Azken batean, etorkinen kolektiboaren bizi-baldintzak hobetzea bilatzen dute eta pertsona iritsi berrien gizarteratzea errazten dute.

EAEko etorkinen elkarte gehienak kulturalak eta folklorikoak dira eta, aldiz, gutxiengo dira komunitate-izaerako zerbitzuak eskaintzeko sortuak. Azken horien artean, badira emakume etorkinen elkarte batzuk; batzuetan, bertako emakumeek ere osatzen eta/edo babes-ten dituzte elkarte horiek. Beren bizi-baldintzak hobetzeko eta eskubideak defendatzeko ahaleginean egiten dute lan. Dena den, oraindik ere gutxi dira eta etorkinen asoziazio-mugimendu osoaren ezaugarri bera dute: ahulak eta hauskorrek dira, berriki sortuak dire-lako eta langile ia gehienak boluntarioak direlako.

Azpimarratzekoa da elkarte batzuek salaketa-ekintzak ere abiatu dituztela pertsona etorkinen ekonomia- eta gizarte-baldintzak hobetze aldera eta, hala, beren eskubideak aldarrikatzen dituzte eta bazterketa-egoerei buruz ohartarazten dute. Nolanahi ere, gutxi dira halako elkarteak eta, normalean, elkarlanean aritzen dira etorkinen laguntzarako elkar-teenkin. Izan ere, salaketa eta presio politikoa egiteko ekimenek heldutasuna eta sendotasuna eskatzen dute, eta, gaur egun, EAEko etorkinen asoziazio-mugimendu gehienak ez du halako ezaugarririk. Arlo horretan, nabarmentzekoa da Harresiak Apurtuz Etorkinen Laguntzarako Euskadiko GKE-en Koordinadorak egindako lana. Bilbon du egoitza Koordinadorak.

► Zer faktorek eragiten du etorkinen elkarten sorreran?

Elkarte-kopurua ugartzea, lehenik eta behin, migrazio-prozesuaren beraren ondorioa da. Horrenbestez, migrazioaren esperientzia bera funtsezko faktorea da elkarte horiek sortzeko. Baina, horrez gain, badira beste faktore inportante batzuk: etorkin-taldearen beraren ezaugarriak eta jatorriko ingurunean duten antolatze-eko kultura eta aukera politikoaren egitura (Álvarez de los Mozos, 2007).

Migrazio-esperientzia

Migratzeko arrazoiak askotarikoak dira eta pertsona bakoitzak ditu bereak. Kasu askotan, gainera, arrazoi bat baino gehiago egon daiteke emigratzeko erabakia hartzeko. Arrazoi nagusien artean hauek daude: ekonomiari loturikoak (lan-aukerak bilatzea), hezkuntzari loturikoak (unibertsitate-mailan prestakuntza jasotzea), politikoak (jazarpen politikoak gatazkan diren herrialdeetan) eta generokoak (pertsonek eta gizarte oso-oso patriarkale-tan bereziki emakumeen eskubideak urratzen dituzten kultura- eta gizarte-jokabideetatik ihes egitea). Baina, batez ere, migratzeko erabakia ideia zabal batek akuitatzen du: migra-tzen duen pertsonarentzat eta haren familiarentzat «etorkizun hobea» lortzeko gogoak. «Etorkizun hobea» kontzeptu horren muina da helmugako herrialdean bizi-baldintza hobeak bilatzea eta pertsonak beren eskubide oinarrizkoena bermaturik izateko aukera. EAEn finkatzeko arrazoi zehatza da hemen familia-sareak dituztela eta horiei esker familia berri-ro elkartzeko aukera dutela. Eta, horrez gain, laguntzarako gizarte-sareak ere badaude pertsona iritsi berrii harrera egiteko eta hara edo hona gidatzeko.

Migrazio-proiektuak, berez, pertsonen bizimodua aldatzea dakar eta, horren ondorioz, migrazio-esperientzia dolu-aldi batekin hasi ohi da. Aldi horrek hainbat fase ditu, pertsona

bakoitzaren arabera. Elkarteei esker, alde batetik, ingurune berrian bakardade-sentsazioa gainditzea lortzen dute etorkinek; izan ere, ingurune hori aurkako agertzen da. Eta bestetik, elkarri laguntzen diote haiek baino pairatzen ez dituzten arazoei aurre egiten; arazo horiek, gainera, eramangarriagoak egiten dira jakintzak, trebetasunak eta ahaleginak bazten dituztelarik. Beraz, pertsonak elkarre batera kide izatera bultzatzen dituen arrazoi nagusiak loturik daude herrimina eta bakardadea gainditzeko, elkarri laguntzeko eta jatorriko kultura partekatze eta mantentzeko beharrek. Arrazoi horiei gehitu behar zaie, batzuetan, jatorriko herrialdeetan elkarre batera kide izan eta esperientzia hura pizgarri gertatu izana pertsona batzuentzat.

Gainera, gizarteratze- eta integrazio-prozesuan etorkinek hainbat zailtasuni egin behar izaten diote aurre; zailtasun horiek berberak dira etorkinen biztanleria guztiarentzat. Lehen-lehenik, migrazio-politikaren ondorio dira zailtasun horiek: politika horrek mugatu egiten ditu gero eta gehiago etorkinen eskubide politiko, sozial eta kulturalak eta zaildu egiten du bizilekua eta lana izateko baimena lortzea; eta, hain zuzen, baimen horrek bermatuko luke nolabait gizartean eta lan-munduan era normalizatuan sartzea. Nabarmentzekoa da lan egonkorra lortzeko dituzten zailtasunak: nekez lortzen dute lan bat baldintza erregularretan, pertsonen prestakuntza-mailaren eta esperientzia profesionalaren arabera. Hala, etorkinen biztanleria landuna enplegu-zoko jakinetan biltzea akuilu izan daiteke asoziazionismorako. Hala gertatzen da, adibidez, etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen lan egiten duten emakume etorkinekin. Horien artean, nabarmentzekoa da Malen Etxea, emakume etorkinen elkarte, Gipuzkoan.

Gizartean bada, gainera, halako diskurtso bat etorkinen fenomeno negatibotzat jotzen duena, eta horrek biztanleria etorkina baztertzeko jokabidea sortzen du hainbat eremutan (lanean, hezkuntzan, gizartean...). Migrazio-fenomenoaren benetako egoera ez ezagutzeak eragiten du diskurtso hori; eta, aldi berean, komunikabideetatik eta arduradun politikoetatik datozen irudi eta mezu sarritan negatiboz elikatzen da diskurtsoa.

Bestalde, oro har, itzultzeko proiektua aldatu egiten da denborarekin: hala, hasierako ideia, jatorriko herrialdera bueltatzekoa, aldatuz joaten da eta EAEn behin betiko finkatzeko proiektu bihurtzen da. Horren ondorioz, behin oinarritzko beharrak aseta, etorkinak beren eskubide sozial eta politikoak aldarrikatzeko eginahalean hasteko moduan izaten dira.

Azken batean, **etorkinek nola bizi duten migrazio-prozesua, horrek bultzatzen du era bateko edo besteko elkarte sortzea. Migrazioa bizitzeko modu hori, berriz, norberaren eta gizartearen faktoreek baldintzatzen dute.** EAEn, batez ere azken urteotan iritsi da etorkinen biztanleria, eta gizartean eta lan-munduan integartzeko hainbat zailtasuni egin behar izan die aurre biztanleria horrek. Hein batean, horregatik sortu dira beste pertsona etorkinei babes eta orientazio emateko eta beren jatorriko kultura ezagutzera emateko elkarteak. Funtsean, zeregin horietan aritzen baitira EAEn sortutako etorkinen asoziazioak.

Etorkin-taldearen ezaugarriak eta jatorriko antolakuntza-kultura

Elkarre gehienak jatorri bereko pertsonaz osaturik daude; herri, eskualde eta/edo nazio berekoak izatea, hori dute lokarri. Beraz, identitatearen osagaiak berebiziko garrantzia du elkarre askoren hasierako egiturari. **Pertsona-taldeak zer ezaugarri duen, horrek ere eragiten du elkarre hartzen duten egiturari. Hainbat elementu batzen dira: emigratzeko arrazoiak, jatorriko kultura, hezkuntza-maila eta prestakuntza profesionala, jatorriko**



lekuan elkarrekin izandako aurreko esperientzia, laguntzarako gizarte-sareak egotea, etab. Hala, aztertutako etorkinen elkarrekin artean, antolatzeko moduan aldeak daude jatorriko kulturaren arabera. Adibidez, Latinoamerikatik datozen kolektiboen elkarrekin bazkide asko izaten dira eta, aldiz, Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen kolektiboen elkarrekin nuklearragoak dira eta, hein handi batean, familia-sare bereko pertsonen osaturik daude. Beraz, etorkinen kolektiboak ingurune berrira egokitzeko baliatzen dituen estrategiak eta mekanismoak jatorriko kultura-tradizioetatik datoz. Kultura horrek eragiten du elkarrekin zer antolakuntza-forma eman.

Era berean, jatorriko antolakuntza-kulturaren generoen egitura nolakoa den, horrek baldintzatzen du gizon eta emakumeek elkarrekin parte hartzea. Latinoamerikako jatorria duten elkarrekin ikusten da emakumeek gehiago parte hartzen dutela, nahiz eta bigarren mailako zereginetan izan, jada programatutako eginkizunetan, alegia; beraz, salbuespenak salbuespen, ez dute zuzendaritzako jardueretan esku hartzen. Afrikako jatorria duten elkarrekin, emakumearen presentzia eta parte-hartzea oso txikia da; horren arrazoietakoa bat da Afrikatik etorritako biztanleriaren emakume etorkin gutxiago dagoela. Era berean, generoko rol tradizionalak berriro egiten dira elkarrekin eta, horren ondorioz, emakumeek ordezkari txikiagoa dute erabakitze organoetan. Hori dela eta, emakumeek aukera gutxiago dute beren interesak defendatzeko eta elkarrekin agenda zehazteko. Hala da: elkarrekin genero-egiturak ere akulu dira emakume etorkinen elkarrekin sortzeko.

Administrazio publikoaren babesa etorkinen asoziazionismoari (aukera politikorako egitura)

Etorkinen elkarrekin administrazio publikotik jasotzen duten babesak ere eragiten du elkarrekin horien sorreran eta sendotzean, bai eta eremu publikoan duten parte-hartzean ere. Espainiako Estatuan, immigrazio gaitan eskumenak banatuta dauden moduan, tokiko administrazioak arduratzen dira etorkinen biztanleriaren gizarteratzea bermatzeko, eta, administrazio zentrala arduratzen da, berriz, migrazio joan-etorrien antolaketaz eta kontrolaz. Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak, Udal Mailako Harrera Sare Publikoaren bidez tokiko administrazioetara bideratzen ditu baliabideak etorkinen gizarteratzea bermatzeko duten programak garatzeko; oinarrian Immigrazioari buruzko Tokiko Plana duten programak. Tokiko plan orok izan beharreko ardatzetako bat da etorkinen biztanleriak esparru publikoan parte har dezan sustatzea eta, horretarako, garrantzitsua da haien elkarrekin zer eginkizun bete dezaketen onartzea. Administrazio publikoan aldetik behin baino gehiagotan adierazi da etorkinen elkarrekin artean solaskideak izateko beharra. Alabaina, immigrazioari eta/edo gizarte-ongizateari buruzko batzorde gutxitan parte hartu izan dute etorkinen elkarrekin; behintzat, esperientzia bakan batzuk baino ez dira identifikatu. Arrazoietakoa bat da egitura eta antolakuntza aldetik ahulak direla elkarrekin horietako gehienak.

Herri eta probintzia mailako administrazio batzuek dirulaguntza-ildoak dituzte elkarrekin mantentzeko (beren egoitza dutenak) eta funtzionamendurako (biltzeko lokal bat behar dutenak); Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, esaterako. Nolanahi ere, dirulaguntzen eremu horretan alde handiak daude: esaterako, bitarteko administratiboen aldetik erraz samarra da aurrez aipatutako dirulaguntza-ildo horietako bat eskatzea, baina, aldiz, askoz zailagoa da elkarrekin horientzat hainbat jardura eta proiektu egitera bideratutako dirulaguntzak lortzea. Eta are eta zailagoa garapenerako lankidetzaren proiektuetan. Izan ere, elkarrekin ez dute behar besteko antolakuntza- eta kudeaketa-gaitasunik dirulaguntza

publikoak eskuratzeko eta administrazio-prozeduretan bete behar diren baldintzak betetzeko. Hori da arrazoietakoa bat. Eta bestea, elkarre gehienetan ez dagoela langile liberatuturik behar beste denborarekin proiektuak kudeatzeko eta horrek eskatzen duen profesionalizazioa lortzeko. Ondorioz, etorkinen asoziazio gehienek ekintza jakinak egiten dituzte.

Horrenbestez, funtsezkoa da administrazioak zer jarrera hartzen duen etorkinen asoziazionismoa sustatzeko, batez ere herri mailan, herritarrengandik hurbilen dauden elkarteak horiek direlako. Funtsezkoa da elkarre horiek sendotzeko. Era berean, administrazioaren dirulaguntza-ildoak lagungarri izan daitezke elkarteen jarduera jakin batzuk bultzatzeko eta sustatzeko.

► Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen elkarteen ezaugarri nagusiak

Sorrera-data. Berriki sortutako elkarteak dira, batez ere 2000. urtetik aurrera.

Ordezkaritza maila. Gizarte-oinarri ahula dute eta kasu batzuetan ez dituzte ordezkatzen behar beste ordezkatzeko ustea duten nazionalitate eta taldeak. Gai hori funtsezkoa da sortzen diren elkarre askotan; izan ere, lider-talde batek edo familia-klan batek nazionalitate oso baten ordezkaritza hartu izan du bere burua, bildutako kide kopuruaren, gauzatzen dituzten jardueren eta, areago, baita beren helburuen gainetik ere.

Lidergo-motak. Lidergo-fenomenoek eta arduradunen konpromiso pertsonalak zerikusia handia dute elkarre askoren arrakastan. Ezinbestekoa da arduradunen konpromiso hori elkarteek behar bezala funtzionatzeko eta, bazkideentzat premiako ondasunak eta baliabideak lortze hutsetik harago, beste itzal bat lortzeko. Hala, barneko parte-hartzea eskasa jotzen da eta, ondorioz, jarduerak kudeatzeko eta antolatzeko ardurak elkarteko pertsona liderren gain geratzen da. Denborak aurrera egin ahala bazkideak ugaritzen badira ere, gehien-gehienek ekintza jakinetara joan besterik ez dute egiten.

Ezgonkortasuna funtzionamenduan eta iraunkortasunean. Elkarre asko sortu eta denborarekin desagertu egiten dira. Irauten dutenak «hazkunde krisian» sartzen dira bi edo hiru urte pasatakoan. Izan ere, behin gizarteratzeko eta egokitze arazoak gaindituta, elkartekideen interesak aldatu eta biderkatu egiten dira. Horri loturik etortzen da aipatutako krisia.

Batez besteko adina. Elkarreetako kideek, batez beste, 25 eta 40 urte artean dituzte. Elkarreak osatzen dituzten pertsonen gaztetasun hori bat dator EAEn bizi den biztanleria atzeritarraren batez besteko adinarekin.

Parte-hartzea genero aldetik. Emakume etorkinen elkarreetan izan ezik, gainerakoetan emakumeek oso ordezkaritza eta parte-hartze txikia dute elkarreetako zuzendaritza-organotan. Alde horretatik, antzematen da aurrerapauso batzuk eman direla Latinoamerikako jatorria duten elkarre batzuetan; izan ere, emakumeak gero eta leku handiagoa hartzen hasi dira erabakitze organoetan. Alabaina, ez da halakorik gertatu Afrikako jatorria duten elkarreetan. Erabakitze organoetan parte-hartze urriago hori azaltzeko arrazoiak artean hauek daude: jatorriko kultura, gurean bizitzen daramaten denbora, familiako ardurak eta



egindako lana. Emakume askok zerbitzuen sektorean eta pertsonak zaintzen lan egiteko aukera baino ez daukate, kasu askotan barneko erregimenean, eta, ondorioz, ez dute denbora libre askorik izaten beste zeregin batzuetarako.

Finantziario-arazoak irauteko eta jarduerak bultzatzeko. Elkarte gehienek dirulaguntza publikoen bidez administrazioetatik eta finantza-erakunde pribatuetatik jasotako funtsei esker irauten dute, hein handi batean. Alabaina, zailtasunak dituzte beharrezko finantziarioa lortzeko, batik bat administrazioaren aldetik; izan ere, dirulaguntza horiek eskuratzeko betekizunak oso zorrotzak dira elkarteak osatzen dituzten pertsonen batez besteko profesionalizazio-mailarako. Eta horri gehitu behar zaio elkarte horietan ez dagoela langile liberaturik behar besteko prestakuntzarekin proiektu horiek bete-betean kudeatzen aritzeko. Hori dela eta, elkarte asko finantza-erakunde pribatuen bidez saiatzeko dira finantziarioa lortzen; malgutasuna eta burokrazia gutxiago izatea nabarmentzen dituzte erakunde horien ezaugarrien artetik. Azpimarratzekoa da, ordea, elkarte horien proiektuak eta jarduerak diruz laguntzeko interesa bitarteko bat dela finantza-erakunde horientzat etorkinen artean bezeroak berenganatzeko.

Kideen profesionalizazioa. Oro har, ez dute langilerik behar adinako prestakuntza eta denborekin (langile liberaturik) elkarteak nahiko lituzkeen jarduerak gauzatzeko.

Beste elkarte batzuekin koordinazioa eta sarean egindako lana. Etorkinen elkarten artean kohesioa falta da eta horrek ez du uzten etorkinen mugimendu batu bat egituratzen beren eskubideak eta interesak defendatzeko. Oro har, etorkinen elkarten arteko koordinazio-esperientziak unean unekoak dira eta herri mailakoak. Etorkinen eta haien laguntzarako beste elkarteekin kontaktua eta lankidetzak nagusiki Harresiak Apurtuz Immigranteen Laguntzarako Euskadiko GKE-en Koordinadoraren bitartez egiten da. Elkarte gisa dituzten interesak defendatzeko, salaketa publikoak egiteko eta informazioa trukatzeko tresna da koordinadora hori. Gaur egun, esku-hartze eremua Gipuzkoara eta Araba zabaltzeko fasean dago Koordinadora. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da etorkinen elkarte batzuek sare propio bat egituratzeko beharra aldarrikatzen dutela, immigranteen laguntzarako eta garapenerako erakundeek osatutako koordinazio- eta lankidetzak guneetatik harago. Gipuzkoan, etorkinen elkarteek bi topaketa egin dituzte jada, 2007an eta 2008an, lan-harreman koordinatua sortzeko eta egituratzeko asmoarekin, era horretara informazioa trukatzeko, beren eskubideak elkarrekin aldarrikatzeko eta salaketa publikoa egin ahal izateko.

Etorkinen asoziazio-mugimenduaren agerpen urria. Nahiz eta elkarte-kopuruak gora egin duen, hazkunde hori ez da espazio publikoan islatu: elkarte horiek jarraitzen dute oso presentzia gutxi izaten. Bai bertako asoziazio-mugimenduek eta bai administrazio publikoak sustatu eta ezarritako koordinazio eta parte-hartze sare formaletan sartu gabe daude elkarte horietako asko. Era berean, herrialde eta/edo etnia eta kultura aldetik jatorri bereko etorkinen kolektibo asko daude modu informalean bildu bai baina elkarte moduan formalki eratu gabe eta, horrenbestez, horiek ere ez daude sare horietan sartuta.

Parte-hartzea eremu publikoan. Etorkinek oso parte-hartze txikia dute immigrazioaren eremuko politika publikoen diseinuan. Elkarte bakan batzuek, hala ere, erakundeekin lankidetzak aktiboagoa izan dute, immigrazio-edo gizarte-ongizateko kontseiluetan hor izan direlako. Azpimarratzeko moduko salbuespen bakan batzuk dira aipatutakoak.

EAEEn bizi diren etorkin gehienek gaur egun bizi duten migrazio-unearen baitan ulertu behar dira ezaugarri hauek. Izan ere, etorkinak hainbat zailtasuni egin behar dio aurre egu-

neroko bizimoduan eta zailtasun horiek baldintzatu egiten dute elkarteetan parte-hartzea. Zailtasunen artean hauek daude: familia-ardurak, bete gabeko oinarrizko premiak, denbora falta lanaldi luzeen ondorioz, egoera irregularra dela eta agertzeko zuhurtasuna, etab. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da sendotu egin direla ibilbide luzeagoa duten elkarte batzuk. Erakunde publikoak hasi dira elkarte horien lana aintzat hartzen eta baliabideak bidertzeko bitartekotzat hartzen. Hala, harrerari eta kultur-bitartekaritzari begirako zerbitzuak hornitzen dituzte baliabide eta elkarte sendotu horien bitartez. Elkarte horien adibidea da Gasteizko Elkarte Afroamerikarra.

Elkargarapeneko prozesuaren eraikuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

Ikerlanean egindako elkarrizketek eta eztabaida-taldeek erakutsi dute zer nahasmen dagoen elkargarapenaren, haren esanahiaren eta esku hartzeko eremuen inguruan. Elkargarapenean diharduten gizarte-eragileek ere ez dute definizio ofizial bakar bat onartu eta horrek eragiten du, alde batetik, nahasmena. Eragile horien artean daude nazioarteko organismoak, jatorriko eta helmugako herrialdeetako administrazio publikoak, etorkinak eta beren elkarteak, garapeneko eta immigranteen laguntzarako GKEak, erakunde pribatuak, etab. Eta bestetik, EAEn elkargarapenean diharduten eragileen artean ere apenas egin den gogoetarik eta eztabaidarik; beraz, horrek ere ekarri du nahasmena. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira Hika Ateneo³ Elkargarapeneko Lantaldeak egindako gogoeta-esperientzia eta etorkinen elkarte batzuek —Azraf eta Ideasur elkarteek, adibidez— antolatutako foroak.

Aipatzekoa da ikerlanaren baitan egindako eztabaida-taldeetan eragile gutxiak parte hartu zutela. Zehazki, GKE-en taldean. Horrek adierazten du elkargarapena oraindik ere ez dela aintzat hartzen eragileen lan-egutegi gehienetan. Eta, aldi berean, hor ikusten da garbi zernolako banaketa sakona dagoen garapenerako lankidetzaren eta immigrazioaren eremuen artean.

► Elkargarapenerako aukerarik badago? Eragileen mugak eta aukerak elkargarapenerako

Etorkinek elkargarapenean parte hartu behar dutela adierazteak ez du esan nahi derrigorrez haiek direnik edo izan behar dutenik elkargarapenean ariko diren bakarrak. Hala, hiru eragile nagusi bereiz daitezke EAEn eraikitzen hasi den elkargarapeneko prozesuan: beste herrialdeetatik etorritako etorkinen elkarteak, garapeneko eta immigranteen laguntzarako GKEak, eta erakunde publikoak eta pribatuak.



3. Gomendagarria da lehen gogoeta-esperientzia horren ondotik argitaratutako lana kontsultatzea (Padial eta beste batzuk, 2006).



Etorkinen elkarteen mugak eta aukerak

Elkargarapenez hitz egin ahal izateko, nahitaezkoa da etorkinek eta beren elkarteek parte hartzea bai eraikuntza prozesuan eta bai arlo horretako esku-hartzeen sorreran, diseinuan eta gauzatzean.

Mugak

- Etorkinen biztanleriaren egoerari dagokionez, **Espainia mugak ixteko eta murrizketak egiteko politika ari da ezartzen migrazioaren testuinguruan**; murrizketak etorkinen eskubide politiko, sozial eta kulturaletan. Eta politika hori zailtzen ari da etorkinen gizarteratzea. Askok bizirauteko zailtasunak dituzte, lanean, gizartean, politikan eta kulturaren egiten zaien harrera baztertzea delako; horren ondorioz, oro har, beren lan- eta gizarte-egoera ez da batere ona jatorriko herrialdeetan inbertsio eta garapeneko proiektu kolektiboetan parte-hartzeko edo horretan pentsatzeko. Era berean, testuinguru horrek zaildu egiten ditu etorkinek beren familiekin eta jatorriko komunitateekin izan ditzaketen lokarriak. Hori dela eta, immigrazioaren fase jakin batekin lotzen da herri, eskualde eta/edo nazio identitatearekiko erreferentzia nabarmena duten etorkinen asoziazionismoa, nagusiki lehen belaunaldiaren beharrei loturiko fasearekin: gizar- te hartzaillean sartzea eta horretara egokitzea.
- **Elkarteen bereizgarrietako bat da ahultasun instituzionala eta antolatzeko gaitasun urria**. Horrek zaildu egiten du elkarte horiek lankidetzaren eremuan ezarritako funtzionamendu-dinamikara biltzea. Oro har, giza baliabideak falta direla antzematen da; lankidetzaren proiektuak kudeatzeko behar adinako prestakuntza, espezializazioa eta denbora duten pertsonarik ez dagoela. Orobat, baliabide ekonomikoen eskasia ere sumatzen da.
- **Etorkinek beren jatorriko herrialdeetako estatuan eta gobernuengan duten konfiantza** aldatu egiten da beren aurreko esperientzien arabera. Konfiantza hori ezinbestekoa da elkargarapeneko prozesuetan parte hartzeko gogoia sor dadin eta beren jatorriko herrialdeen eta herrien garapenean eragiteko gaitasuna dutela senti dezaten.

Aukerak

- 💡 Etorkinen asoziazio-mugimendu gehienak badu **jatorriko lekuen garapenean laguntzeko gogoia**. Alabaina, migrazio-esperientzian izandako zailtasunek eta elkarte gaur egungo ezaugarriek oztopatu egiten dute elkarte horiek garapeneko ekimenetan parte hartzea.
- 💡 Etorkinek eginiko **bidalketak** distantzia luzeko gizarte-lokarriak dira; elkartasun, elkarrekikotasun eta obligaziozko lokarriak. Horien bitartez lotzen dira jatorriko senide eta lagunekin. Elkartasun hori, hasiera batean, pertsona bakoitzarengandik abiatzen da, norberak erabakitzen baitu bere kabuz etxeko taldeari eta gizarte-sareei mesede egitea. Bada, elkartasun hori ekintza kolektiboko elkartasun bihurtzeko daiteke elkarte osatzen duten pertsonen artean horretarako baldintzak ematen badira (gizarteratze eta helmugara egokitzeko fasea arrakastaz gainditzea, jatorriko gobernu-agintariengan konfiantza, asoziazioak sendotzea...).
- 💡 Jatorriko herrien bizi-baldintzak hobetzeko etorkinek sentitzen duten konpromisoa loturik dago, orobat, **itzultzeko itxaropenarekin**. Zaila da konpromiso hori bere familiarik harago zabaltzea migrazio-proiektuaren helburua itzultzea bada. Nolanahi ere, ikusita dago, oro har, hasierako proiektu hori, itzultzekoa, aldatuz joaten dela denborarekin, eta EAEn behin betiko finkatzeko proiektu bilakatzen dela pixkanaka.

- ❖ Etorकिन elkarteen artean beste lan-ildo bat zabaldu da **kulturarteko sentikortzera** zuzendurik. Era berean, beste elkarte batzuk garapenerako sentikortze eta hezkuntzaren ildoan hasi dira lanean, beren jatorriko herrialde eta tokien egoerari buruzko informazioa zabalduz, Iparralde-Hegoalde harremanei buruzko lantegiak eta jardunaldiak eginez, etab.
- ❖ Elkarte gehienek antolatzeke gaitasun gutxi eta gizarte-oinarri txikia daukate, hori dute bereizgarri; baina, hala ere, etorkizunerako ikuspegi interesgarria begiesten da, **komunitatea sendotzen** den heinean eta **euskal gizartean parte hartzeke gaitasuna eta interesa handiagoa** diren neurrian. Parte hartzeke gaitasuna eta interesa bai aldarrikapen-gaietan eta bai beste elkarteekin eta administrazio publikoarekiko harremanetan (jatorriari begirako lankidetzaproiektua eskatzea, lortzea eta kudeatzea). Batzuk hasi dira sarean lan egiten etorkinen beste elkarteekin eta/edo GKE-ekin, elkargarapeneke proiektuak martxan jartze aldera. Lankidetzaren eremuan etorkinek agertutako engaiamendu horrek aukera ematen du garapenerako lankidetzaren kulturarteko maila lantzeke, bai eta betiko lankidetzaren planteamendu-aldaketa indartzeko ere.
- ❖ Identifikatu diren elkargarapeneke ekimeneke, kasu batzuetan, aurrez eginiko gogoeta izan dute abiapuntu jatorriko beharrei, esku hartzeke aukera eta gaitasunei eta jatorriarekiko konpromisoari buruz. Immigrazioaren eta/edo lankidetzaren eremuko eragileen artean hainbat foro eta jardunalditan mamitu dira gogoeta horiek. Hortik zabaldu dira **topagune batzuk**. Badira hutsuneak, noski, GKE-en eta etorkinen beste elkarte batzuen parte hartze txikia dela medio, baina, hala ere, topagune horiek lehen urratsa dira EAEn elkargarapeneke prozesua eraikitzeke.



Garapeneko eta immigranteen laguntzarako GKE-en mugak eta aukerak

Mugak

- GKE-ek profesionalizazio-maila eta kudeaketarako gaitasun nabarmena lortu dute oro har, baina, hala ere, hainbat arazo dituzte aurrean: **kontrataturako langileen lan-bolumen handia, boluntario gero eta gehiago galtzea** eta **finantzazio publikoaren mendeotasuna**. Aurreneko bi arazoen ondorioa da egitura ahulagoa izan eta babes eta laguntza iraunkorra behar duten etorkinen elkarteekin lan-sareak sortzeko behar beste denbora ez izatea. Hirugarrenak ekar dezake baliabide publikoak lortzeko lehia eta etorkinen elkarteak «sudurluzetzat» hartzea berena jotzen duten eremu batean.
- GGKEak ohituta daude ekintzara eta **denbora gutxi ematen dute gogoeta egiten eta erakundeko langileak prestatzen**. Lan-gainzama ezaugarri komuna da elkarte horietan eta, horren ondorioz, elkarte asko ekintza ekintzaren ondotik dinamikan sartzen dira, bestelako lan-ildoei buruz gogoeta egiteko gune egokirik sortu gabe. Elkargarapenak eskatzen du GGKE-ek migrazioarekin arduraz bat egiteko erabakia hartzea, eta gizartea aldatzeko prozesuari ekitea etorkinen beste elkarte batzuekin lan-metodologia zuzen eta parte-hartzezkoetan oinarriturik. Hau da, elkarteek elkarrekin lan egiteko erronka adierazten du elkargarapenak, finantzatzaile bai publiko eta bai pribatuaren aurrean etorkinen elkarten bitartekari eta laguntzaile tekniko huts izatetik harago.
- GGKE-ek eta immigranteen laguntzarako GKE-ek joera dute **rol paternalista** hartzeko etorkinekiko eta haien elkarteekiko, eta rol horrek ez du batera laguntzen elkarteak botereaz jabetzen.
- GGKE-etatik **errezelo** ugari dago etorkinen elkarteekiko.

Aukerak

- 💡 Immigranteen laguntzarako GKE batzuk lanean ari dira **etorkinen elkarteak indartzeko eta sendotzeko** bidean. Hori da aurreneko urratsa elkarte horiek elkargarapenari heltzeko aukera izan eta erabakia har dezaten.
- 💡 GGKE-etako taldeak, oro har, **era askotako pertsonaz** osaturik daude. Batzuk bertakoak dira, noizbait etorkinen jatorriko herrialdeetan lan egindakoak, eta/edo beste batzuk etorkinak dira. Aniztasun horrek lagundu egin dezake etorkinak elkarte horietara hurbiltzen eta GGKE-en lanean migrazioak daukan garrantzia jasotzen.
- 💡 GGKE-ek **esperientzia zabala dute beste elkarte batzuekin sarean lan egiten**, bai garapeneko eta bai beste arlo batzuetako elkarteekin (feministak, ekologistak...). Horrek adierazten du egon badagoela aukera etorkinen beste elkarte batzuekin sarean lan egiteko bidea hartzeko.
- 💡 GGKEak, oro har, **oso profesionalizatuta eta espezializatuta daude garapenerako lankidetzaren eremuan**. Horrez gain, kudeaketarako gaitasun handia dute eta, horri esker, administrazio publikoak eta gizarteko beste erakunde batzuek garapenerako eragile baliozkotzat hartzen dituzte GGKEak. Halaber, esperientzia zabala dute eremu horretan, eta hortik ere badator onarpen hori. Horri esker, aukera dute lankidetzako politika eta planen diseinuan parte hartzeko, eta etorkinen elkarten aldean lankidetzarako dirulaguntza publikoak zailtasun gutxiagoz eskuratzeko. Horrenbestez, GGKE-ek benetako ahalmena dute garapenerako lankidetzaren eremuan sartu nahi duten etorkinen elkartei laguntzeko.

Erakunde publikoen mugak eta aukerak

Elkargarapenari buruzko Lantaldearen *Adostasun dokumentuak* (2007) islatzen duenez, elkargarapenak bere aukera guztiak zabalduko ditu baldin eta garapenerako eta integrazio-rako politika publikoen markoan sartzen bada, hala jatorrian nola helmugan. Horregatik da oso inportantea horretan diharduten administrazio publikoen (nazionalak, erkidegokoak, probintziakoak eta tokikoak) jarduerak koordinatzea, modu horretara eragile guztien eraginkortasun globala lortzeko, koherentzian eta elkarren osagarri izanez. Izan ere, elkargarapenaren eremuan eragile funtsezkoak dira aipatutako administrazio horiek.

Mugak

- ◉ Erakunde publikoetako **lankidetzak eta immigrazio-arloen arteko koordinazioa**, oro har, txarra da. Migrazio eta garapenaren arteko loturari buruz ez dago gogoetarik, eta elkargarapenaren gainean nahasmena orokorra da.
- ◉ **Elkargarapena ez da sartzen immigrazioko eta garapenerako lankidetzako udal plangintzetan**. Bi salbuespen baino ez daude: Barakaldoko immigrazioko plangintza eta Bilboko garapenerako lankidetzako plangintza. Erkidego mailan bai, elkargarapena jasorik dago lankidetzak eta immigrazioko plangintzetan, baina modu nahasian eta anbiguoan.
- ◉ Elkargarapenaren ardatza ez da ia aintzat hartzen **garapenerako lankidetzak-proiektuetarako deialdien oinarrian**, eta alor horretako proiektu batek zer irizpide bete behar duen zehaztu gabe dago. Aintzat hartu duten erakunde bakarrek, Eusko Jaurilaritzako Garapenerako Lankidetzak Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiak, irizpide bakar bat ezartzen dute: proiektuetan etorkinek eta beren elkarteek parte hartzea.
- ◉ Immigrazioari buruzko tokiko planak **ikuspegi tradizional** batetik abiatzen dira; etorkinak helmugako herrialdean gizarteratzeko prozesuan baino ez da oinarritzen ikuspegi hori, nazioz gaindiko dimentsioa aintzat hartu gabe. Hau da, ez da kontuan hartzen etorkinek jatorriko herrialdeekin ezarri eta mantentzen dituzten lokarriek baldintzatu egiten dutela helmugako gizarteratze- eta integrazio-prozesua.
- ◉ Elkargarapenaren eremuan burutu diren ekimen apurrak lankidetzak eta immigrazio arloetako **lantaldearen interes eta konpromiso pertsonalari** esker gauzatu dira batez ere, borondate politiko argi baten eskutik baino gehiago.
- ◉ **Erakunde publikoen eta etorkinen elkarten arteko harremana** urria eta/edo kaskarra da. Hori da balorazioa. Erakunde publikoek parte-hartzeko ezarritako egitura formalak —immigrazioko eta lankidetzako tokiko batzordeak, esaterako— ez daude egokituta etorkinen elkarten beharrezanetara (ordutegiak bateratu ezina langile etorkinen lanaldiak direla medio), eta, ondorioz, elkarte horiek ez dute benetako aukerarik parte-hartzeko.
- ◉ Oro har, **etorkinen elkarteak ez dira onartzen** baliozko solaskidetzat immigrazioaren eta lankidetzaren eremuko politika publikoak diseinatzen parte hartzeko. Elkarten ahultasun instituzionalaren eta antolatze gaitasun urriaren ondorioa da hori.

Aukerak

- 💡 Tokiko erakunde publiko batzuek —Bilboko eta Irungo Udalek, esaterako— **lankidetzarako eta immigrazioarako eremu bakar bat** sortu dute. Lan-ildoetan koordinazioa falta dela egiaztatu arren, lehen aurrerapauso moduan hartu behar da; lankidetzak eta immigrazioari buruzko etorkizuneko planen ikuspegi koherente baterantz bidea urratzeko lehen pauso moduan.
- 💡 Etorkinen biztanleriaren bizikidetzak eta integrazioa laguntzeko **tokiko planak egotea** funtsezkoa da etorkinen asoziazio-mugimendua indartzeko eta sendotzeko prozesua



sortze aldera. Udalerri askotan hainbat ekimen ari dira gauzatzen bide horretan, eta hori lagungarri izan daiteke elkargarapenerako beharrezko diren baldintzak sor daitezzen.

- 💡 Etorkinen asoziazio-mugimendua sendotzera bideraturako lan-ardatza hasi da mami-tzen **erakunde publikoen dirulaguntza-ildoetan**. Etorkinen elkarteek beren jatorriko herrialdera zuzendutako ekintzetan parte hartzeko bide horretan atariko pausoa dira dirulaguntza-ildo horiek.
- 💡 **Tokiko erakunde publikoak herritarrengandik gertu egotea** aldeko faktorea da etorkinen elkarteen parte-hartzea sustatzeko eta laguntzeko, bai immigrazioko eta lankidetzako tokiko planak diseinatzen eta bai lankidetzako proiektuetarako deialdi publikoetara aurkezten. Herrietan, etorkinen elkarteen eta administrazio publikoaren arteko harremanetarako bide ez-formalak hasi dira formalki egituratzen immigrazioko tokiko batzordeen bidez. Gabeziak gabezi, batzorde horiek bitartekaritzarako bide egokiak izan daitezke elkarteen beharrak, eskakizunak eta proposamenak zein diren ezagutzeko.

Erakunde pribatuen mugak eta aukerak

Finantza-erakunde pribatuek jakin dute beren zerbitzuen eskaintza etorkinen kolektibora egokitzen, kolektibo hori eremu askotan negoziarako aukera izan daitekeela jakitun (bidalketen merkatua, etxebizitzetan inbertsioak, maileguak...). Hala, etorkinen artean bezeroak berenganatzeko estrategiak landu dituzte, eta horien artean elkarteetara bideratutako estrategiak; besteak beste, proiektuak finantzatzea eta elkartekideentzat bankuko zerbitzu eta produktuen eskaintza. Estrategia horien helburua da etorkinen kolektiboko bezeroek leial jarrai dezaten lortzea. Bezero horiek aukerak eta, aldi berean, mugak adierazten dituzte elkargarapeneko proiektuak sortzeko. Finantza-erakunde pribatuek ia ez dute parte hartu ikerketan⁴ eta horrek mugatu egin du erakunde horiei buruz egin ahal izan den analisia. Horrenbestez, etorkinen elkarteek eta garapenerako eta immigranteen laguntzarako GKE-ek emandako informaziotik atereak dira jarraian jasotako ondorioak.

Mugak

- ◉ Finantza-erakundeek etorkinen elkarteetan artean bezeroak berenganatzeko landu dituzten estrategiek asoziazionismo jakin bat sustatzen dute: pertsonak bazkide egitean **norberarentzat lor dezaketen onurak bultzatutako asoziazionismoa**. Aurrezki Kutxa batzuek, adibidez, mailegua eskuratzeko baldintza hobeak eskaintzen dizkiete bazkide diren pertsoneri. Horrek, bai, elkarteetan bazkide gehiago izatea ekartzen du, baina ez, aldiz, pertsona horien parte-hartze aktiboa eta iraunkorra elkartearen dinamikan.
- ◉ **Finantza-erakundeek** kolektibo horretan **bezeroak berenganatzeko zer interes komertzial duten**, horrek baldintzatzen du etorkinen elkarteetan proiektuak eta/edo jarduerak finantzatzea. Oro har, ikusten da finantza-babesa proiektu txikietara eta unean unekoetara bideratzen dela, immigrazioaren alde gizarte-erantzukizunez jokatuta publizitate eta irudi aldetik etekin zuzena eskuratzeko modua eskaintzen duten proiektuetara.
- ◉ **Ekonomia-krisiaren gaur egungo testuinguruak** langabezia-tasa handiagoa eragin du etorkinen artean eta, horren ondorioz, ahalmen ekonomiko txikiagoa izatea. Horrek ekar dezake finantza-erakundeek etorkinen biztanlerian negoziarako aukera gutxiago ikustea, eta, horrenbestez, elkarteetan proiektuetarako diru-babesa murriztea.
- ◉ **Etorkinak funtsean bezero potentzialtzat hartzeak** mugatu egiten du esku hartzeko aukera eta ezeztatu egiten ditu beste ekintza-maila batzuk.

Aukerak

- 💡 Etorkinen elkarte askok harreman sendoak ezarri dituzte finantza-erakundeekin, batez ere bi arrazoiengatik: erakunde horien bezero izateagatik eta proiektu eta jardueretarako dirulaguntzak errazago eskuratzegatik. Elkarteek, oro har, nabarmentzen dute erakunde pribatuek **malgutasun handiagoa eta burokrazia aldetik eskakizun txikiagoa** dutela proiektuak finantzatzeko.



4. Bilbao Bizkaia Kutxa izan da ikerketan parte hartu duen finantza-erakunde bakarra. Hemen aurkeztutako aurretiazko ondorioek argi uzten dute zein inportantea den sektore horrek elkargarapenerako eragile gisa dituen aukerak eta mugak zorrotzago esploratzea.



► Nor ari dira elkargarapenean parte hartzen? Esperientzia jakin batzuk

Esperientzia praktikoa gutxi bildu ahal izan da, baina, hala ere, nabarmentzekoa da ikerketan parte hartu duten etorkinen elkarteetako erdiak-edo adierazi duela interesa beren jatorriko herrialdeen garapenera bideratutako lankidetzak-jarduerak egiteko. Esku har dezaketen eragilean aniztasuna dela eta, garrantzitsua da bereizketa hau egitea: nor hasten duen elkargarapenerako proiektua eta nor gauzatzen duen eta, ondorioz, nor den martxan jarritako proiektuaren protagonista nagusia (bertako langileen GKE bat, etorkinen elkarte bat, jatorrian eta helmugan elkarteak elkartuko dituen erakunde bat, etab); izan ere, bat izan edo bestea izan, ez dituzte baliabide berak izango (ez materialak eta ez humanoak), ez dute ikuspegi bera izango gizartearen egoeraz, ez dute kultur aldetik ezagutza bera izango eta ez dira modu berean hurbilduko aurre egin beharreko arazoetara (Giménez eta beste batzuk, 2006: 92).

Elkargarapena ezin denez banatu etorkinen eta haien elkarteetako parte-hartzetik, lehenik eta behin, garrantzitsua da jakitea zein arrazoik bultzatuta engaiatzen diren elkarteak beren jatorriko lurraldeak laguntzera eta zerk eramaten dituen komunitate-garapenerako ekintzak sustatzera. Bildutako esperientzia horien argitan, zenbait faktore identifikatu dira. Izango dira gehiago, baina atzeman diren horiek laguntzen dute komunitate-garapenerari begirako nazioz gaitzako fenomenoak hobeto ulertzen. Fenomeno hori mamitzen hasi baita EAEko etorkinen elkarte batzuetan:

- Gehienek osagai komun baten inguruan biltzen dituzte kideak: herri-, eskualde- edo nazio-identitatea. Alde horretatik, ikusten da elkargarapenerako proiektuak sortzen direlarik, oinarrian, jatorriko herrialdeko kide izatearen sentimendu indartsua dagoela eta bere komunitatearekin lotarriak mantentzeko desira. **Identitate-elementua** funtsezkoa da elkargarapenerako proiektuetan parte hartzeko. Hala, esperientziak erakusten dute horrelako proiektuak abiatzen direlarik, helburu zabalago bat ere bilatzen dela aldi berean: nazioz gaitzako komunitateak sortzea emigratu zutenen eta geratu zirenen artean. Komunitate horiek aukera ematen diete etorkinei beren jatorriko leku eta komunitateekin loturik jarraitzeko.
- Helmugako herrialdean, jatorri berekoak izategatik eta elkarri laguntza emateko beharrik sortzen dira hasiera batean **komunitate-sareak**. Sare horiek mantendu eta indartu egiten dute jatorriko komunitateko kide izatearen sentimendua. Eta horrenbestez, jatorriko lekuari begira jarduerak egiten hasteko gogoak hauspotzen dute.
- Etorkinen elkarteak osatzen dituzten pertsonen **giza kapitala** eta haien bizi-egoera ere kontuan hartu beharreko faktoreak dira. Oro har, badirudi elkarteetako kideen artean hezkuntza-maila eta estatus handiagoa dutenek, hemen bizitzen denbora gehiago daramatenek eta beren egoera erregularizatuta dutenek, horiek dutela garapenerako proiektuetan parte hartzeko motibazioa. Era berean, ingurune berrira egokitzeko eta gizarteratzeko fasea jada gaitzaturik dute pertsona horiek eta, kasu batzuetan, aurretik ere bazuten esperientzia, jatorriko herrialdean komunitate-garapenerako elkarteetan arituak zirelako.
- **GGKE-ekin sarean lan egitea** da beste faktore funtsezko bat etorkinen elkarteek elkargarapenerako proiektuei ekitea erabakitzeko. Etorkinen elkarteetako gaur egungo ezaugarriak aintzat hartuta, salbuespenak salbuespen, elkarte horiek ezin dute beren kabuz lankidetzak-proiektuetan sartu. Hori dela eta, etorkinen elkarteak eta GGKEak elkarri laguntzen eta batera lan egiten hasi dira. Bide horretan abiatu besterik ez dira egin bi eragile horiek, baina jada eman dituzte urrats batzuk.

Garrantzitsua da kontuan hartzea etorkin-talde bakoitzak bere berezitasunak dituela eta jatorriko komunitateetako lotarriak sortzeko eta nazioz gaitzako gizarite-sareak eraikitzeko bere modua duela. Beraz, aztertu egin behar da nola egituratzen diren talde horien harre-

manak beren jatorriko komunitateekin, hartara hobeto ulertuko dugu-eta beren konpromisoa eta parte-hartzea komunitate horiek garatzeko.

Etorkinen elkarteetako eta GGKE-etako abiatutako ekimenak

Etorkinen elkarteek eta GGKE-ek burututako elkargarapeneko ekimenak ulertzeko «behetik» abiatutako ikuspegia hartu behar da; hau da, oinarritik datozen eragileengandik sortutako ekintza gisa hartu behar dira, eta ez gobernuek edo administrazio publikoek bultzatutako ekimen gisa. Hari horri tiraka, garrantzitsua da kontuan izatea EAEn gizarte-eragile horiek hasi zirela edo hasten ari direla elkargarapenaren ildoan lan egiten, kontzeptu hori modu anbiguoan Erkidegoko immigrazio eta garapenerako lankidetzako plan bietan jaso baino lehen hasi ere.

Etorkina lankide bihurturik: etorkinak beren jatorriko herrialdeen garapeneko eragile

Munduko Medikuak Euskadi (MME) izan da GGKE-en artean aitzindarietako bat elkargarapenean. Erakunde horren ekintzen artean nabarmentzekoa da Bizkaiko JAAM Senegaldarren Elkartearekin batera izandako esperientzia. MMEk urteak daramatza Senegalen etorkinei laguntza ematen eta Bilbon immigrazioaren aldeko lanean. Bi lan horien uztartetak bultzaturik sortu zen 2001. urtean «Etorkina lankide bihurturik» programa. Egitasmo horren helburua zen beharrezko baldintzak sortzea etorkinak beren jatorriko herrialdeetan garapenerako eragile izan zitezen. Senegaleko bi ingurutako komunitateetan lankidetzako bi proiektu jarri ziren martxan osasunaren eremuan, eta, hain zuzen, proiektu horietan gorputzu zen aipatutako programa.

Bi proiektu horiei esker are gehiago estutu ziren Munduko Medikuak Euskadi eta JAAM Senegaldarren Elkartearen arteko harremanak, baita hango herrietako eta eskualdeetako agintariekin izandako harremanak ere. JAAM Elkarteak bera izan zen ekimen horien motorra. Era berean, aukera eman zuten biztanleria, haien ingurunea eta beharrak hobeto ezagutzeko eta horietan sakontzeko. Hala, 2002. urtean, Senegaleko bertako bazkideak, FADEC elkarteak, beste proiektu bat jarri zion mahai gainean MME erakundeari eta honek Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional (NE/SI) GGKEari proposatu zion proiektu horretan parte hartzea. Hortik aurrera, bi GGKE-ek eta JAAM Senegaldarren Elkarteak bilera-ziklo bat hasi zuten FADECen proposamena eztabaidatzeko. JAAM Senegaldarren Elkartearen presidentea Senegalera joan zen proiektua hango bazkidearekin zehazteko. Prozesu horrek izan zuen emaitzarik: MME erakundeak, NE/SIrekin elkarlanean, «Elkagai-segurtasuna Bandagneko populazioarentzat» proiektua jarri zuen martxan 2003 eta 2005 urteen artean.

NE/SIko proiektuan parte-hartzea barne gogoeta-prozesu baten emaitza izan zen. Gogoeta-prozesu hori 2000-2004 plan estrategikoan mamitu zen. Plan horrek aurreikusten zuen, alde batetik, erakundearen ekintzak «Elkartasun-uharteak» esaten zaien horietan biltzea, geografia-eremu jakin baten garapen integrala lortzea helburutzat hartuta; horrela, garapen integral horren bidez, tokiko ahalmenak sendotu ahal izateko, tokiko ekonomia garatzeko estrategietan eragileen (erakunde, gizarte eta produkzioakoak) parte-hartzea sustatzeko, eta biztanleria onuraduna xehetasun handiagoz ezagutu ahal izateko. Eta, bestetik, planak aurreikusten zuen EAEn bizi diren etorkinen jatorriko herrialdeen artean, ingurune kalte-tuenetara bideratzea jarduerak, eta bereziki Afrikara. MMEren proposamena iritsi zenean, NE/SI aurreneko urratsak ematen ari zen etorkizunean herrialde hartan esku-hartzeko; eta erabaki zuen Elkartasun-uhartetzat hartzea Bandagneko landa-komunitatea eta ekintzak abiatzea MMErekin elkarlanean.



Gaur egun, beste esperientzia batzuk ere badira, eta bistan da etorkinen elkarte batzuek eta GGKE batzuek elkargarapenaren ildoan lan egiteko interesa dutela, baina kontuan hartu behar da jarraian bildutako esperientziek ez dituztela islatzen EAEn gauzatzen ari diren elkargarapeneko proiektu guztiak. Elkargarapeneko proiektuei ekin dieten etorkinen elkarteetan, badira GGKE-ekin elkarlanean hasi direnak eta badira beren kabuz hasi direnak.

Hiru Izkina: komunitate-lana Gernikan, Alhucemasen eta Caquetán. Bizkaiko Bilgune Sarearen elkargarapeneko esperientzia

Bilgune Sarea honako hauek osatzen dute: Gernika Gogoratuz bakearen aldeko ikerketa zentroak, Gernikatik Mundura GGKEak eta Ideasur kulturarteko elkarteak. Hiru erakunde horiek Gernika-Lumon dute egoitza eta elkarrekin ari dira lanean aspaldidanik, Gernika-Lumon (Bizkaia) eta Caquetán (Kolonbia) komunitate-proiektuak egiten. Sareak elkarrekin jarduten du eremu hauetan: garapena, kulturartekotasuna, bizikidetzeta eta bakegintza.

Era berean, sare horrek, Azra Euskadiko Etorkin Marokoarren Elkartearekin batera, Euskal Herria-Rif taldea osatu zuen 2007an, amazigh herriaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko ezagutza, trukea eta elkartasuna sustatzeko eta lokarriak estutzeko.

Proiektuaren aurrekariak

Bilgune Sarearen harremana Caquetá eskualdearekin (Kolonbiako Amazonia). Harreman hori 1998an hasi zen Gernika Gogoratuz-en eskutik, bake-kulturaren eremuan hasi ere, eta etorkinen integrazio eta lankidetzarako garapenaren eremuetara zabaldu zen gerora. Harrezkero, sareko hainbat kideren elkarlanak aukera eman du Caquetá departamentuko egoeraren berri jakiteko eta emateko, eta inguru hartako giza talde handiek beste leku batzuetara zergatik joan behar izan duten ezagutzeko eta ezagutarazteko.

Hasiera batean, Florenciako (Caquetá departamentuko hiriburua) gizarte- eta kultura-gunee-tan parte hartzen hasi zen Bilgune Sarea. Kolonbian, hiri horretan bizi da desplazatutako familia gehien eta eskualdeko hiri handiena ere bada. Militarizazioa handia da eta Estatuak inbertsio txikia egin du hango gizartean. Horra hiriaren beste bi bereizgarri. Horrek eragina izan du gizartearen desorekan, eta are zailagoak egin ditu bizikidetzarako eta giza harremanetarako baldintzak; orobat, bizikidetzeta baketsu sortzeko moduko kultur alderdiak sendotzea ere galarazi du. Eta bizikidetzeta baketsu hori beharrezkoa da garapenerako. Faktore horiek baldintzatuta hautatu zituen Bilgune Sareak orain arte Caquetá departamentuan garatu dituen proiektuak: «Kultur zine ibiltaria» (3 fase); «Gernika Bizikidetzeta Zentroa» (hiru fase); Emakumearen Etxeari laguntza; «Manoa: gazteentzako hezkuntza ludikoa bakearen aldeko kulturaren», eta «Garidka: Amazoniako lurraldean bizikidetzeta baketsurako balioak eta ekintzak indartzea».

Bilgune Sarearen harremana Rif eskualdearekin (Maroko). Azraf eta Gernikatik Mundura elkarteetan harremanetik jaio zen, 2004an Rif eskualdea astindu zuen lurrikararen ondotik. Hondamendiak eraginda, plataforma bat sortu zen EAetik kaltetutako ingurunera premiazko laguntza bideratzeko. Hortik aurrera, harreman sendoa sortzen hasi zen bien artean, eta elkarlan horri esker mamitu dira hezkuntza- eta sentikortze-proiektuak EAeko immigrazioarekin loturiko gaien gainean eta lankidetzeta-proiektuak Rif eskualdean. Gerora, Gernika Gogoratuz eta Ideasur proiektu horietara bildu eta hala sortu zen Euskal Herria-Rif taldea, 2007. urtean. Talde horrek hainbat forotan parte hartu du elkargarapenaren eremuan eta hainbat jardunaldi eta mintegi antolatu ditu. Zehazki, honako hauek:

- 2006-2008. Hika Ateneoak antolatutako Elkargarapenari buruzko Foroan parte hartu zuen modu aktiboan.
- 2007. Elkargarapenaren jardunaldiak antolatu zituen eta, besteak beste, etorkinek Gernikan eta munduan eragile aktibo diren aldetik zer eginkizun duten jorratu zen. Eta, zehazki, Rif eta Caquetáko kasuak aztertu ziren, besteren artean.
- 2008. Elkargarapenaren aukerei buruzko lan-jardunaldi monografikoa antolatu zuen Gatazka eta Ekintza Humanitarioei buruzko Ikerketen Institutuaren (IECAH) partaidetzarekin. IECAHk azaldu zituen, oro har, Maroko iparraldeko eta, zehazki, Alhucemas probintziako (Rif eskualdea) gizarte zibileko asoziazio-sareari buruz eginiko ikerketaren ondorio nagusiak. Pertsona eta elkarten artean trukeak egiteko aukera lan-ildo interesgarrienetako bat dela azpimarratzen da migrazio eta garapenaren arteko harremanaren baitan. Horregatik erabaki zen lan-ildo hori abiatzea Alhucemas (Rif), Caquetá eta Gernikara begira, eta hiru tokien artean elkarrekin lan egiteko eta elkarri laguntzeko gune bat finkatzea.
- 2007 eta 2008. Jatorriko inguruak (Rif, Caquetá) hobeto ezagutzeko indar egiten du bai eta inguru horien arteko trukea bultzatzeko ere, Bilgune Sareak eta Euskal Herria-Rif taldeak antolatutako jardunaldi, mintegi, eta abarretan.

Bi urte hauetan antolatutako jardunaldiak baliagarri izan dira erakundeentzat zer lankidetzamota egin nahi duten hausnartzeko, eta elkargarapena izan da gogoeta-prozesu horretan indartuta atera den lan-ildoetako bat.

Helburu nagusia: Gernika-Lumo, Alhucemas (Rif) eta Caquetáko gazteen artean elkartasuneko lokarriak sustatzea eta bultzatzea eta, horretarako, lehen topaketa bat egiteko aukera sortzea elkar ezagutu dezaten.

Helburu zehatzak

- Parte hartzen duten komunitateek bata bestearen gizarte- eta kultura-egoera zein den ezagutzeko aukera izatea.
- Gaztediak batean eta bestean dituen arazo, premia eta interes berberei buruz gogoeta egiteko topagune bat sortzea.
- Gazteen parte-hartzea eta gizarte- eta kultura-integrazioa sustatzea.
- Komunitate-jarduera bultzatzea, gazteentzat etorkizunerako gune bat izan dadin; subjektu sozial gisa beren burua erakitzeke eta beren bizi-proiektuak garatzeko gunea, hain zuzen.
- Proiektu komunak identifikatu eta lehen urratsak eman etorkizunean elkarrekin lantzeko.

Geografia-eremua: Rif, Caquetá, Gernika-Lumo.

Partaideak

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Gernika Gogoratuz, Gernikatik Mundura, Azraf eta Ideasur.
- Kolonbian: Komunitate Garapenerako Fundazioa, Haragi-produktuen Emakume Ekoizleen Elkarte eta Florencia-Caquetáko Piedrahita Auzoko Auzolan Batzordea.
- Maroko: Alhucemasko Emakumeen Forumak, Alhucemas Parke Nazionaleko Elkarten Sarea eta Ait Hdifa elkarteak.

Betetze-aldia

- I. fasea, prestakizunak: 2008.
- II. fasea: 2009 eta 2010.

I. fasearen emaitza moduan, hiru eremuen artean elkarrekin lankidetzan jarduteko proiektu bat identifikatu eta landuko da. Hiru izkina sarea sortu da horrela, Rif, Caquetá eta EAeko gaztedia batzeko.



Kolonbia-Euskadi etorkinen elkarteak: Ibagué eta Gasteiz artean zubiak eraikitzen

Gasteizen (Araba) bizi den kolonbiar talde baten ekimenez sortu zen Kolonbia-Euskadi Elkarteak 2003. urtean. EAEko bertako beste kide batzuen laguntza ere izan zuten.

Elkartearen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Kolonbia eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean adiskidetasun-lokarriak sortzea eta estutzea.
- Etorkinen biztanleria gizarteratzeko eta kulturarteko bizikidetzak sustatzeko ahalegina egitea kulturaren bitartez.
- Kolonbiako kultura mantentzea eta zabaltzea.
- Garapenerako proiektuak egitea Kolonbiako herriaren mesedetan.

Gaur egun, elkarteak garapenerako bi lankidetzak-proiektu gauzatzen ari da bazkideetako batzuen jaioterrietan. Elkarteko kideen ekimenez sortu dira bi proiektuak eta elkarteak bera ari da bere kabuz biak gauzatzen Kolonbiako bertako elkartekideekin batera.

1. Tierra Firme (Ibagué) auzoan arriskuen babesa eta murriztea

Bertako gobernua erantzukizunik eta ekimenik hartzen ez zuela ikusirik, jatorriz Tierra Firme auzoko elkartekide batzuek zer edo zer egiteko premia nabarmendu zuten, eta hori sortu zen ekimena.

Helburua: auzoa inguratzen duen zintzurko lokatz- eta harri-oldeek sortutako uholde-arriskua murriztea.

Betetze-aldia: 2007 (lehen fasea) eta 2008 (bigarren fasea).

Geografia-eremua: Ibagué (Kolonbia).

Ekintza-ardatzak:

- Auzoaren azpiegitura hobetzea: estolderia eraikitzea.
- Arroa basoberritzea eta garbitzea.

Azpiegitura hobetzeko lanak eta basoberritzeko eta garbiketako lanak auzoko bertako familiek egin dituzte.

Finantziak:

- Lehen fasea: Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia.
- Bigarren fasea: Gasteizko Udala.

Kolonbiako alderdia: Tierra Firme Elkarte Komunitarioa.

2. Ibaguéko Elkartasun Etxeak

Helburua: ama familiaburuen esku dauden etxeetako diru-sarrera handitzea.

Ekintza-ardatza: emakume eta familiaburu kolektiboaren artean produkzio-sare bat sortzea.

Jarduerak:

- Lanbide jakin batzuei (artisautza, okintza, ile-apainketa, zapatagintza, jantzigintza) loturiko bost mikroenpresa sortzea eskualde horretako langabezia-tasa kronikoari aurre egiteko eta alternatiba bat sortzeko.
- Emakumeei oinarrizko prestakuntza ematea enpresa martxan jartzeko eta kudeatzeko, *marketing*-erako eta merkaturatzeko.
- Produkzio-bitartekoak hornitzea (makinaria eta ekipoa, sargaiak eta muntaia-gastuak).
- Mikroenpresak sortzeari laguntza ematea eta jarraipena egitea, gutxienez urtebetean.

Onuradunak: 30 bat emakume gutxi gorabehera.

Finantziarioa: Arabako Foru Aldundia.

Kolonbiako alderdia: G&D Garapen eta Kudeaketa Kooperatiba.

Betetze-aldia: 2008.

Era berean, Kolonbia-Euskadi Elkarteak jatorriko eta helmugako hainbat eragileren artean (instituzio, elkarte, enpresa...) lokarriak sortzea bultzatu eta lagundu du 2008an:

- Jatorriko eta helmugako erakundearen arteko topaketa: Ibaguéko Alkatetza eta Gasteizko Udala. Hortik sortu da lehen lankidetzak-hitzarmena sinatzeko akordioa eta etorkizunean bi udalerrak senidetzeko aukera.
- Jatorriko eta helmugako gobernuko eta gobernu kanpoko eragileen topaketa: Tolimako enpresariaren bi elkarte (Tolimako Garapenerako Elkarte eta Garapenerako Eskualde Elkarte), GGKE bateko ordezkari bat, kooperatiben sektoreko ordezkari bat eta Ibaguéko Merkataritza Ganberako ordezkari bat bildu ziren EAeko erakundeetako hainbat ordezkariarekin; besteak beste, Arabako Diputazioko, Eusko Jaurlaritzako, hainbat GGKE-etako eta kooperatiba sektoreko ordezkariarekin eta Arabako zenbait enpresariarekin.



Immigranteen laguntzarako GKE-etako abiatutako ekimenak

Elkargarapeneko proiektuak martxan jartzeko elkarte batek indarra eta sendotasuna behar du, eta, aurrez agerian geratu da etorkinen elkarte gehien-gehienek falta dutela sendotasun instituzional hori. Horren ondorioz, lehen-lehenik etorkinen asoziazio-mugimendua sendotu behar da, elkarte horiek elkargarapeneko ekimenetan sartzeko aukerarik izango badute. Alde horretatik, immigranteen laguntzarako GKE-ek eginkizun garrantzitsua betetzen dute elkargarapeneko prozesuak sortzen; hala egiten du, esaterako, Ignacio Ellacuria Gizarte Gunea, etorkinek eta kolektibo mistoek eratutako elkarteak indartzeko programaren bidez.

Elkargarapeneko prozesuak sortzeko esperientzia: etorkinen elkartegintza indartzea

Ignacio Ellacuria Gizarte Gunea 2006an eratu zen, Bilbon. EAEn eta zehazki Bizkaian ematen ari zen migrazio-fenomenoaren egoerari buruz azterketa eta gogoeta egin ondoren sortu zen, hain zuzen, gune hori. Esku-hartze sozialaren eta/edo garapenerako lankidetzaren eremuan diharduten beste erakunde batzuekin batera egin zen hausnarketa hori; hala nola, Alboan eta Bizitza Kristaua Komunitatea (CVX) erakundeekin. Prozesu horren emaitza izan zen Ellacuria Gizarte Gunearen sorrera. Hain zuzen, kulturarteko gizarte bat sustatzeko helburuarekin jaio zen gunea. Etorkinekin eta etorkinen elkarteekin izandako hartu-emanak eta haiei emandako laguntzak aukera eman zuen immigrazioaren eremuan zer behar dauden eta zer lan-ildo hartu beharko liratekeen identifikatzeko. Proposatutako ildoetako bat izan zen, hain zuzen, etorkinen asoziazio-mugimendua indartzea. Parte-hartze programaren baitan jasotzen da ildo hori eta helburua da, lagunduz eta ondoan egonez, etorkinen elkartei beharrezko tresnak ematea erakunde gisa garatzeko, botereaz jabetzeko eta autonomia izateko aukera izan dezaten. Horretarako, honako ardatz hauek planteatzen dira:

- **Kudeaketan aholkularitza** ematea: elkarteren barne-dinamika lantzea, barne-komunikazioari eta asoziazioaren eta informazioaren kudeaketari begira elkarteren beraren prozesuetan laguntza emanez.
- **Aholkularitza tekniko-administratiboa** egitea: proiektuak formulatzea, lantzea, aurkeztea eta justifikatzea.
- **Azpiegitura eta bitarteko teknikoak** jartzea elkarteren lana egiteko.
- Beste elkarteekin **sareko lana egiten** laguntzea eta sustatzea, bakoitzaren interesen arabera.

Gaur egun, Ignacio Ellacuria Gizarte Gunea hogeitabi elkarterekin dago hartu-emanetan. Jatorri askotakoak dira elkarte horiek: Saharaz hegoaldeko Afrikakoak, Afrika iparraldekoak eta Latinoamerikakoak. Elkarte horietatik hamar, hitzarmen baten bidez daude Gizarte Gunearekin loturik; elkarte horiek indartzeko harremana zehazten da hitzarmen horretan. Elkarteak indartzeko dinamika hori epe luzerako prozesua denez, programa horretan abiatu ziren elkarte gehienek oraindik ere jarraitzen dute zentroaren laguntza jasotzen. Laguntza hori elkarte bakoitzaren ezaugarri eta dinamiken arabera da, eta aurrez aipatutako hitzarmenean zehazten da nolakoa izango den. Hitzarmena bera urtero berriro daiteke.

Zein dira Ignacio Ellacuria Gizarte Guneak epe luzera bete nahi dituen behar zehatzak eta helburuak?

Kontuan izan behar da elkarteen esperientziak oso desberdinak direla bata bestearen aldean eta faktore askok baldintzatzen duela elkarte bakoitzaren heltze- eta autonomia-prozesua. Besteak beste, jatorrian aurrez izandako asoziazio-esperientziak, elkarteko kideek helmugako herrialdean bizitzen daramaten denborak, finantziarioa eskuratu izanak edo ez, eta abarrek.

Kontuan izanda Gizarte Gunea eta programa sortu berriak direla eta elkarte bat sendotzeko denbora dezente behar dela, oraindik ere ez da asoziazioa indartzeko prozesurik erabat itxi programan parte hartzen duten elkarteen artean. Era askotako arazoak sortzen dira bidean; elkarte bakoitza eta bere prozesua nolakoak diren, modu bateko edo besteko arazoak izaten dira. Hauek dira horietako batzuk:

- Elkarte batzuetan, **adierazitako helburuak ez datoz bat eguneroko bizimoduan elkarteko kideak mugiarazten dituztenekin** (nork bere buruari bultzada ematea, lan aldetik aukerak eta onurak, etab.). Hasiera batean, horrek zaildu egiten du laguntza emateko eta indartzeko lana, hariak eta elkartearen eta elkarteko kideen helburuak eta itxaropenak argitzen diren arte.
- Oro har, berriki sortutako elkarteek gizarte-oinarri txikia dute iraunkortasuna bermatzeko: ideia eta proposamen oso oneko elkarteak izan ohi dira baina baliabide mugatuekin, eta horrek nekezagoa egiten du proiektuak eta jarduerak gauzatzea.
- Gehienetan, elkarteek **zaila egiten zaie burokrazia eta administrazio aldetik dirulaguntzen funtzionamendua ulertzea** eta eskatutako baldintzak betetzea. Era berean, gaztelania ez, baizik eta beste hizkuntza bat duten pertsonen osatutako elkarteetan, beste hizkuntza batean ulertzeko eta adierazteko zailtasuna gehitu behar da.
- Beren ekintzak eta jarduerak egin ahal izateko **espaziorik ez edukitzea** izaten da elkarte horien beste ohiko zailtasunetako bat.

Programa horrek toki-mailako administrazio publikoaren laguntza eta finantziarioa jasotzen du. Aldi berean, lankidetzeta estua sortu da Ignacio Ellacuria Gizarte Gunearen eta Bilboko eta Getxoko Udaleko Immigrazio teknikarien artean. Erakundeen arteko harreman hori oinarri hartuta, 2007an, udal horien finantziarioa eskuratzeko asmoa izan eta laguntza tekniko behar izan zuten etorkinen elkarteak Gizarte Gunearen elkartegintza indartzeko programara bideratu zituzten Immigrazio eta/edo Gizarte Zerbitzuetako sailetatik.

Udal erakundeetatik ez ezik, migrazio-prozesuetara loturiko beste GKE batzuen bitartez edo zentroaren beraren zerbitzuak ezagutarazteko beste mekanismo batzuen bidez ere —web-orria, esaterako— iristen dira elkarteak Gizarte Gunearen baliabide horretara.

Ignacio Ellacuria Gizarte Guneak zeharka laguntzen du elkargarapenaren ildoan. Lankidetzeta-proiektuen bidez edo politikaren ildoan eraginez beren jatorriko herrialdeekin lotura sortzea bilatzen duten etorkinen elkarteek laguntzen dien heinean, elkargarapena laguntzen ari baita zeharka. Gaur egun, elkarteak zabalik dauka ikerketa-ildo bat Alboan GGKEarekin elkarlanean. Hegoaldearen garapenari buruzko ikuspegia eta etorkinen elkarteek hemendik egiten dituzten elkargarapeneko ekintzak batzea du helburu ikerketa-ildo horrek.



Administrazio publikoetako eta erakunde pribatuetako abiatutako ekimenak

Administrazio publikoaren egitekoa da etorkinen elkarteen bidez eta garapeneko eta immigranteen laguntzarako GKE-en bidez baliabide ekonomikoak bideratzea elkargarapeneko ekimenak gauzatzeko. Ordea, eginkizun horretatik harago, nabarmentzekoa da Bizkaiko erakunde publikoek Bilbao Bizkaia Kutxarekin batera zuzenean sustatutako ekimen bat. Administrazio publikoak abiatu eta sustatutako ekimenak «goitik» bultzatutako elkargarapenaren ikuspegiaren sartzen dira; izan ere, GGKE-ek eta etorkinen elkarteek ekimen horietan parte har dezaketen arren, sortu, ez dira sortu oinarriko gizarte-mugimenduetan.

Ekimen publiko-pribatua: «Antioquia-Medellín, Bizkaia-Bilbo» erakunde-arteoko programa

Ekimen hau aitzindaria da Bizkaian, erakunde publiko eta pribatuak sarean lankide zuzen izan direlako aurrenekoz. Bizkaiko erakundeek garapenerako lankidetzaren alde luzaroan agertutako konpromisoari jarraipena emateaz gain, programa horrek erantzun egiten die gaur egungo erronkei, tokiko gobernantza, herritarren parte-hartze eta jakintzen erakunde-arteoko truke handiagoa lortzeko eta, horren bidez, herri horien garapen integrala iristeko bidean urratsak emateko.

Proiektuaren helburua: gizarte-, hezkuntza- eta ekonomia-garapenerako aukerak sortzen laguntzea, horrela Medellingo 8. eta 9. komunetako eta Antioquia departamentuko Iparraldeko eta Mendebaldeko beste sei udalerritako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko.

Geografia-eremua: Antioquia (Kolonbia).

Betetze-aldia: 2008-2011.

Erakunde partaideak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Bilbao Bizkaia Kutxa, Hegoa (Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua).
- Kolonbian: Antioquiako Gobernua, Medellingo Udala, Antioquiako Unibertsitatea.

Ekintza-ardatzak:

- Gizarte, hezkuntza eta ekonomiaren toki-mailako garapena.
- Giza eskubideen defentsa.
- Genero-zuzentasuna eta emakumeak botereaz jabetzea: garapena ezinezkoa da genero-zuzentasunik gabe. Funtsezkoa da emakumeen gaitasunak indartzea, eta, horretarako, gizonen aldean gizartean, politikan eta eremu pertsonalean daukaten lekua eta egoera hobetu behar da, era horretara hainbat baliabide eskuratzeko modua izan dezaten.

Finantziarioa: Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Bilbao Bizkaia Kutxa.

Jada martxan diren prozesuak laguntzea, hori da «Antioquia-Medellín, Bizkaia-Bilbo» programaren ikuspegiaren oinarria, eta ez beste lan-ildo batzuk zabaltzea eta kudeaketarako egitura berriak sortzea. Horren harian, 2008-2011 urte anitzeko plana landu da finantzia-ziorako. Plan hori urteko plan operatiboetan zehaztuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Bilbao Bizkaia Kutzak funtsean bi arrazoirengatik ekin diote bide berri horri: batetik, aurrez ere ezagutzen zituztelako Antioquiako eta bereziki Medellín hiriko erakundeak —Medellín eta Bilbo senidetuta daude— eta, bestetik, Antioquiako Gobernuak eta Medellingo Alkatetzak gaitasuna eta esperientzia dutelako nazioarteko lankidetzak babestutako proiektuetan.

Gainera, Bizkaiko etorkinen artean kolonbiarrena da kolektibo jendetsuenetako bat eta, horrenbestez, erakunde-arteko lan-esparru horrek erraztu egin dezake etorkizunean elkarrekin landutako lan-ildoen artean elkargarapeneko jarduerak gauzatzea. Izan ere, programa hori Antioquiako eta Bizkaiko erakunde publiko eta pribatuek bultzatu arren, beste eragile batzuen parte-hartzea eta laguntza bilatuko da bi lurraldeetan, modu horretara programaren edukiak aberasteko, zabaltzeko eta dinamizatzeko.

Programa horretan erakunde laguntzaileetako bat da Hegoa elkarte (Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua). Aholkularitza teknikoa emateaz eta martxan jarritako proiektuen segimendua egiteaz arduratzen da. Lehen unean, eragileak identifikatzea eta proiektuen plangintzan laguntza teknikoa ematea izan da batez ere elkarrearen egitekoa.



Elkargarapeneko berezko ekimenak

Orain arte, antolatutako gizarte-taldeetatik eta erakunde formaletatik sortu diren elkargarapeneko ekimenak aipatu ditugu. Alabaina, etorkinek beren kabuz sortzen dituzte elkartasuneko eta elkarrekiko loturak beren jatorriko familiekin. Alde horretatik, berezko elkargarapena aipa liteke (Malgesini eta beste batzuk, 2007). Elkargarapeneko berezko ekimen horien oinarria dira etorkinen eta haien familien arteko ahaidetasun-loturak. Azterlanean esku hartu duten etorkinen artean bidalketak dira nazioz gaindiko jarduera ohikoena.

- ▶▶ **Bidalitako diru-kopurua** hilean 100 eta 400 euro artean izaten da, edo jasotako diru-sarreraren %10 eta %50aren artean. Familia mantentzeko eta oinarrizko premiak asetzeko (hezkuntza, elikadura, jantziak, osasuna...) bideratzen da diru hori, eta, kasu batzuetan, produkzio-inbertsioren baterako (etxebizitza bat eraikitzeko edo erosteko eta itzultzea prestatzen ari diren senide edo pertsonentzat negozio bat zabaltzeko).
- ▶▶ **Bidalitako diruaren maiztasuna** pertsona bakoitzaren egoeraren araberakoa da. Hel-mugako herrian senitarteko zuzenak mantendu beharrik ez bada, hasieran bidalketak etengabeak izaten dira, migrazio-bidaia egiteko eragin den zorra ordaintzeko eta, ondoren, jatorriko familia zuzena mantentzeko. Behin familia berriro elkartzea lortzen denean, noizean behin egiten dira bidalketak (urtean behin edo lau aldiz) eta dirua familiako beste kide batzuei edo lagunei igortzen zaie gai jakinagoetarako (gaixotasunak edo ezusteko beharrak).
- ▶▶ **Dirua bidaltzeko moduak** aldatu egin dira denborarekin. Hasiera batean, bidalketarako enpresak eta mintzalekuak (lokutorioak) erabiltzen hasi ziren etorkinak. Alabaina, gaur egun bankuek eta aurrezki kutxek zerbitzuak eskaintzen dituzte bidalketak egiteko eta horietara jotzen dute askok. Erakunde horiek gero eta interes handiagoa dute etorkinen artean bezeroak berenganatzeko. Eta bestelako sareak ere erabiltzen dituzte (jatorrira bidaiatzen duten konfiantzazko pertsonak) senitartekoei dirua bidaltzeko.

▶ Euskal Autonomia Erkidegoan elkargarapena eraikitzeko bidean aurrera egiteko gomendioak

Elkargarapeneko prozesuan aurrera egiteko beharrezkoa da denentzat esku hartzeko marko estrategikoa zehaztea, eragile guztiek onartuko dutena eta eragile horietako bakoitzaren ikuspegi zehatzak jasoko dituen, alor horretako esku-hartzeak aberaste eta osatze aldera. Jarraian, hainbat eragilek egindako analisitik atera diren gomendio batzuk azaltzen dira.

Etorkinen elkarteak

- ▶▶ Elkargarapenean parte hartu nahi duten etorkinen elkarteek **gogoeta-prozesua** egin behar dute, beren elkarteetan bertan eta etorkinen beste elkarte batzuekin eta GGKE batzuekin batera, garapenerako zer eredu jarraitu nahi duten beren ekintzetan. Horretarako, migrazio-fenomenoari buruzko analisia egin behar dute migrazioen egiturazko arrazoietan (ekonomikoak, sozialak eta politikoak) arreta jarrita, bai eta pobrezia-

eta garapen-prozesuei buruzko analisia ere, hala mundu mailan nola beren jatorrian. Gogoeta horren bidez garbi atera behar dute zer egin nahi duten, zergatik eta zer helbururekin, nola eta zein eragilerekin. Horrek ekarriko luke, alde batetik, elkarte horiek garapenerako baliozko eragile gisa aintzat hartzea eta, bestetik, lan-sareak zein eragilerekin sor daitezkeen hobeto identifikatu ahal izatea.

- ▶▶ Ezinbestekoa da etorkinen elkartei **laguntza tekniko**a ematea lankidetzaproiektuak formulatzeko eta gauzatzeko eta, orobat, nahitaezkoa da proiektu horiek kudeatzeko prestakuntza eta gaitasuna ematea.
- ▶▶ Etorkinen elkarteek elkargarapeneko proiektuetan parte hartzen badute, jatorriko komunitateen **behar kolektibo**i erantzuteko izan behar du, eta ez elkarte talde liderraren interes eta behar partikularrei erantzuteko.

Garapeneko eta immigranteen laguntzarako GKEak

- ▶▶ **Etorkinen asoziazio-mugimendua indartzeak** lehen urratsa izan behar du elkarteek elkargarapeneko ekimenetan sartzeko modua izan dezaten. Alde horretatik, immigranteen laguntzarako GKEak —esaterako, Ignacio Ellacuria Gizarte Guneak— oso eginkizun garrantzitsua betetzen dute ekimen horiek sendotzeko bidean.
- ▶▶ **Etorkinen elkarten eta GGKE-en artean bestelako gizarte-aliantzak eta antolakuntzakoak sortzea** beharrezko begitantzen da etorkizunari begira. Horrenbestez, batzuk eta besteak orain arte zeuden konpartimentu itxiak ireki eta elkarrekin lan egiteko dinamikak sortu beharko liriateke. Elkarlan hori bereziki garrantzitsua da elkargarapenerako; izan ere, etorkinen hainbat elkarte adierazi dute interesa eta konpromisoa beren jatorriko herriak garatzeko eta, era berean, jakinarazi dute zer-nolako zailtasunak aurkitu dituzten beren elkarteetatik modu autonomoan garapen horren alde lan egiteko. Elkarlan horretarako, lehenik eta behin garrantzitsua da jakitea zein diren sarean lan egiteko zailtasunak, modu horretara gune partekatu bat sortzeko bidean ekintzak proposatzeko. Gune partekatu hori abiatzeko, berriz, oinarri nagusi bat legoke: eragileen arteko harremanak horizontalak izatea.

Erakunde publikoak

- ▶▶ Premiazkoa da etorkinen **bizikidetz**a, **integrazio** eta **autonomia pertsonalerako prozesuak laguntzeko** lan egitea, etorkinak eskubidedun subjektutzat harturik; eta, beharrezkoa da, halaber, marjinalitate-poltsak desegitea. Horretarako, lehen urratsa da toki-mailako administrazio publikoek immigrazioko tokiko plan bat izatea eta teknikari espezializatuak izatea, helburu horri begirako ekintzak martxan jarriko direla bermatzeko.
- ▶▶ Beharrezkoa da **zeharkako dinamikak indartzea**, arlo instituzionalen eta immigrazio eta lankidetzazinegotzien arteko koordinazioa bermatzeko, era horretara elkargarapeneko ekintzak osagarriak izan daitezen immigrazioko eta garapenerako lankidetzak ekintzekin, eta ez bata bestearen baztertzailak edo kontrakoak. Horretarako, garbi zehaztu behar da arlo bakoitzak elkargarapenean zer eskumen duen.
- ▶▶ Komeni da **immigratioari buruzko tokiko planetan migrazioen nazioz gaindikodimentsioa jasotzea** eta, beraz, etorkinaren betiko ikuspegia gaintzea; bizimodua bizi den lekuan baino egiten ez duen pertsonaren ikuspegia, alegia. Etorkinen gizartratzea hertsiki loturik dago beren familiekin eta jatorriko gizarte-sareekin lokarriak sortzeko eta mantentzeko izan ditzaketen aukerekin. Beraz, integrazio-politikan



nazioz gaindiko gizarte-sareei eusten laguntzeko ekimenak jaso behar dira; izan ere, sare horiek, aldi berean, lagungarri izan daitezke etorkinek beren jatorriko herriak garatzeko konpromisoa izan dezaten.

- ▶▶ Garrantzitsua da etorkinen **elkarrekin eremu publikoan benetan parte har dezaten errazteko toki-mailako egiturak** sortzea eta, horretarako, egitura horien formak eta dinamikak etorkinen bizi-egoerara eta elkarrekin ezaugarrietara egokitzea.
- ▶▶ **Finantza-babesa sortu behar da elkargarapeneko proiektuetarako** eta baliabideak jarri behar dira proiektu horiek gauzatzeko aukera egon dadin. Horrek eskatzen du dirulaguntza-ildo zehatz bat sortzea elkargarapenerako eta, era berean, irizpide espezifikoak zehaztea elkargarapeneko proiektuetarako.

Finantza-erakunde pribatuak

Erakunde pribatuek etorkinen populazioari zuzendutako zerbitzuen eskaintza onuragarri izan daiteke jatorriko herrien garapenerako; esaterako, hauek:

- ▶▶ **Bidalketak** murriztea eta merkatzea elkargarapeneko proiektuen esparruan.
- ▶▶ **Etorkinentzat aurrezki-ildo espezifikoak** garatzea bidalketa pribatuen zati bat bideratzeko, errentagarritasun eta eskuragarritasun baldintza bereziekin, jatorriko herrialdean ekonomia-proiektuetara.
- ▶▶ **Mikrokredituen** eskaintza, produkzio-jarduerak gauzatzeko jatorriko gizartean.

▶ **Sareko lana: gune partekatu baterantz bidea egiten**

Elkargarapeneko jarduerak agerian uzten dute zein garrantzitsua den eragileek sarean lan egitea eta beren arteko interdependentzia eremu horretan esku-hartzeak egin ahal izateko. Alde horretatik, lehenik eta behin garrantzitsua da jakitea zein diren sarean lan egiteko zailtasunak, modu horretara gune partekatu bat sortzeko bidean ekintzak proposatzeko. Gune partekatu hori abiatzeko, berriz, oinarri nagusi bat legoke: eragileen arteko harremanak horizontalak izatea.

Egunerokoak erakusten du bertako elkarrekin dutela presentzia eta parte-hartze handiena immigrazioaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan sortutako sare eta foro formaletan. Logikotzat har daiteke, elkarrekin horietako askok ibilbide luzea eta lan-esperientzia handia dutelako. Aldiz, kontuan izan behar da koordinazio lan orok berez dituen zailtasunak gain, migrazio-fenomenoari eta etorkinen asoziazionismoari loturiko beste oztopo batzuk ere badirela:

- 💡 **Kultura-diferentziak** eragina du etorkinen elkarrekin eta bertako elkarrekin arteko sareko lanean. Gure gizarteko kultura-aniztasunak berekin dakar elkarrekin artean lan-kultura desberdinak sortzea (funtzionatzeko dinamika eta lan-eritmoak, konpromisoak onartzea, asoziazionismoa ulertzeko moduak, etab.). Eta elkarrekin beharrezkoa dute elkar ulertzea eta elkarrekin moldatzea.
- 💡 Etorkinen elkarrekin **lan-sareetara** biltzeak **exijentzia** handia du eta elkarrekin askok ezin dute bete, hainbat arrazoi dela medio: elkarrekin asko, gazteak direlako oraindik (hazkunde fasean daude), sendotu gabe daude, langile liberaturik ez dago edo oso gutxi, elkarrekin osatzen duten kideen egoera pertsonala (beren lan-arazoak gainditu behar dituzte...).

💡 **Sare eta foroetan indarrean diren diskurtsoak** bertako elkarteetatik datoz nagusiki, eta horrek eragina izan dezake etorkinen elkarteek sare horietan parte hartzeko erabakian. Horri gehitu behar zaio hizkuntza oso teknikoa eta espezializatua erabiltzen dela, eta gaztelaniaz mintzo ez diren pertsonentzat ulertzeko zaila izan daitekeela.

Begien bistakoa da etorkinen elkarten eta garapenerako eta immigranteen laguntzarako GKE-en artean aldeak daudela giza baliabide eta ekonomia-baliabide aldetik. Eta horren eraginez, GKE horiek protagonismo handiagoa bereganatzen dute. Hori ez da kaltegarritzat hartu behar, betiere protagonismo horrez gain etorkinen asoziazionismoa indartzeko eta laguntzeko lana ere egiten badute. Lan hori epe luzerako estrategiaren baitan egin behar-ko litzateke, eta estrategia horrek eragile guztien interes eta beharretara egokitutako gune eta dinamika osagarriak sortzea aurreikusi beharko luke. Alde horretatik, badira bete beharreko hainbat baldintza gune eta dinamika, horien sorrera arrakastatsua izateko:

- ◉ Aspaldidanik garapenerako lankidetzan diharduten eragileek (GGKE eta erakunde publikoak) onartu egin behar dute etorkinen **elkarten balio erantsia**, jatorriko herrialde eta tokietan bizi-baldintzak zein diren ezagutzen dutelako, bai eta etorkinek eraturako **nazioz gairako gizarte-sareen balioa** ere, sare horiek jatorriko komunitatearekiko komunikazioa eta harremana errazten dutelako.
- ◉ Garapenerako lankidetzan diharduten betiko eragile horiek onartu egin behar dituzte **etorkinen elkarteak solaskide eta eragile baliozkotzat elkargarapenerako proiektuetan engaiatzeko eta parte-hartzeko**. Horretarako, garrantzitsua da etorkinen elkarteetatik beretatik jaiotako proposamenak aintzat hartzea; hau da, sarean egindako lanak ez luke tresna huts izan behar betiko eragileen interesek bultzatutako proiektuak gauzatzeko. Garrantzitsua da hori; izan ere, garapenerako betiko eragileek, gaian duten esperientzia eta profesionalizazioagatik, pentsa dezakete beharrezkoa dela etorkinei eta haien elkarteei «erakustea» garapenerako lanak nolakoa izan behar duen eta haien jatorriko komunitateentzat onena zer den. Eta uste hori ez da zuzena.
- ◉ Garapenerako lankidetzan diharduten betiko eragileek lagundu egin behar diete etorkinen elkarteei lankidetzaren eremuan **finkatutako gune eta funtzionamendu-dinamikan sartu** nahi badute. Eta, aldi berean, jarrera irekia izan behar dute lehendik daudenez gain **bestelako gune eta dinamikak sortzeko**.

3. Galdera nagusiak



Elkargarapenari eta garapenerako lankidetzak tradizionalari buruz

1. *Elkargarapenak bertan behera uzten du edo baztertu egiten du garapenerako lankidetzak tradizionala?*

Elkargarapena esku hartzeko tresna osagarria eta aldi berekoa da garapenerako lankidetzak tradizionalarekiko. Ez dira ez kontrakoak eta ez elkarren baztertzailak; aitzitik, elkar lagundu eta osatu dezaketen aukerak planteatzen dituzte. Hutsegite izugarria litzateke pentsatzea elkargarapenak ordezkatu egin behar duela garapenerako lankidetzak tradizionala —hala uste dute zenbait erakunde—; izan ere, garapenerako lankidetzak-politikek inoiz baino indar handiagoa dute gaur egun. Elkargarapena, migrazio eta garapenaren arteko sinergien adierazpidea den aldetik, garapenerako lankidetzak-politiken estrategia ugarien artean beste bat da; eta, aldi berean, elkargarapeneko ekintzak, beste eragile eta prozedura batzuk integratzen dituzten heinean, garapenerako lankidetzaren tresnatzat ere har daitezke.

2. *Zer alde dago garapenerako lankidetzaren eta elkargarapenaren artean?*

Elkargarapenak osagai aparteko batzuk gehitu behar ditu, betiko lankidetzak-proiektuetan esku hartzen dutenen aldean bestelakoak; eta migrazioak eta etorkinak ez dira osagai bereizgarri bakarrak. Hau da, elkargarapeneko proiektuetan beharrezkoa da eragile-sare zabaldu batek parte hartzea, bai jatorrian eta bai helmugan (etorkinen elkarteak, garapenerako GKEak, tokiko administrazio publikoa, erakunde pribatuak...); eta, halaber, beharrezkoak dira esku hartzeko prozedura eta estrategia zehatzak, etorkinen beren konpromiso aktiboak sortzeko eta haien parte-hartze bizia hauspotzeko estrategia eta prozedurak. Aldi berean, horizontaltasuna bermatu behar da jatorrian eta helmugan diharduten eragile guztien arteko harremanetan; berez, horizontaltasun hori errazagoa da arlo horretako ekintzen nazioz gairatutako izaeratik. Elkargarapenak, beraz, jatorrian eta helmugan berrelikatzen diren prozesuak eta harremanak sortzeko aukera zabaltzen du, baina horretarako, beharrezkoa da, etorkinak berak errespetuz onartzea eta haien parte-hartze aktiboa. Horregatik, ezinbestekoa da integrazioa zein garrantzitsua den jabetzea: etorkinen gizartratzea funtsezkoa da elkargarapeneko politiketan, bai eta beste eskailera-maila bat ere ohiko lankidetzak aberastu ahal izateko.



3. *Zergatik da garrantzitsua elkargarapenean nazioz gaindiko ikuskera izatea?*

Etorkinak nazioz gaindiko eragile berrizat hartu beharraren premiaz ohartarazten du elkargarapenak, eta etorkinak mugez gaindi sortzen dituen lotura eta harremanetan jartzen du arreta. Hori dela eta, elkargarapena ezin da ulertu migrazioen nazioz gaindiko dimentsiorik gabe; izan ere, etorkinek ez dute bizimodua soilik bizi diren tokian egiten. Nazioz gaindiko izaera horretatik abiatuta etorkinak ulertzeko ikuskera aldatzen hasi da: dinamikoki elkarri loturiko bi mundu edo gehiagotako kideztat hartzen dira, eta nazioz gaindiko migrazioak, berriz, etorkinek egin eta mantendutako prozesutzat. Horrek guztiak lotu egiten ditu finkatu diren bizitokiak eta jatorriko herriak (Cortés, 2006: 8). Beraz, transnazionalitateak agerian uzten du emozio, familia, ekonomia, politika eta kultura aldetik etorkinek loturak mantentzen dituztela beren jatorriko gizarteekin, eta lotura horien eskutik gizarte-eremu bat sortzen dela; eremu horren bitartez, berriz, ideiak, baliabideak, ezagutzak eta abar trukatzen dira. Etorkinen nazioz gaindiko bizimoduak auzitan jartzen du gizarteratze-eredu asimilatzailea; izan ere, eredu horren arabera etorkinak ez du loturarik jatorriko gizartearekin. Tokiko integrazio-politikan horregatik eduki behar da aintzat migrazioen nazioz gaindiko dimentsioa, etorkinen eta haien jatorriko herrien harremana errazteko. Harreman horiek funtsezkoak dira etorkinen artean elkargarapena sortzeko.

4. *Zein da funtsezko edo ezinbesteko baldintza elkargarapena izateko?*

Immigrazioa eta etorkinak berak ez dira bilgailu huts bat, magia ukitu batez, betiko lankidetzajarduerak elkargarapen bihurtzeko eta, horrela, hobeto saldu ahal izateko; aitzitik, alor horretan martxan jarritako edozein ekimenetarako egiturazko osagai oinarritzko eta funtsezkoak dira. Batzuetan, ordea, ahaztu egiten da hori. Alabaina, aztergai dugun immigrazioa ez da aipamen generiko soil, baizik eta lan-tresna garrantzitsua ekintza bakoitzean gauzatuko diren diagnosiak, proposamenak eta esku-hartzeak erabakitzeko. Baina, oroz gain, proposatutako transformazio-prozesuak moldatzeko tresna izan behar du immigrazio horrek, *inputak* eta *outputak* elikatzen esku-hartze osoan zehar, hasieratik bukaerara. Baina etorkinek ere esku hartu behar dute proposamenak identifikatzeko, antolatzeko, betetzeko eta azken balorazioa egiteko prozesuan, ez modu pasiboan edo lekuko soil izanez, baizik eta betearazle zuzen izanez baizik, modu bateratuan edo beste elkarte eta/edo erakundeekin adostasunean. Betiko lankidetzaproiektuetan aplikatzen diren prozesu, dinamika eta harremanen aldean guztiz bestelakoak eskatzen ditu horrek guztiak.

5. *Etorkinak igortzen dituzten herrialdeetan gauzatzen diren garapenerako lankidetzak ekimen eta ekintza guztiak elkargarapena dira?*

Inondik inora. Batzuetan, uste da aski dela etorkinak bidal ditzaketen herrialdeetan garapenerako lankidetzak ekimenak burutzea, bere horretan, ekimen horiek elkargarapen

bihurtzeko. Areago, proiektua lantzeko faseren batean etorkinak egote hutsa baldintza nahikotzat jotzen da. Ordea, migrazio-prozesuak eta etorkinak ez dira elkargarapenaren justifikazio soilak; aitzitik, esku-hartzearen egitura guztia finkatzen den oinarriak dira. Hala da, erabat ezinbestekoa da etorkinek prozesu osoan parte hartzea, beste eragile eta prozedura batzuekin batera.

6. Elkargarapen guztiak izan behar du halabeharrez finantziarioa edo dirulaguntza?

Inondik inora. Elkargarapeneko jarduerak eta ekimenek, elkargarapeneko izateko eta horien helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko, ez dute halabeharrez dirulaguntza publikorik edo pribaturik izan behar. Areago, hamarkada batzuetatik hona, etorkinen hainbat talde antolatu dira garrantzia txikiagoko edo handiagoko ekimenak martxan jartzeko beren jatorriko eskualdeetan eta komunitateetan, eta antolatze hori berezkoa izan da, elkartasunezko eta konpromisozko adierazpide pertsonala beren herrikide eta familien garapena eta bizimodua hobetzeko. Begien bistakoa da finantziarioak aukera ematen duela ekimen garrantzitsuak abiatzeko, baina hori baino inportanteagoa da zer egoeratan esku hartu nahi den zuzen identifikatzea, arrazoien diagnosi egokia egitea, zein prozesuren gainean eragin nahi den finkatzea eta zer aldaketa egin nahi den zehaztea. Hori guztia lortzeko, berriz, zehatz-mehatz jakin behar da zein diren premiazko bitarteko teknikoak, materialak eta humanoak. Horrek guztiak eskatzen du esku-hartzearen faseak behar bezala mugatzea, esku hartuko duten eragile bakoitzaren eginkizunak zehaztea, komunikazio irekia eta parte-hartzezkoa edukitzea guztiekin, prozesu osoa ondo formulatzea eta zer bitarteko beharko diren zehatz-mehatz finkatzea. Bitarteko horietako batzuk eskueran izango dira jada eta beste batzuk lortu egin beharko dira. Puntu horretan, etorkinek eta beren elkarteek behar beste gaitasun dute beren kabuz ekimenak bultzatzeko; hainbat hamarkadatik hona etorkinen komunitate batzuk hala xe egiten ari dira berez.

Aitzitik, finantziatutako proiektu askotan, prozesua justu kontrakoa da: proiektua lortu nahi diren kopuruetara egokitzen da, eta horrek sortzetiko okerra eragiten du eta esku-hartze osoa baldintzatzen. Erakunde batzuk etorkinen elkarteetara bertara joatea eta elkargarapenaren izenean dirua eskaintzea, neurri batean prozesu hori galbideratzea da. Ukaezina da hori. Izan ere, proposamen artifizialak behartzen dira, aurreko lanik batere egin gabe; eta, orain arte azaldutakoa ikusirik, erabat funtsezkoa da aurretiazko lan hori.

7. Garapeneko zein eredutan sartu behar dira elkargarapeneko proiektuak?

Elkargarapenaz interpretazio eta erabilpen interesatu anabasa egiten da, eta nahas-mahas hori gainditzeko modurik egokiena da giza garapeneko eredu batean sartzea. Izan ere, eredu horrek aukera ematen du elkargarapena-itzulera asoziazio hain zabaldu horretatik aldentzeko (itzulera migrazio-fluxuak kontrolatzeko neurri gisa ulerturik) eta migrazioa oinarritzko giza eskubidetzat onartzeko, bai eta etorkinek beren helmugako



eta jatorriko herrialdeetan egiten dituzten ekarpen ekonomiko, sozial, kultural, politiko eta bestelakoak onartzeko ere. Giza garapeneko ereduak ekitatearen alde egiten du apustu, hori du bereizgarri, eta ekonomia-hazkunderaz gain beste hainbat adierazle hartzen ditu garapena islatzeko. Hain zuzen, giza garapena da pertsonen aukera eta gaitasunak zabaltzeko prozesua; horrela jasotzen da Nazio Batuen Garapenerako Programan. Prozesu hori zehazteko hainbat adierazle hartzen dira aintzat: bizi-itzaropena hobetzea, osasuna, hezkuntza eta bizitza duin baterako beharrezko diren baliabideak eskura izatea. Era berean, giza garapenaren helburua da pertsonen aukerak zabaltzea parte-hartzean, segurtasunean, iraunkortasunean eta giza eskubideen bermean. Horiek guztiak baitira beharrezko errespetua izateko eta komunitate bateko kide izatearen sentipena izateko. Aukera horiek zabaltzeko elementu garrantzitsuenetako bat giza ahalmena garatzea da, eta garapen hori lortzeko, funtsezkoa da pertsonak giza eskubideak dituzten subjektutzat hartzea. Horixe da, hain zuzen, elkargarapeneko proiektuak planteatzeko gakoa: etorkinak eta haien jatorriko komunitateak giza eskubideak dituzten subjektutzat onartzea eta, aldi berean, etorkinek modu aktiboan eta irekian parte hartuko duten proiektuak bermatzea. Horrek, halaber, elkargarapen zuzenagoa ekar dezake: etorkinen eta haien jatorriko komunitateen beharrak, interesak eta kultur balioak aintzat hartuko dituen eta Iparraldeko herrialdeek ezarritako garapen-eredua auzitan jarriko duena.

Bestalde, arreta garapenaren kalitatean (aukerak eta ahalmenak) jartzen delarik eta ez kantitatean (hazkunde ekonomikoa), giza elkargarapenak ongizatea eta zuzentasuna indartzen lagunduko du. Azken batean, elkargarapen horren azken helburua pertsonen, pertsonentzat eta pertsonen aldeko garapena izango da, bai helmugako etorkinena eta bai jatorrian bizi diren familia eta komunitateena. Orobat, elkargarapen-eredu horren eskutik «borondatezko itzulera» bilatzeko tentazioak baztertuko dira. Migrazio-politiken ezkutuko proposamena izan da sarri «borondatezko itzulera», baina politika horien helburua ez da giza garapena, baizik eta merkatuko logikaren arabera beharrezkoak ez diren giza baliabideak paretik kentzea.

8. Tokiko garapenak zer eginkizun du elkargarapenean?

Jatorriko herrialdean gauzatuko diren ekintzak tokiko garapen-programetan txertatu beharko dira, programa argi, zehatz eta nabarmenetan. Horretarako, premiazkoa da jatorriko herrialdeetan bertan elkarte serioak eta fidagarriak izatea, tokiko garapenean esperientzia izango dutenak, etorkinen elkarteek edo etorkinen familiek horiekin elkarlanean jarduteko aukera izan dezaten, tokiko erakunde politikoei eta administratiboei eginkizun garrantzitsua emanaz eta horien helburu politiko eta sozialak errespetatuz. Izan ere, proiektuek askoz eragin handiagoa izango dute baldin eta jatorriko bertako erakundeak engaiatzen badira. Horretarako, ordea, erakunde horiek konfiantza sortu behar dute etorkinen artean, eta konfiantza, premisa nagusi bat beteta baino ezin da sortu: gobernantza ona izatea; hau da, erakundeek arduratsuago izan behar dute komunitateen beharren aurrean eta politikak eta programak jarri behar dituzte martxan komunitate-garapenari begira. Etorkinek hainbat arazo izan ditzakete, tokiko garapenerako harremanak sortu nahi dituztelarik. Ohikoenetakoak hauek dira: gobernuko erakundeen deszentralizazio politiko eskasa eta tokiko garapeneko elkarteek kanpotik bultzatutako ekimenak babes-teko politika proaktiborik ez izatea.

9. Zergatik da komenigarria esku-hartzeak oso ondo mugatutako ingurune eta eskualdeetan gauzatzea?

Etorkinek beren jatorriko familiekin eta komunitateekin dituzten harremanak direla medio, elkarrekin bultzatutako elkargarapeneko egitasmoek tokiz gaindiko izaera nabarmena dute. «Behetik» —hau da, etorkinengandik eta beren jatorriko komunitateengandik— sortutako elkargarapenaren ezaugarrietako bat da hori. Horren ondorioz, elkargarapeneko proiektuak ondo zehaztutako eskualdeetan finkatu behar dira, muga horien barruan bihur daitekeelako eraginkor etorkinen harremana eta konpromisoa beren jatorriko herriekiko. Era berean, helburu zehatzak oso ondo finkatu beharko dira, eta saihestu egin beharko dira pobrezia-aren kontrako borrokaren helburuekin bat ez datozen xedeak. Horregatik, beharrezkoa da elkargarapeneko programetatik itzultzeari ematen zaion bultzada kentzea; izan ere, joera hori antzematen da finantziazioa ematen duten erakunde batzuen gidalerroetan.

10. Zein izan daitezke elkargarapenaren esku-hartzeko estrategiak?

Tartean diren eragileen ezaugarri, helburu eta gaitasunen arabera aldatu egingo da ekin-tza-ildoaren definizioa, baina, hala ere, elkargarapeneko proiektuak zein esku-hartze estrategiatan sar daitezkeen antzematen da, bai jatorrian eta bai helmugan. Jakina, esku-hartze orok garbi izan behar du azken helburua: herrialde hartzaileen bizi-baldintzak eta giza garapena hobetzea.

ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK HELMUGAN:

- ▶▶ **Botereaz jabetzea eta integrazioa:** etorkinen giza kapitala eta gizarte-kapitala sendotzeko ekintzetan jarri behar da indarra, bai eta helmugako gizartean modu eraginkorrean integratzea erraztuko duten ekintzetan ere. Etorkinak integratuago dauden heinean, egoera hobean egongo dira elkargarapenean esku hartzeko eta, aldi berean, beste modu batera ulertuko eta gauzatuko dute: jatorriko lekuen garapenari arreta handiagoa jarrita eta ez hainbeste helmugan beren bizi-baldintzak hobetzeari.
- ▶▶ **Etorkinen asoziazionismoa sustatzea** (helmugan eta nazioz gaindi): etorkinen elkarrekin eratzeko laguntzea eta elkarrekin horien gaitasun teknikoak eta antolakuntza-koak sendotzea, bereziki migrazioaren eta garapenaren eremuak aintzat hartuko dituzten asoziazio-proiektuak martxan jartzeko.
- ▶▶ **Etorkinak prestatzea eta trebatzea elkargarapeneko eragile izan daitezen:** migrazio- eta garapen-prozesuen gainean etorkinak prestatzeko jarduerak egitea, bai nazioarte mailan eta bai nazio mailan (herrialde igorleetan), eta, orobat, elkargarapeneko proiektuak kudeatzeko prestakuntza teknikoak ematea.
- ▶▶ **Sentikortzea eta hezkuntza, garapenaren eta kulturartekotasunaren eremuetan:** etorkinak datozen herrialdeen egoerari buruz eta helmugako gizarteetan dagoen kultur aniztasunari buruz sentikortzeko ekintzak egitea, bizikidetzak eta gizarte-kohe-sioa sustatze aldera.

ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK JATORRIAN:

- ▶▶ **Bertako asoziazionismoa sustatzea:** gizarte-antolaketa komunitarioko prozesuak babestea, bertako elkarrekin gaitasun teknikoak eta antolakuntzakoak garatzen lagunduz.



- ▶▶ **Immigrazioa helmugako herrialdeetan zertan den sentikortzea:** porrot egingo duten migrazio-proiektuak saihestea eta, horretarako, etorkinek beren migrazio-esperientzia nolakoa izan den eta helmugako gizartearen egoera ekonomikoa, soziala eta politikoa zein den azaltzen laguntzea.
- ▶▶ **Produktzio-proiektuak:** jatorriko komunitateetan produktzio-dinamikak eta lana ekarriko duten dinamikak sortzeko ekimenak laguntzea; ekimen horiek aurretik esperientzia izatea eskatzen dute finantza-baliabideak kudeatzen, eta asoziazionismo aldetik heldutasun eta sendotasun handia hala jatorrian nola helmugan.

Esku hartzeko estrategia horiek eta beste batzuk gauzatu ahal izateko eta eraginkorrak izateko, koherentzia eta koordinazioa egon behar da migrazio-politiken eta garapen-politiken artean.

11. Zein izan behar dute Garapenerako Laguntza Ofizialaren barruan kokatzen diren elkargarapeneko esku-hartzeen ardatz funtsezkoak?

Elkargarapeneko proiektu bat garapenerako lankidetzeta-departamentuen jarduera gisa abiatzen denean —hau da, Garapenerako Laguntza Ofizial gisa zenbakitan neur daitekeen finantziario publikoarekin— gutxien-gutxienez gainerako guztien betekizunak bete beharko ditu dirulaguntza jasotzeko proiektuetan sartzeko; horrenbestez, aintzat hartu beharko ditu pobrezia kontrako borroka, genero-ikuspegia, ingurumenaren gaia, giza eskubideen defentsa, dimentsio etnikoa eta kultur aniztasuna, zeharkako lehentasun gisa.

12. Bultza daiteke ekintzarik eta ekimenik enpresa eta erakunde pribatuekin batera?

Bai noski, betiere elkargarapena eratzen duten gainerako osagaiak hor badaude ekimenean. Hain zuzen, beste herrialde batzuetan gertatu zen moduan, Espainian ere agertzen hasi dira enpresa pribatutik sortutako proiektuak, eta horietan etorkinek eginkizun erabat garrantzitsua eta protagonista betetzen dute.

13. Elkargarapenaren eskutik soilik alda al daitezke herrialde, eskualde edo komunitate baten gizarte- eta ekonomia-garapenerako beharrak eta baldintzak?

Tokian tokiko botere publikoek beren obligazioak dituzte zerbitzuak hornitzeko eta ingurune horietan ekonomia eta garapenerako aukerak sortzeko eta, alde horretatik, elkargarapenak eta etorkinek beren jatorriko herrialdearen ekonomiari egindako ekarpenek ezin dituzte ordezkatu eta ez lituzkete ordezkatu behar obligazio horiek. Egiturazko arazo bati emandako erantzun soziala dira migrazioak, baina ez dira arazoaren irtenbidea. Nolanahi ere, etorkinak, emigrazioa behartzen duten arazoak pairatzen dituzten aldetik eta alde

interesatua diren aldetik, garrantzi handiko gizarte-mugimendu bihur daitezke, eta, beraz, oso kontuan hartu beharko litzateke mugimendu hori.

Elkargarapenari atxikitako arriskuak eta erronkak

14. Zergatik da garrantzitsua elkargarapenaren babesean planteatutako ekintzei zorrotz eta arduraz heltzea?

Elkargarapena une bereziki inportantean dago; izan ere, etorkizuna bera du jokoan. Hasierako etapan, bereizi gabe eta gogoetarik egin gabe zabaldu zen, baina berriki ebaluatzen hasi dira orain arte gauzatzen joan diren egitasmo batzuk, eta ondorio haxe atera da: proiektu horiek zerikusi gutxi edo batere ez zutela elkargarapenarekin; areago, zerikusirik ez zutela immigrazioarekin eta haren aukerekin. Hori dela eta, programa asko eta elkargarapenari aplikatutako baliabide asko berrikusten ari dira. Horrenbestez, elkargarapenean diharduten eragile guztiak zorrotz eta arduraz aritzea ezinbestekoa da elkargarapenaren ideia ez hondatzeko eta erabat arrotz ez bihurtzeko. Horrela lortuko da etorkizuneko ataririk ez ixtea eta baliabide eta aukerak ez murriztea.

15. Elkargarapeneko proiektu batean zein dira erronka nagusiak herrialde jasotzaileak eta beharrak identifikatzeko lanean?

Erronka nagusietako bat da jatorrian proiektuak hartuko dituzten kolektiboek zer behar duten identifikatzea. Elkargarapeneko proiektuetan etorkinek eta beren elkarteek parte hartzea baldintza ezinbestekoa dela oinarri hartuta, logikoa da pentsatzea proiektu horiek, bere horretan, lokarri direla etorkinen eta beren jatorriko komunitateen artean. Lokarri horrek jatorria eta helmuga lotzen ditu eta nazioz gaindiko gizarte-eremu bat sortzen du; eremu horren bitartez, pertsonen ideiak, praktikak eta baliabideak trukatzeko dituzte, baina, aldi berean, hainbat botere-harreman bizitzen dituzte. Gainera, etorkinek hainbat eratako lokarriak sor ditzakete: familiakoak, etnikoak, erlijiosoak eta baita politikoak ere. Hala, nazioz gaindiko interakzioen sare konplexua sortzen da jatorriaren eta helmugaren artean. Hori dela eta, kontuan izan behar da elkargarapeneko proiektuen bidez sortzen diren harremanetan interes-borroka asko egon daitekeela, eta horien eraginez populazio hartzaileen benetako interesak bazterrean gera daitezkeela; eta, aldiz, talde jakin baten interes partikularrak atera daitezkeela gailen, komunitate osoaren kaltetan. Hori bereziki garrantzitsua da gobernuako erakundeen funtzionamenduan ustelkeria eta bezerotza nagusi den testuinguruetan, eta elkargarapeneko proiektuak komunitatea garatzeko ekarpenekin batere zerikusirik ez duten helburuak lortzeko erabiltzen direnean. Era berean, distantziaren eta denboraren eraginez, gerta daiteke etorkinek lotura galtzea jatorriko prozesu eta borrokekiko eta garapenari buruz duten ikuspegia ez bat etortzea prozesu horiek zuzendurik dauden



komunitateek nahi dutenarekin. Horregatik da funtsezkoa jatorriko komunitateen parte-hartzea bermatzea benetako beharrak identifikatzeko eta proiektuen helburuak zehazteko lan horretan. Lan horren araberakoa izango da, hein handi batean, bertakoek proiektuak berenganatzea eta, ondorioz, etorkizunean irautea. Alde horretatik, aipatzekoa da berenganatze hori handiagoa izango dela proiektuek laguntzen badute aurrez bertako elkarteek martxan jarritako toki-garapeneko prozesuak bultzatzen. Horrek ez du esan nahi etorkinen eta haien elkarteen ekimenek ez dutenik elkargarapeneko proiektu orok berez izan behar-lukeen elkartasun izaerarik; esan nahi duena da etorkinak, garapeneko nazioz gaindiko eragile diren aldetik, jatorriko komunitateen barnean eta kanpoan bizi direla aldi berean —kontuan hartzeko faktorea dela, alegia— eta horrek ondorio onak eta txarrak izan ditzakeela beren jatorriko komunitateen garapena sustatzeko lanari begira.

16. Zer dela eta eduki behar da kontu handia bidalketak produkziarako erabiltzea bultzatzen duten elkargarapeneko ekimenak sustatzeko?

Elkargarapeneko ekimenak aipagai direla, etorkinen bidalketak dira gehien aipatzen diren ekimenetako bat. Tresna konplexu eta eztabaidagarrienetako bat da, nolana ere, bidalketena. Teoria eta literaturatik harago, aldeko esperientziak oso urriak dira, eta horrek agerian uzten du oso-oso zuhur ibili beharra dagoela elkargarapenean bidalketa horiek jokoan jartzen direlarik; izan ere, ondorio onak adina dira txarrak eta, aldi berean, faktore askok eragiten dute elkar eta ezinezkoa da horien gain zuzenean esku-hartzea. Hori dela eta, epe motzera eta ertainera, ez da gomendagarria bidalketak produkzioan inbertitzeko asmoa duten elkargarapeneko proiektuak diruz laguntzea, aurrez lan zehatza eta denboran iraungo duena eskatzen duelako eta oso erakunde gutxi direlako aurretiazko lan hori egiteko gai. Nolanahi ere, informazio-iturri garrantzitsua da kolektibo jakin batzuek bidalketak zertan erabiltzeko itxaropena duten eta enpleguaren gainean ikertzea; eremu horretan benetan lanean hasi nahi dutenek aurrez egin beharrekoa da ikerketa hori. Aplikaturako ikerlan hori oinarri hartuta baino ezingo dira onartu bidalketak elkargarapeneko proiektuen beste finantziazio-iturri moduan.

17. Banku-erakundeekin eta tokiko eta eskualdeetako gobernuekin elkargarapeneko proiektuetan lan egitearen arrisku nagusiak zein dira?

Elkargarapena Espainian agertu zenetik, erakunde askok bildu du esku-hartzeko ardatz nagusien artean. Alabaina, kasu batzuetan elkargarapenaren inguruko lan-eremu operatiboa zehaztu gabe eta oinarritzko ardatzetan kontzeptualizatu gabe egin da, eta, are larriagoa, elkargarapenaren ahalmenak modu interesatuan erabiliz. Batzuetan, ez gutxitan gainera, erabat indargabetzera iristeraino. Egia da, kontzeptua bera berria da, migrazio garaikideek garrantzi handia hartu dute eta, horrez gain, elkargarapenak aukerak zabaltzen ditu lankidetzak eta laguntza-politikak eta programak berritzeko. Eta horren guztiaren eraginez, elkargarapena erabilera handiko tresna bihurtu da. Nolanahi ere, oportunitatez, pre-saz eta zorroztasunik gabe erabili izan delako, ekimen kontraesankorrek eta deigarriak ari dira sustatzen elkargarapenaren estalki horren pean, eta batzuetan baita interesatuak ere.

Eta horren arduraren zati bat daukate elkargarapen indargabetu eta hutsal hori beren politikan gehitu duten erakundeek. Erakunde publikoen artean udalak eta autonomia erkidegoak nabarmentzen dira eta erakunde pribatuen artean, berriz, aurrezki kutxa eta bankuetako gizarte-ekintzak. Badira zuhurtasunez, zentzuz eta zorrotzasunez jokaturako adibideak ere, baina ez dira gutxi kontzeptu hori beren intereserako erabili duten erakundeak. Horrek eragin du elkargarapena itzal hutsean uztea eta benetan den horren keinu soil bihurtzea.

Tokiko eta eskualdeetako gobernuak elkargarapeneko programen sustatzaile eta babesle garrantzitsuak bihurtu dira, baina emaitzak era askotakoak izan dira. Dena den, ekimen horietako asko ez dira berez elkargarapeneko jarduerak, ez baitute hura definitzen duten ardatz nagusirik. Batzuetan, etorkinak bidal ditzaketen herrialdeetan gauzatutako lankidetzaprograma tradizionalak dira; bestetan, beren herrietan bertan atzeritarren kolektiboari zuzendutako gizarte- eta laguntza-ekimenak dira. Nolanahi dela ere, lotsagarria da etorkinen kolektiboak politikoki eta modu interesatuan erabiltzea.

Beraz, etorkinen taldeek eta elkarteek ohartu behar dute beren udaletxe eta erkidegoko gobernuetara jotzen duenean elkargarapeneko programak sustatzeko, arriskua dagoela erakunde horiek, instituzio politiko diren aldetik, modu interesatuan jokatzeko erakundearen beren ekintzak justifikatze eta zabaltze aldera. Kasu batzuetan, batere ezkutatu gabe ari da gertatzen hori. Bestalde, ezinbestekoa da etorkinen elkarteek ondo ezagutzea erakunde publikoek zer eskakizun duten eskabideak aurkezteko. Premiazkoa da epeetara egokitzea eta proposamenak ondo dokumentatzea, segimendua egitea, memoria bat eta justifikazio-txosten zehatz bat lantzea, etab. Etorkinen elkarte askok ez dituzte ezagutzen baldintza horiek, baina betetzea funtsezkoa da proposamenak arrakasta izango badu.

Finantza-erakundeen gizarte-ekintzak, berriz, ez dira hain zorrotzak izaten burokrazia- eta dokumentazio-eskakizunen aldetik eta, beraz, etorkinen elkartearen proposamen asko jasotzen ari dira elkargarapenaren estalki horrekin. Alabaina, erakunde horien lana ez da borondatezkoa: azken urteotan etorkinak bihurtu dira erakunde horien zabaltzeko eta bankarizatze politikoen ardatz, lehentasunez; aurrezki kutxa batzuetako gizarte-ekintzak, adibidez, probetxua ateratzen saiatzen ari dira laguntza ematen duten elkarteetan finantza-produktuak iragartzeko eta bezeroak berenganatzeko. Horrenbestez, oso garrantzitsua da etorkinen elkarteek uko egitea finantza-erakunde horien publizitate-gune soil bihurtzeari, eta beren identitateari eta burujabetasunari eustea, era horretara aurre egiteko etorkin-kolektiboaren bankarizazioari eta mailegu-, finantza- eta salmenta-produktuen sustapenari.

Generoari eta elkargarapenari buruz

18. Zer ekarpen espezifikoko egin diezaioke emakumeak elkargarapenari?

Emakumeek elkargarapenerako egin ditzaketen ekarpen espezifikoen artean, batez ere diru- eta gizarte-bidalketen transferentziari loturikoak daude. Bidalketa horiek direla medio, aldaketak sortzen ari dira gizon eta emakumei atxikitako rol tradizionalen ideietan



(UNFPA, 2006: 30). Berezko elkargarapenaren ikuspegitik esan daiteke emakumeen ekarpenetako bat diru-bidalketak egitea dela. Etorkinak beren familiekin lotzen dituzten ahaidetasun-lokarriak daude berezko elkargarapenaren oinarrian. Emakumeen ekarpen espezifikoa da berek, nahiz eta normalean gizonezkoek baino diru-sarrera txikiagoak izan, sarrera horietatik puska handiagoa bidaltzeko joera dutela gizonezkoek baino, eta ekarpen horiek iraunkorragoak eta erregularragoak direla denboran. Familiarekiko lotura eta seme-alabekiko betebeharrak direla eta, genero bakoitzarengandik espero dena dago horren atzean (Mazio Batuen Batzar Nagusia, 2005: 28): emakumeak bidalketa-iturri fidagarriagoak bihurtzen dira gizonezkoen aldean, familiaren oinarrizko beharrei jartzen dietelako arreta (elikadura, osasuna, hezkuntza, garbitasuna, etab.). Diru-bidalketa horiei gehitu behar zaizkie emakumeen gizarte-bidalketak (ideiak, jakintzak, jarrerak, jokabideak, etab.). Gizarte-bidalketa horiek ere piztu dezakete gizarte- eta ekonomia-garapena eta bultzatzen dituzten giza eskubideak betetzea eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna. Gainera, dirua bidaltzen duten emakume etorkinek beste definizio bat transmititzen dute emakume izateak esan nahi duenez, eta horrek eragina izan dezake komunitateek emakumea ikusteko duten moduan (UNFPA, 2006: 29). Emakumeen gehiengo zabalaren migrazio-esperientzia oztopoz eta neurrigabeko arriskuz beterik egon da emakume eta etorkin izategatik, hori halaxe da, baina, aldi berean, migrazioak izan ditzake alde onak ere emakumeentzat, beren autonomia eta boterea areagotzen lagundu ahal duelako (Piper, 2005: 25). Beste herrialde batera jotzen dutenean, emakumeek beste ideia eta gizarte-arau batzuk jasotzen dituzte, eta horien eskutik beren eskubideak sustatzeko eta gizartean indar gehiagoz parte hartzeko aukera izan dezakete, bai eta jatorriko herrialdeko genero-arauetan mesederako eragin ere (UNFPA, 2006: 21).

Bestalde, hainbat ikerketak erakutsi du etnia, gizarte eta ekonomia aldetik hainbat jatorritako emakume etorkinak elkartu egiten direla helmugako gizartean parte hartzeko dituzten oztopoak gainditzeko, bai eta beren bizitzak eta gizarteko beste pertsona batzuenak hobetzeko ere (Tastsoglou eta Miedema, 2000: 9). Funtsean, emakume etorkinen elkarrekin sortzen dira emakumeek ez beste inork aurre egin beharreko egoerei erantzuteko beharrik. Hala, elkarte horien ardura nagusia da emakume eta etorkin diren aldetik beren bizi-baldintzak hobetzea eta beren eskubideak bultzatzea eta defendatzea. Elkarte horiek, alde batetik, lagundu egiten diete emakumei botereaz jabetzen eta helmugako gizartean integratzen bai gizartean bertan eta bai lan munduan. Eta, bestetik, behin migrazio-prozesuaren oztopo handienak gaindituta, eginkizun inportantea bete dezakete beren jatorriko herrialdeetako emakumeen eskubideak garatzen eta bultzatzen. Hala, berariaz emakumeen bizitza hobetzeko eta hala jatorrian nola helmugan generoko aldeak gainditzeko elkargarapenean lagun dezakete emakumeek elkarte horien bidez. Emakumeek ziurrenera aukera gehiago izango dituzte elkargarapenean parte hartzeko beren elkarrekin etorkinen beste elkarte batzuetatik baino; izan ere, beste horietan gizonezkoek protagonismo handiagoa dute proiektuen gaineko kudeaketan eta erabakietan, eta emakumeek, aldiz, ordezkaritza txikiagoa proiektuak zehazterakoan beren beharrak eta interesak agertzeko.

19. Zein estrategiak gidatu behar du genero ikuspegia duten elkargarapeneko proiektuen diseinua?

Mundu mailan etorkinen biztanleriatik erdia emakumeak dira eta hortik abiatuta ezinbestean uztartu behar dira «genero eta migrazio» eta «genero eta garapeneko» ikuspegiak.

Baina, funtsezkoa da elkargarapeneko politika eta proiektuetan genero ikuspegia aintzat hartzea, batez ere honako arrazoi hauengatik:

- ▶▶ Generoa gizarte-harremanak antolatzeko oinarrizko printzipioa da, hierarkia-harremanak barne. Printzipio horrek baldintzatzen ditu gizon eta emakumeen migrazio-esperientziak, eta kontuan hartzen du bai emakumeen eta bai gizonezkoen behar, lehentasun eta ekarpen espezifikoak zein diren, era bateko edo besteko ekintzak zehazten laguntzeko.
- ▶▶ Jatorriko eta helmugako herrialdeetan generoen artean dauden aldeek eragina dute migrazio-esperientzian eta garapen-prozesuetako parte-hartzean eta, halaber, adierazten dute desberdintasun horiek zein modutan gaitu ditzaketen emakumeak aldatzeko edo kaltetu ditzaketen migrazio-prozesuan.
- ▶▶ Etorkinek jatorriko eta helmugako eremuen artean sortzen eta mantentzen dituzten gizarte-harreman eta sare ugarietan genero-harremanak dira bitarteko; horrek agerian uzten du nazioz gairik gabeko gizarte-eremuan parte hartzen duten subjektuek botere-harreman desberdinak bizitzen dituztela.
- ▶▶ Gizonak eta emakumeak ez dira modu berean iristen gizarte-baliabide eta sareetara; horrenbestez, ez dituzte aukera eta muga berak helmugan gizarteratzeko eta jatorriko lekuen garapenean parte hartzeko.
- ▶▶ Jatorriko antolatzeko kulturak baldintzatu egiten du emakumeek etorkinen elkarrekin parte har dezaketen modua. Izaera patriarkal handia dute askotan kultura horiek eta baztertu egiten dute emakumea erabakiguneetatik; horren ondorioz, emakumeen behar eta interesek ordezkari txikiagoa dute elkarrekin agertzen.

Jatorrian eta helmugan genero-egiturek (politikoak, ekonomikoak, soziokulturalak) baldintzatu egiten dute emakumeek elkargarapenean parte hartzea. Alde horretatik, genero-ikuspegia ezinbestekoa da elkargarapeneko politikak eta proiektuak sortzerakoan genero-egitura horiek kontuan hartzeko. Horretarako, Generoa Garapenean estrategiak izan behar du abiapuntuko oinarrizko erreferentzia, estrategia horrek gidatu behar du politika eta proiektu horien diseinua; izan ere, gainerakoan, 1990eko hamarkadatik hona garapeneko politiken eremuan neke askoren ondotik lortu diren urratsetan atzera egiten ariko gara. Estrategia horrek dio gizon eta emakumeen arteko berdintasuna giza eskubidea dela, eta azpimarratzen du baliabideak eta boterea eskuratzeko eta kontrolatzeko genero-justizia eta ekitatea lortzea erabat loturik dagoela giza garapen iraunkorarekin. Horrenbestez, Generoa Garapenean estrategia proposamen politikoa da eta, beraz, konpromisoa eskatzen du genero-harreman ekitatiboak sortzearen alde (Murguialday, 1999: 10); horren arabera, emakumeak ez lirateke hartuko sektore ahul eta pasibotzat, aldatzeko eragile aktibotzat baizik. Estrategia horrek emakumeek eta emakume-elkarte eta sareek garapeneko eragile aktibo gisa duten eginkizun garrantzitsua aldarrikatzen du; begien bistakoa da, beraz, emakume etorkinek eta helmugan sortu dituzten elkarteek, bai eta jatorriko herrialdeetako emakume-elkarteek ere, parte hartu behar dutela elkargarapeneko estrategia eta politiken diseinuan eta proiektuen plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan. Hain zuzen, emakumeek elkargarapeneko proiektuetan parte hartzeak izan dezake bestelako ondorioz: haien jatorriko lekuen garapenari buruz erabakiak hartzeko prozesuetan sartzeko estrategiak, esaterako; izan ere, emakumeak sarritan prozesu horretatik kanpo utzi izan dira eta uzten dira. Hala ohartarazi dute Giménez Romerok eta beste egile batzuek. «Hala, elkargarapeneko proiektuak diseinatzeko, betetzeko eta martxan jartzeko parte hartzen dutelarik, [...] ahotsa eta botoa berenganatzen dute beren eta inguruko garapenari buruz erabakiak hartzeko; hau da, gizarte-taldearen *espazioa berreskuratzeko* prozesu bat gertatzen da. Horrela, nazio-garapena ulertzeko beste modu batzuk ekar ditzakete proiektu-



tuek; adibidez, hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta beste hainbat gaitan lehentasunak finkatzerako garaian» (2006: 59).

Elkargarapeneko proiektuek ez badituzte kontuan hartzen genero-aldeak eta ez badute biltzen genero-ikuspegia, gaur egungo aldeak eta desberdintasunak biziberritzen lagunduko dute (García eta Paiewonsky, 2006: 18).

Elkargarapenaren muga eta aurreko urratsei buruz

20. Etorkinen biztanleriari eragiten dioten prekarietatea, bazterketa eta irregulartasuna zergatik dira elkargarapenaren kontrako elementuak?

Muturreko prekarietate oinarri batetik abiatuta, nekez egingo dugu aurrera elkargarapeneko ekintzek eskatzen duten konpromisoetan. Hori dela eta, funtsezkoa da etorkinak eskubidedun subjektutzat hartzea eta haien bizikidetzat, integrazio eta autonomia pertsonalera-ko prozesuak laguntzea; horretarako, berriz, marjinalitate-poltsak desegin behar dira eta ghettoetatik atera behar dira etorkinak. Etorkinen biztanleriak baliabide publiko normalizatuak erabiltzeko eta baliabide horietan esku hartzeko bidean egin behar da aurrera, elkargarapena eraikitzeko faktore funtsezkoak baitira; hain zuzen, elkarrekikotasuna, onarpena eta etorkinen biztanleria udalerrri eta hirietara erabat biltzea dira elkargarapenaren oinarria. Etorkinak elkargarapenaren eragile funtsezko bihurtu ahal izateko, eskubidedun subjektutzat errespetatuak eta onartuak izan behar dute; horrela gaindituko lirateke oraindik ere hainbat tokitan gertatzen diren bazterketa-prozesu gogorak. Beharrezkoa da poliki-poliki udalek eskumen gehiago hartzea beren gain migrazio-politikako gaitan; izan ere, azken batean, udalek jasotzen dituzte zuzenean migrazioak eta udalek banatzen dituzte bizikidetzarako oinarritzko bitartekoak. Eta horretarako guztirako, beharrezkoa da ahalmen handiagoa izatea baliabide ekonomikoak eta behar besteko prestakuntza izango duten giza baliabideak edukitzeko. Udalerrri askok eta eskualde batzuk etorkinen aurrean ezarri duten harresia gainditu beharko litzateke; izan ere, harresi horrek inbaditzailetzat hartzen ditu eta haiekin loturiko guztia urruntasunez —ezpada errezeloz edo, areago, mesprexuz— begiratzea eragiten du. Eta, hori hala izanik ere, itxurazko elkargarapena sustatzen eta diruz laguntzen dutela diote; elkargarapen hori, ordea, gehiago da publizitate-irudia, etorkinak gizartera erabat biltzeko urrats garrantzitsua baino.

21. Zergatik da inportantea harrerako auzo eta hirietan etorkinak gizartean sendotzeko eta azaleratzeko lan egitea etorkin horiek elkargarapenean engaia daitezen?

Erakunde deszentralizatuek modu aktiboan egin behar dute lan etorkinak gizartean sendotzeko eta, horretarako, gizartean lekua izan eta agertzeko laguntza eman behar diete, arreta,

esku-hartze, integrazio eta elkargarapeneko programen bidez. Hori lortzeko, migrazio-politikak txertatu behar dituzte udal-ekintzetan; halaxe egin zuten milatik gora udalek 1990eko hamarkadan, garapen deszentralizatuko politika berritzaileak sartu zituztenean; Espainiako garapenerako laguntza-politiketan dinamismo handia ekarri zuten ildo berritzaile horiek. Udal, autonomia-erkidego eta diputazioek ekintza-planak ezarri behar dituzte beren herrietan finkatu diren etorkinekin batera, jatorriko gobernu eta erkidegoekin harremanak bizkortzeko. Horretarako bidea da toki garapeneko ikuspegitik antolatutako ekintzak diseinatzea, komunitate- eta asoziazio-mailatik lan eginez eta elkarrizketarako bide egonkorak eta iraunkorak sustatuz.

22. Zer eginkizun betetzen dute jatorriko herrialdeetako gobernuak eta testuinguruak elkargarapenean?

Etorkinek eta beren elkarteek jatorriko lekuen garapenean lan egiteko izan dezaketen gogoia eta ahalmena bi faktoreren arabera da funtsean: helmugan gizarteratzea nola gertatu den eta jatorriko herrialdearekin zein modutan loturik sentitzen diren. Horregatik da funtsezkoa kontuan hartzea jatorriko herrialdeen testuinguruak eta gobernuak emigrantei zuzenduriko ekimenek ere baldintzatzen dituztela elkargarapenaren aukerak. Immigrazioa sortzen den tokietako gobernuak (herri, eskualde eta nazioak) sustatu egin behar dute etorkinekin gizarte-, kultura-, ekonomia- eta politika-loturak mantentzea, modu horretara etorkinak elkargarapeneko ekimenetara bultzatzeko eta engaiatzeko. Gero eta gehiago, jatorriko gobernuak etorkinen ekimenengatik interesa azaltzen hasi dira, batez ere bidalketek ekonomia-garapenean duten eraginagatik. Hala, batzuk erantzun dute eta naziotasun bikoitzari eusteko, atzerrian boto eskubidea izateko eta abarretarako legeak sustatu dituzte. Alabaina, aldi berean, funtsezkoa da jatorriko herrialdeetako gobernuak gizarte- eta politika-programetan inbertitzea lana eta azpiegiturak sortzeko, teknologia garatzeko... Hau da, inportantea da garapenerako beharrezko baldintzak sortzea; izan ere, elkargarapeneko proiektuek ez dute ordezkatu behar gizarte-inbertsio publikoa eta etorkinek ez dute bihurtu behar beren herrialdeetako garapenaren arduradun. Horrenbestez, oso garrantzitsua da jatorriko herrialdeetako toki, eskualde eta nazioetako gobernuak etorkinekiko lokarriak sendotuko dituzten ekintzak martxan jartzea, eta, aldi berean, biztanleriaren giza garapena lortzeko politikak eta programak abiatzea.

23. Zer arrazoirengatik da komenigarria elkargarapeneko ekintzetan esku hartu nahi duten elkarteen asoziazio-dinamikak eta parte-hartzezko dinamikak eta elkarte horien hiritar-konpromisoa sendotzeko lan egitea?

Etorkinen elkarteak elkargarapeneko proiektuetan sartzea baldintza funtsezkoa da ekimen horietan. Nahiz eta aurreneko fasean proiektuaren erantzukizuna Espainiako GKE batek izan, inportantea da etorkinen elkarteak proiektuetan egotea, ikasteko eta sentikortzeko bidea delako. Horrenbestez, etorkinak ez dira hartu behar biztanleria onuradun pasibotzat, baizik eta eragile zuzentzat, aurreneko unean ardura aldetik bigarren maila batean egon arren. Espainian etorkinen asoziazio-mugimendua gaur egun osatuta dagoen moduagatik gertatzen da hori; izan ere, mugimendu hori ahula da instituzio aldetik eta bitarteko oso urriak ditu (langile liberatu eta baliabide ekonomiko oso gutxi). Etorkinen elkarteek, beraz,



hainbat muga eta gabezia dituzte, eta ezer baino lehen horiek konpondu behar dira elkargarapeneko proiektuetan parte hartzeko egoera hobean egon daitezen. Horretarako, komenigarria da asoziazio eta parte-hartzezko ekimen egokiak sendotzea, besteak beste, lidergo pertsonalak eta gisako fenomenoak saihesteko eta, hala, elkarte horiek eratzten dituzten taldeen interesak ordezkatu gabe ez geratzeko.

24. Zergatik jotzen da hain beharrezkotzat elkargarapeneko ekintzetan esku hartu nahi duten etorkinen eta elkarten prestakuntza, trebatzea eta sendotze soziala?

Etorkin gehienek ondo ezagutzen dituzte beren egoera pertsonalak, baina ez dituzte ezagutzen ekonomia- eta gizarte-prozesu globalak, sarritan beren migrazioa behartu duten prozesuak. Eta, orobat, ez dute ezagutzen lankidetzaren eta garapeneko nazioarteko sistema; alegia, elkargarapenaren bidez esku hartu nahi duten sistema. Horrek zaildu egiten ditu ekonomia- eta gizarte-garapeneko ekintzak; izan ere, larritasun eta borondate on hutsetik harago, ekintza horiek egiteko beharrezkoa da beste ikuspegi eta ezagutza batzuk izatea. Horregatik da funtsezkoa prestatzeko, trebatzeko eta sendotze sozialerako prozesuak finkatzea elkargarapeneko ekintzetan parte hartu nahi duten etorkin eta elkarte guztiei zuzendurik. Dirulaguntzak eskuratzea bermatzeko etorkinen elkarteak *ex novo* sortzea edo kooptatzea erabat baztertu beharrezkoa da, ondorio kaltegarriak dituelako eta artifizialtasun erabatekoa sortzen duelako.

25. Etorkinen elkarteek zer pauso nagusi eman behar dute beren herrialdeekin landu nahi dituzten garapeneko ekintzak erakundeei proposatzeko?

Lehenik eta behin, eta finantziarioa eskatzen edo proiektu bat idazten hasi aurretik, aurreko lan-prozesu bat finkatu behar da, lan egin nahi den biztanleriak zer eskakizun eta behar sentitzen dituen, horren arabera esku-hartzea ondo ezagutzeko, identifikatzeko, diagnostia egiteko eta egiaztatzeke. Premiazkoa da elkarriketa bizia eta iraunkorra sortzea ekimenak gauzatuko diren tokien artean —eremu igorlea eta proiektua bultzatu duten komunitateak—, ahalik eta modu parte-hartzezkoenean gainera, era horretara bakoitzaren interesak eztabaidatu eta zehaztu ahal izateko, sor daitezkeen mugak eta arriskuak ezagututa. Horretarako, gobernuz kanpoko erakundearen laguntza eska daiteke, edo parte-hartzezko diagnostiak lantzen eskarmentua duten erakundearen laguntza, bestela. Behin beharrak ondo identifikatuta eta gauzatu nahi den esku-hartzea zehaztuta, proposamena zabal eztabaidatu beharko litzateke, bai proiektua burutu nahi den komunitatean eta bertako erakundeekin, eta bai elkarte sustatzailearen kideen artean ere. Hala, ekimena guztiek ezagutzen dutelarik, bere egiteko eta, aldi berean, proiektuaren funtsezko alderdiak egiaztatzeke eta eragilearen konpromiso zehatza elikatzeke. Garrantzitsua da esploratzea zer aukera dagoen etorkinen beste erakunde, elkarte eta taldeek proiektuan parte-hartzeko; zenbat eta gehiagok, hainbat hobe, bai alde bateko eta bai bestekoek; izan ere horri esker eragin handiagoko izango du esku-hartzeak eta dirua jarri duten erakundeek ere balorazio hobea egingo dute.

Lanaren fase hori amaitzean, orduan hasi beharko litzateke proiektua idazten. Proiektu horretan jaso beharko lirateke xehetasun guztiak: non gauzatuko den, zergatik sortzen den

hautemandako beharra, zertarako balioko duen esku-hartzeak, zer egin nahi den, nori zuzendurik, nola egingo den, nork egingo duen, noren laguntza izango den, zer jarriko duen alde bakoitzak, noiz egingo den eta zer bitarteko eta baliabide behar den hori guztia bete ahal izateko. Horrek guztiak eskakizun tekniko oso handia du, uste dena baino handiagoa; hori dela eta, komeni da proiektuak nola lantzen diren ondo dakien batengana jotzea edo laguntza eman dezakeen erakunde edo elkarteren batera, bestela. Behin proiektua idatzita, erakunde publiko edo pribatu bati aurkeztu ahal izango zaio, kontuan izanda erakunde bakoitzak bere deialdiak dituela, aurkezteko epe eta eskakizun tekniko jakinekin.

26. Zergatik da ona garapenerako lankidetzan diharduten betiko GKE-en eta etorkinen elkarteetan artean aliantzak eta estrategiak sortzea elkargarapenerako ekintzak bultzatzeko?

Etorkinen elkarteek harreman estua dute beren jatorriko herrialdeekin eta komunitateekin; horrenbestez, lagundu egin dezakete identifikatzen zer premia berehalako dituzten beren bizi-baldintzak hobetzeko. Aldi berean, sarri bidaiatzen dute hara eta etengabe harremanetan daude hango senideekin; horiek ere lehen eskuko informazio-iturriak dira eskualde haietako baldintzak eta ezaugarriak hobeto ezagutzeko. Nolanahi ere, etorkinen elkarte gehienek ez dute esperientzia teknikorik garapenerako lankidetzaren proiektuak gauzatzeko, ez dituzte ezagutzen Espainiako erakunde publiko eta pribatuen berezitasun administratiiboak, ez dute behar besteko prestakuntzarik eta bitarteko teknikorik eta humanorik diruz lagundutako ekimen orok burokrazia eta dokumentazio aldetik eskatzen dituen betekizunak kudeatzeko, eta esperientzia gutxi dute sarean lan egiten. Garapenerako GKE tradizionalek, aldiz, esperientzia eta prestakuntza zabala dute aipatutako alderdi horietan guztietan, baita bitarteko tekniko eta giza baliabide egokiak ere. Etorkinen elkarteetan eta garapenerako GKE-en artean sareak, aliantzak eta estrategiak eratzea lagungarri izan daitezke sinergia berriak sortzeko. Sinergia horiek, berriz, aukera eman dezakete batzuek eta besteek elkarren aldean dituzten abantailak onura lortzeko; hala, beren ekintzek bultzada handiagoa izan dezakete eta, zergatik ezkutatu, horietako askoren artean gaur egun dauden errezelo eta ezin ikusiak leundu egin daitezke.

27. Udalerrri eta hirietan bada zeharkako gaitasunik elkargarapena aberats dezakeenik?

Hala da, hirietan eta udalerrietan potentzialtasun asko dago erakunde, profesionalen sektore, tokiko elkartasun talde eta abar engaiatzeko gaitasunarekin. Potentzialtasun horiek aberastu egin ditzakete elkargarapenaren eremuan burutzen diren ekintzak eta ekintza horien arrakasta ekar dezakete. Etorkinekin lanean diharduten irakasle, hezitzaile, sendagile eta erizain, gizarte-teknikari, apaiz eta beste pertsona askori buruz ari gara. Horiek guztiek hobetu eta aberastu egin ditzakete elkargarapenerako ekimenak. Aldi berean, eragile garrantzitsuak dira, eta komeni da lan horretara biltzea ekintzak eraginkorrakoak egiteko. Zenbait eragile ekonomikoren ahalmena ere ez da ahaztu behar; hala nola, sindikatu, merkatari eta enpresariena. Eragile horiek, beren lanean duten eskarmentuari esker eta beren eginkizunaren espezifikotasunari esker, aktibo ahaltsuak dituzte etorkinen jatorriko komunitateetan bizi-baldintzak eta ekonomia- eta gizarte-baldintzak hobetzeko.

4. Gehiago jakiteko



BASA, C., C. ELLERBE-DUECK, J. GUMMICH, C. ESIN, A. KURT, C. MANN eta A. RUDNICK (2006): (*She gives back*). *Migrant women's philanthropic practices from the diaspora*, Amsterdam, Mama Cash-Fund for Women.

http://www.mamacash.org/uploads/File/she%20has%20news/publicaties/shegivesback_researchreport.pdf

CORTÉS MAISONAVE, A., eta A. SANMARTÍN (2007): «Política transnacional. Asociacionismo migrante y codesarrollo», *El Viejo Topo*, 239, 66-73.

http://www.ucm.es/BUCM/compludoc/5/10802/02102706_1.htm

ECHEVERRI, M. M., R. IBÁÑEZ eta M. ORTÍ (2007): *El codesarrollo desde la perspectiva de la población inmigrante. Una aproximación a las representaciones sociales y discursos sobre el desarrollo de las y los migrantes marroquíes y ecuatorianos en Madrid. Informe de investigación*, Madril, Acsur-Las Segovias.

[http://www.acsur.org/IMG/pdf/> InformeCodesarrollo.pdf](http://www.acsur.org/IMG/pdf/>InformeCodesarrollo.pdf)

GARCÍA BURGOS, J., eta M. CARBALLO DE LA RIVA: *Buenas prácticas de codesarrollo: aspectos legales y sociales*.

<http://www.anthroponet.org/files/Garcia%20Burgos%20e%20Carballo%20de%20la%20Riva%20-%20Buenas%20practicass%20de%20codesarrollo,%20aspectos%20legales%20y%20sociales.pdf>

HAAS, H. de (2006): *Engaging Diasporas. How governments and development agencies can support diaspora involvement in the development of origin countries*, International Migration Institute, Oxfordeko Unibertsitatea.

http://www.wingsweb.org/download/EngagingDiasporas_HeindeHaas.pdf

HIDALGO TUÑÓN, A. (2007): «“Codesarrollo” como ‘regla operatoria’ para la cooperación al desarrollo», *Eikasia. Revista de Filosofía*, II (9).

<http://www.revistadefilosofia.com/98.pdf>

MARTÍN DÍAZ, E. (koord.) (2007): *El papel de las mujeres inmigrantes en el desarrollo de sus localidades de origen: el caso de las marroquíes y las ecuatorianas*, Madril, Emakumearen Institutua.

http://www.migualdad.es/mujer/mujeres/estud_inves/746.pdf

NAÏR, Sami (1997): *Informe de balance y orientación sobre la política de codesarrollo vinculada a los flujos migratorios. Informe de etapa*.

http://www.codesarrollo-cideal.org/articulos/sami_nair_traduccion.pdf

PLAN MIGRACIÓN, COMUNICACIÓN Y DESARROLLO (2006): *Migración y codesarrollo: una propuesta innovadora*, Migrazio, Komunikazio eta Garapen Plana (Cartillas sobre Migración, 16).

<http://migrantesecuador.org/docs/migracion16.pdf>



PORTES, A., C. ESCOBAR eta A. WALTON RADFORD (2006): «Organizaciones transnacionales de inmigrantes y desarrollo: un estudio comparativo», *Migración y Desarrollo*, 6, 3-44.
<http://redalyc.uaemex.mx/redalyc/src/inicio/ArtPdfRed.jsp?iCve=66000601>

REUTER, C. (arg.) (2007): *El codesarrollo: ¿una solución ventajosa para todos?*, Brusela, Solidar.
<http://cms.horus.be/files/99931/Newsletter/Codevelopment%20ES.pdf>

SOLANA MORENO, V. (2006): *Género en el codesarrollo: una perspectiva necesaria*, Madril, Garapenerako Ikerketa eta Lankidetzaren Zentroa (CIDEAL).
http://www.codesarrollo-cideal.org/articulos/vivan_genero.pdf

ZÚÑIGA GARCÍA-FALCES, N. (koord.) (2005): *La migración: un camino entre el desarrollo y la cooperación*, Madril, CIP-FUHEM.

Elkargarapenari, migrazioei eta garapenari buruzko web-orriak

Centre on Migration, Citizenship and Development
[http://www.uni-bielefeld.de/\(en\)/tdrc/ag_comcad/](http://www.uni-bielefeld.de/(en)/tdrc/ag_comcad/)

Codesarrollo-Elkargarapena: «Elkargarapeneko proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko tresnak»
<http://www.elkargarapena.net/>

Codesarrollo: Migrazioak eta Munduko Garapena (Garapenerako Ikerketa eta Lankidetzaren Zentroa)
<http://www.codesarrollo-cideal.org/>

Garapenari buruzko ikerketak: 'Migración y Desarrollo' aldizkaria
<http://estudiosdeldesarrollo.net/>

Generoa eta Migrazioa. Nazio Batuen Nazioarteko Ikerketa eta Prestakuntza Institutua Emakumearen Sustapenerako
<http://www.un-instraw.org/es/md/md-homepage/migration-and-development.html>

Global Forum on Migration and Development
<http://www.gfmd-fmmd.org/>

International Migration Institute, University of Oxford
<http://www.imi.ox.ac.uk/>

International Migration, Integration and Social Cohesion
<http://www.imiscoe.org/>

Migrazio eta Garapeneko Nazioarteko Sarea
<http://www.migracionydesarrollo.org/>

Bibliografia



Esku-liburu hau lantzeko, Bakeaz-ek eta Nazioarteko Elkartasunak burututako ikerketa-proiektuaren baitan aurrez landutako materialak erabili dira: Gómez Gil (2005, 2008). Bibliografia honetan, gainera, kontsultatu diren beste bibliografia-lan batzuk zerrendatzen dira.

ÁLVAREZ DE LOS MOZOS, F. J. (2007): «Las organizaciones de inmigrantes como factor de integración social», in A. IBARROLA-ARMENDARIZ eta C. H. FIRTH (arg.): *Migraciones en un contexto global. Transiciones y transformaciones como resultado de la masiva movilidad humana*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 29-66 (Migraciones Internacionales Seriea, 5).

CAMACHO ZAMBRANO, G., eta K. HERNÁNDEZ BASANTE (2005): *Cambió mi vida. Migración femenina, percepciones e impactos*, Quito, Nazio Batuen Garapeneko Funtza Emakumearentzat/Gizarte Plangintza eta Ikasketa Zentroa.

CORTÉS MAISONAVE, A. (2006): «Codesarrollo y migración: una lógica transnacional. Reflexiones desde el caso español», *Puntos de Vista. Cuadernos del Observatorio de las Migraciones y de la Convivencia Intercultural de la Ciudad de Madrid*, 8, 7-27.

http://www.munimadrid.es/UnidadesDescentralizadas/ServALaCiudadania/InmiCoopVolun/Inmigracion/Esplnformativos/ObserMigraciones/Publicaciones/PtosVista/pvista_8.pdf

DIPUTATUEN KONGRESUA (2004): «Vinculación de la política de cooperación internacional para el desarrollo con la política de inmigración. Presentada por el Grupo Parlamentario Catalán (Convergència i Unió)», *Boletín Oficial de las Cortes Generales*, VIII. Legealdia, B Seriea, 32-1, 2004ko apirilaren 23a, 122/000018 Lege Proposamena.

ELKARGARAPENARI BURUZKO LANTALDEA (2005): *Documento de consenso sobre codesarrollo*, Garapenerako Lankidetzeta Batzordea, Nazioarteko Lankidetzako Estatu Idazkaria.

— (2007): *Documento de consenso. Aportaciones al debate sobre migración y desarrollo. (Versión revisada)*, Garapenerako Lankidetzeta Batzordea, Kanpo Arazoetako Ministerioa.

<http://www.maec.es/es/MenuPpal/CooperacionInternacional/Publicacionesydocumentacion/Documents/Documento%20de%20Consenso.pdf>

EUROPAKO LEGEBILTZARRA (2005): *Informe sobre el planteamiento de la UE sobre la gestión de la inmigración económica*, COM (2004) 0811, 2005/2059 (INI), Hiritar Askatasun, Justizia eta Barne Gaietarako Batzordea, A6-0286/2005, Brusela. Hizlaria: Ewa Klant.



EUSKO JAURLARITZA (2003): *Immigrazioari buruzko Euskal Plana 2003-2005*, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, Immigrazio Zuzendaritza.
http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2204/eu/contenidos/informacion/2449/eu_2194/eu_11951.html

— (2005): *2005-2008ko Garapenerako Lankidetzako Gida Plana*, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
http://www.lankidetzako.info/Plan_Director_2005_2008.pdf

— (2007): *Immigrazioari buruzko II Euskal Plana 2007-2009*, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2204/eu/contenidos/informacion/2449/eu_2194/eu_11951.html

— (2008): *2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoa*, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
<http://www.lankidetzako.info/GarapenLankidetzarakoGida.pdf>

GARCÍA, M., eta D. PAIEWONSKY (2006): *Género, remesas y desarrollo. El caso de la migración femenina de Vicente Noble, República Dominicana, Santo Domingo* (República Dominicana), Emakumearen Sustapenerako Nazio Batuen Ikerketa eta Trebakuntzarako Nazioarteko Institutua (INSTRAW).
<http://hegoa2.efaber.net/dossierra/migracion/INSTRAWGeneroremesasydesarrollo.pdf>

GIMÉNEZ ROMERO, C., J. L. MARTÍNEZ MARTÍNEZ, M. FERNÁNDEZ GARCÍA eta A. CORTÉS MAISONAVE (2006): *El codesarrollo en España. Protagonistas, discursos y experiencias*, Madril, Los Libros de la Catarata.

GÓMEZ GIL, C. (2005): *Nuevas vías para el codesarrollo en la cooperación descentralizada*, Bilbo, Bakeaz (Cuadernos Bakeaz, 72).

— (2006): *Inmigración y asociacionismo: el caso de Alicante*, Alacanteko Immigrazioaren Behatokia, Alacanteko Unibertsitatea.
<http://www.ua.es/es/estudios/seus/alacant/informes/inmigracionyasociacionismo.pdf>

— (2008): ***Potencialidades y limitaciones del codesarrollo*, Bilbo, Bakeaz (Serie General, 18).**

IKUSPEGI (IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA) (2008): *Atzerritarrak EAEn 2008*, Bilbo, Ikuspegi, (Panorámica de la Inmigración, 23).
http://www.ikuspegi.org/documentos/documentos_internos/panoramica23eus.pdf

KANPO ARAZOETAKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA (2005): *Plan Director de la Cooperación Española 2005-2008*, Madril, Nazioarteko Lankidetzako Estatu Idazkaria.
http://www.maec.es/SiteCollectionDocuments/Cooperaci%C3%B3n%20espa%C3%B1ola/Publicaciones/Plan_Director_Esp.pdf

— (2006): *Seguimiento del PACI 2005*, Nazioarteko Lankidetzako Estatu Idazkaria, Garapen Politikak, Garapen Politiken Plangintza eta Ebaluaziorako Zuzendaritza Nagusia, Madril.

MALGESINI, G., H. OCHOA, J. LACOMBA eta A. CLOQUELL (2007): *Guía básica del codesarrollo: qué es y cómo participar en él*, Madril, Garapenerako Ikerketa eta Lankidetzeta Zentroa (CIDEAL). http://www.cideal.org/images/catalogo/NN_GUIA_CODESARROLLO_CIDEAL.pdf

MURGUIALDAY, C. (1999): *Mujeres y cooperación: de la invisibilidad a la equidad de género*, Bilbo, Bakeaz (Cuadernos Bakeaz, 35).

<http://www.bakeaz.org/es/publicaciones/mostrar/114-mujeres-cooperac>

NAZIO BATUAK (2003): *Migración internacional y desarrollo. Informe del Secretario General*, Batzar Nagusia, A/58/98.

— (2006): *Resumen del Diálogo de alto nivel sobre la migración internacional y el desarrollo. Nota de la Presidenta de la Asamblea General*, Batzar Nagusia, A/61/515.

NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA (2005): *Estudio mundial sobre el papel de la mujer en el desarrollo 2004. La mujer y la migración internacional*, New York, Nazio Batuak.

<http://www.un.org/womenwatch/daw/public/WorldSurvey2004-Women&Migration-ES.pdf>

PADIAL, E., J. G. MARTÍN, M. A. ELORZA eta K. BILBAO (2006): *Codesarrollo: integración, participación y distribución de la riqueza*, Bilbo, Hika Ateneoko Elkargarapenari buruzko Lantaldea.

PIPER, N. (2005): *Gender and Migration*, Nazioarteko Migrazioen Munduko Batzordea.

<http://www.hegoa.ehu.es/congreso/bilbo/doku/lau/NicolaPiper.pdf>

TAPINOS, G. (1974): *L'économie des migrations internationales*, Paris, Fondation Nationale des Sciences Politiques.

TASTSOGLU, E., eta B. MIEDEMA (2000): *Immigrant women organizing for change: integration and community development by immigrant women in the Maritimes*, Prairie Centre of Excellence for Research on Immigration and Integration.

<http://husky1.stmarys.ca/~etastsoglou1/Publications/CommunityDevelFinalReport.pdf>

UNFPA (NAZIO BATUEN BIZTANLERIA FUNTSA) (2006): *Estado de la población mundial 2006. Hacia la esperanza. Las mujeres y la migración internacional*, New York, UNFPA.

<http://www.unfpa.org/swp/2006/pdf/sowp06-sp.pdf>

